



Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar

IVÁN IGARTUA (arg.)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Euskara eta inguruko hizkuntzak historian zehar

IVÁN IGARTUA (arg.)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

- Argitaraldia:** 1.a, 2012ko azaroa
- Ale-kopurua:** 700 ale
- © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
- Internet:** www.euskadi.net
- Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1– 01010 Vitoria-Gasteiz
- Fotokonposaketa:** EPS, S.L.
www.eps-grupo.com
- Inprimatzailea:** Gráficas Dosbi, S.L.
C/ San Miguel de Atxa, 29 – 01010 Vitoria-Gasteiz
- ISBN:** 978-84-457-3286-1
- L.G.:** VI 873-2012

AURKIBIDEA

1. IVÁN IGARTUA, “ <i>Euskara eta haren auzoak: aitzinsolas modura</i> ”	7
2. JOSEBA A. LAKARRA, “ <i>Mailegaketa eta berreraiketa euskararen historiaurrearen ikerketan</i> ”	17
3. JAVIER VELAZA, “ <i>El vasco antiguo y las lenguas vecinas según la epigrafía</i> ”	75
4. MARÍA TERESA ECHENIQUE, “ <i>Euskera y románico: su contacto ininterrumpido a través de la historia</i> ”	85
5. JOAKIN GORROTXATEGI, “ <i>Euskaratiko osagaiak gaztelaniaren lexikoan</i> ” ..	103
6. JEAN-BAPTISTE COYOS, “ <i>Euskararen eta gaskoieraren arteko harremanak: zubereraren adibide batzuk</i> ”	151

EUSKARA ETA HAREN AUZOAK: AITZINSOLAS MODURA

IVÁN IGARTUA
(EUSKO JAURLARITZA)

Euskararen gainean izan diren sineste klasikoen artean hizkuntza nahasgabearen irudiak bide luzea egin du historian zehar. Hedadura handiko uste horren arabera, euskarak ez du inoiz pairatu, ez gramatikan ez lexikoan, kanpoko eragirik, eta garbi iraun du historiaurreko garai ilunetatik gaurdaino, inguruan izan dituen hizkuntzen iturri ugarietatik edan gabe. Nahaste guztietatik libre egon izanak antzinean zukeen itxura gordetzeko aukera eman omen dio euskarari, mendeak joan, mendeak etorri. Behin eta berriz entzun den ideia izan da hori, hala etxean nola atzerrian, eta tradizioetik hartutako hurrengo baieztapen hauek adibide gutxi batzuk baino ez dira.

Etxeberri Sarakoarentzat, esaterako, euskara hizkuntza “çaharra, çuhurra, antçatsua edo artificiotsua, garbia, noblea eta bertce hitzcuncetarie ethorquiric gabeco” da. Horrela zioen bere *Escuararen hatsapenac* (ca. 1712) lan argitaragabea. Hizkuntza kutsatua ez izateak barruko ordena eta garbitasunaren seinale ere izan zitekeen, Larramendiri kasu egiten badiogu: haren hitzetan, “el aseo y decencia del vascuence es con evidencia mayor que en otras lenguas; porque tiene sus alhajas tan en orden, tan en sus lugares, tan arregladas, que no se ve en toda su construcción, sino concierto, buen gusto, inventiva, ingenio, cuando en las otras no se ve más que *naste barraste* (sic), confusión y montones informes de lo que llaman riqueza” (*De la antigüedad y universalidad del vascuence*, 1728).

Maisuari orpoz orpo jarraitu zion Kardaberatzek euskarari buruzko iritzia emateko orduan. Eta dizipuluak are argiago adierazi zuen nahasgabetasunaren ideia *Eusqueraren berri onac* (1761) idazlanean: “Beste izkunde edo lengoajeak, nork daki nastu ta batera ta bestera nola ibilli diran: Euskera, Jainkoak nai-ta, menditarte oietan beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izandu da”.

Uste hedatu horrek eragin nabarmena izan zuen atzerritarrengan ere. Hizkuntza zeltei buruzko bere ikerlan zabalean (*Mémoires sur la langue celtique*, 1754-1760) Jan-Baptiste Bulletek honela definitu zuen euskararen eta euskal herri edo komunitatearen egoera: “[n]’ayant jamais été mêlé avec aucune autre Nation, il a conservé sa Langue primitive”.

Hemezortzigarren mendean ongi errotua zegoen euskararen ustezko berezitasun horren gaineko sinestea, eta ondorengo mendeetan ere zeresan handia izan zuen euskara aztertzeke burutu ziren ahaleginetan. Euskararen garbitasunaren aldeko ikuspegi tradizionalak, bestalde, ez bide zuen arazorik euskarak inguruko beste hizkuntzetan utzi omen dituen aztarnak onartzeko. Ez gara orain luzatuko Larramendik edo Astarloak hainbat erdarazko hitzen euskal etimologia maizetik burugabeak hona ekartzen. Ariketa mota horrek, gainera, ibilbide oparoa izan du euskal ikasketetan, Andrés de Pozaren lanetatik hasita. Garbitasuna edo kutsadurarik eza antzinatasunaren ezaugarritzat joko zuten ziur aski, eta, hortaz, zaharrena hizkuntzarik aratzenak behar zuen izan. Euskararen kasuan, mailegataileak baino mailegu-emaile izateak, etimologo sutsu haien aburuz, zahartasun hori areagotu baino ez zuen egiten.

Hizkuntzalaritzaren garapenak hizkuntza nahasgabeen irudia errotik eraldatu zuen, sineste hori burutapen *amateur*-en multzora zokoratuz. XIX. mendearen bukaeran Hugo Schuchardt batek esan ahal zuen, adibidez, ez dagoela maila bateko zein besteko nahasterik gabeko hizkuntzarik, hau da, ez dagoela kanpoko eraginetatik guztiz libre legokeen hizkuntzarik (“es gibt keine völlig ungemischte Sprache”). Halako adierazpen bat kolokan jar lezaketen adibideak ez dira argiak. Garai modernoetan, esaterako, itxura batean guztiz isolatuak bizi izan diren hiztun-komunitateen berri jakin dugu, eta horietan deigarriena –egin diren aldarrikapenen aldetik behintzat– pirahã hizkuntzaren kasua da, Daniel L. Everettek XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadetan ikertua (Everett 2005). Hasierako deskribapenen arabera, pirahã hizkuntzak ez du aldamenen izan zitzakeen beste hizkeretatik ezer mailegatu, ezta Brasilgo portugesetik ere. Egoera isolatu horri zor omen zaizkio hizkuntzak agertzen dituen gramatikazko hainbat bitxikeria, hala nola zenbatzailerik ez izatea edota sintaxiaren errekurtsibitatea ez ezagutzea. Edonola ere, Everetten (2005) analisiak zalantzan jarri dituzten beste ikerlan batzuen arabera, argazkia ez da hain garbia, pirahãk hausten omen dituen unibertsalak, beste modu batera bada ere, haren egitura gramatikalean aurkitu daitezke, eta, azkenik, zenbait elementuk beste hizkuntza batzuetatik eratorriak dirudite (ik. hainbat alderdiren kritika Nevins *et al.* 2009 lanean).

Salbuespenak albuespen, halakorik egiatan badago behintzat, hizkuntzen arteko nahasteak hizkuntzen bilakaeraren arauetako bat da (ik. McWhorter [2001: 93]: “Just as it is inherent to languages to change gradually into new ones, it is equally inherent for them to mix with one another”). Isolamenduan ez dago bizitzarik, eta euskararen kasuan bezala, ahaiderik gabeko beste ehunka hizkuntzatan, isolamendu genetikoak ez du esan nahi isolamendu geografiko edota linguistikoa.

Euskarak damaiguna lege horren adibide paregabea da: historian zehar eragin linguistikoa bereganatu eta besteratu ditu, neurri ezberdinean. Euskararen gaurko izaera eta egitura hobeto ulertzen laguntzen digu haren historiaren gorabeherak ezagutzeak. Euskal lurraldeetatik igaro diren hizkuntza ezberdinen hiztunen zantzuak gorde ditu euskarak, batzuetan nabariago, bestetzetan ezkutuago. Ekarpen horiek euskara bera moldatu eta aberastu dute historian zehar. Baina ez hori bakarririk: euskarak gorde dituen aztarna horien bitartez, dagoeneko hitz egiten ez diren edo beste modu batera hitz egiten diren hizkuntzei buruzko informazio baliotsua eskuratzen ahal dugu, batzuetan hizkuntza horien corpusetik atera ezin dena. Maileguez, esaterako, modu erabakigarrian zehazten dituzte latineko hainbat ahoskera garai ezberdinetan: alderatu besterik ez dago eusk. *bake* < lat. *pace(m)* eta eusk. *gurutze* < lat. *cruce(m)*. Lehen mailegua (*bake*) euskarara iritsi zenean, latinak ez zuen artean ere *i* eta *e* bezalako bokalen aurreko leherkari belareak sabaikaritzen. Gerora garatuko zen prozesu fonetiko horren argitan, euskarak beranduago beretu zuen *gurutze* hitza, hor leherkari ahoskabearen ordeztatik sortu baita hizkuntza emailean.

Baina, batez ere, beste hizkuntza batzuetatik mailegatutako osagaien testigantza ahaidetik ez duen hizkuntza baten historia idazteko da guztiz lagungarria. Euskararen historia idatz badezakegu, hori hein handi batean latinetik eta erromantzeetatik hartutako maileguei zor diegu. Bide horretatik abiatu ziren aspaldi Julio Caro Baroja (1945/1946) eta Mitxelena (1961, 1964, 1974), eta oraindik mailegaketaren inguruko ikerkuntzak, Joseba A. Lakarra erakusten saiatu den bezala, ez bide ditu agortu eman ditzakeen fruitu guztiak. Hizkuntza batean ongi erroturiko maileguez berezko ondare lexikoak pairatzen dituen aldaketa berberak nozitzen dituztenez, aldaketa horiek hizkuntzaren kronologia zehatz batean kokatzeko balio dezakete. Modu horretan, hizkuntzaren –batez ere hizkuntza isolatu baten kasuan– historia egiteko, edo egiten laguntzeko, aukera ematen ahal digute.

Bestalde, maileguez hizkuntzaren itxura eta egitura alda ditzakete. Duela mende eta erdi garbi ikusi zuten neogramatikoez aldaketa linguistikoen tipologian leku berezia zuela mailegaketak, lege fonetikoek eta analogia morfologikoak izan ohi duten eraginaz bestelakoa baita maileguez hizkuntza bati dakarkiotena. Hizkuntza aldaketaren hirugarren mekanismo nagusi gisa aurkeztu zuten orduan, eta halaxe mantentzen da egungo hizkuntzalaritza historikoaren oinarrietan ere. Hizkuntzen arteko harremanen arabera, mailegaketak garrantzi gutxiago edo gehiago du egituren itxuraldaketa, baina, oro har, ez da gehiegikeria bat esatea, McWhorterrek (2001: 121) egiten duen bezala, nahasketa unibertsala dela eta, gainera, saihestezina (“Language mixture, then, is universal and inevitable”). Izan ere, hiztun komunitate ezberdinen artean gertatzen diren hartu-emanen ondoretako bat, guztiz naturalizat har daitekeena, hizkuntza horien egituren arteko elkarreragina da, hitz egitearen lehen helburua elkarri ulertzea delako, gure portaera linguistikoa H. P. Griceko kooperazio komunikatiboaren haritik garatzen bada behintzat. Horrek

bultzatzen du, eta maiz saihestezin bilakatzen, egitura batzuen eta besteen arteko hurbilketa moduko bat, beti edo gehienetan behintzat asimetrikoa dena: hau da, bi hizkuntzaren arteko ukipen-egoeran ohikoena da hizkuntza bat mailegataileagoa, eta bestea emaileagoa, izatea, sistema batetik bestera aldatzen diren elementuen ikuspegitik. Emaizta horretan faktore mota askok eragin dezakete, baina baldintza soziolinguistikoek, esaterako, edo hizkuntza bakoitzaren kultura-garapenak zeresan handia dute.

Sinbiosi asimetrikoa deitu dezakegun hori hizkuntza-maila edo geruzen arabera ere izan daiteke: lexikoaren mailegaketa norabide jakin batean gauzatu liteke nagusiki, morfologian edo sintaxian sumatzen den eragina alderantzizkoan joan daitekeen bitartean. Halako egoerak arruntak dira *pidginizazio* prozesuetan, etorki ezberdineko hiztun-taldean artean elkar-adimena ahalbidetzeko kode murriztu bereziak *-pidginak*¹ sortzen direnean batzuen eta besteen osagaiak konbinatuz. Hobekien aztertu diren kasuetan (tok pisin, bislama edo papiamentu bezalako kreolerak) ikusi da hasierako nahasketan parte hartu zuten jatorrizko sistemen artean lan edo funtzio-banaketa bat gertatu zela: kode mistoaren lexikoa hizkuntza batek eman zuen nagusiki, egitura gramatikalak beste hizkuntzak (edo beste hizkuntza-talde batek) eratu zituen bitartean. Aipatu bezala, horiek ukipen-egoera bereziak izaten dira, uste baino hedatuagoak direnak, baina inola ere ez unibertsalak. Euskarak ere parte hartu izan du historian zehar horrelako prozesuetan, eta ez behin bakarrik, dakigula: Islandian euskara-islandera *pidgin* bat sortu zen XVII. mendean, eta Ternuako inguruetan (Kanadako ekialdeko kostaldean), garai bertsuan, euskararen eta mikmaq hizkuntzaren artean komunikaziorako beste kode mugatu bat sortu zen. Haien analisisia Bakker *et al.* (1991) eta Miglio (2008) lanetan eskaintzen da.

Bestelako ukipen-egoera ohikoagoetan ere, hizkuntza auzoekin gertatzen diren horietan, funtzioen arteko banaketarako joera hori ere sumatzen da, modu lausoago batean bada ere. Mailegaketa, beraz, ez da orekatua izaten ez kopuruz, ez kalitatez. Baina mailegaketaren izaera eta prozesuei dagokienez badira beste oinarritzako gai batzuk ere. Ukipen hizkuntzalaritza izeneko alorrean (*contact linguistics*) funtsezko galdera bati erantzun nahi izan zaio azken hamarkadetan: zer eta zein baldintzatan alda dezakete maileguez hizkuntza batean?

Ikuspegiak aldatuz joan dira denborarekin. Hasieran hizkuntzalariek uste baldin bazuten maileguez ezin ziela hizkuntza baten gramatikaren zenbait alderdiri eragin, gaur egun onartuxe dago (are enpirikoki frogatua ere) mailegaketatik

¹ *Pidgin* hitzaren etimologia nahiko eztabaidatua da: ingelesezko *business* hitzaren ahoskera txinatarretik etor daiteke, batzuen ustez. Baina ingl. *pigeon* ‘uso’ hitzetik eratortzea ere proposatu da (horren atzean legokeen azalpena metaforikoa da, usoak garai batean mezu idatziak bidaltzeko erabiltzen baitziren). *Pigeon English* deitzen zitzaion XIX. mendean txinatarren eta europarren arteko komunikazioa ahalbidetzeko Txinan ibiltzen zuten kode sinpletuari.

ezer ez dagoela salbu, ez fonologia, ez morfosintaxia ezta ere maila lexiko-semanticoa². Aldi berean aitortzen da mailegaketa prozesuek ez dituztela alor guztiak maiztasun beraz ukitzen eta, alde horretatik, ezberdintasunak badaudela. Moravcsikek (1978), adibidez, mailegaketarako murriztapen-multzo bat proposatu zuen. Sailkapen horren arabera, hizkuntza baten morfologian eragina izateko mailegaketa prozesu batek lexikoa ukitu behar du lehenik; atzizki flexiboak ezin dira mailegatu deribaziozko atzizkiren bat lehenago ez bada mailegatu; aditzak ez omen dira zuzenean mailegatzeko; eta tankera horretako beste lau murriztapen. Gerora ikusi da orokortze tipologiko horiek ere ez dutela islatzen maileguei buruzko datuek erakusten diguten aniztasuna, eta printzipio unibertsalak bainoago ohiko joerak jasotzen dituztela (Trask 1996: 314-315, Curnow 2001: 419).

Bestalde, badirudi lotura zuzena dagoela ukipenaren intentsitate-mailaren eta maileguen izaeraren artean. Hortik jo zuten Thomasonek eta Kaufmanek (1988) azken urteotako ukipen hizkuntzalaritzaren oinarriak finkatu zituen lanean³. Haien sailkapenean bost ukipen-egora mota bereizten dira, azalekotik sakonekora, nolabait esan. Egoera horiek elebitasun edo eleaniztasun maila ezberdinak salatzen dituzte, eta horien arabera dira emaitzak, honako laburpen honetan ikus daitekeen bezala (Thomason & Kaufman 1988: 74-76):

Ukipen maila	Ukipenaren nolakotasuna	Emaitzak
I	Noizbehinkako ukipena	Mailegaketa lexikoa bakarrik
II	Ukipen zertxobait sendoagoa	Egitura gramatikalean eragin txikia duten maileguak (funtzio-hitzak, maila bateko ezaugarri fonologiko, sintaktiko zein lexikoak)
III	Ukipen are sendoagoa	Egitura gramatikalean eragin ertaina duten maileguak (deribaziozko atzizkiak, pisu handiagoko ezaugarri fonologiko, sintaktiko zein lexikoak)
IV	Kultura-presio handia	Egiturazko mailegaketa handia (aldaketa tipologikorik eragiten ez duten mailegu ugariak, maila guztietan)
V	Oso kultura-presio handia	Egiturazko mailegaketa oso handia (aldaketa tipologikoa eragiten duten mailegu ugariak, maila guztietan).

² “As far as the strictly linguistic possibilities go, any linguistic feature can be transferred from any language to any other language” (Thomason & Kaufman 1988: 14).

³ Aurreko lanik esanguratsuena, diziplinaren fundatzailea, Weinreich (1953) egina da. Gaur egun erreferentziakoak dira Thomason (2001) eta Matras (2009).

Ukipen azalekoenean mailegaketa soilik lexikoa izan daitekeen bitartean, ukipen mailarik gorenean maileguk hizkuntzen tipologia eraldatzen dute: oposizio fonologiko berriak sortzen dira, paradigma morfologiko berriak eratu daitezke eta hitzen ordena sintaktikoa ere iraultzen ahal da. Ukipenak eragindako aldaketa sakon hauek –IV. mailan ere partzialki sumatu ohi direnak– ezaugarri bereziak izan ohi dituzte, gainera: barruko aldaketa-prozesuen norabidearen aurkakoak izan litezke, adibidez. Morfologiaren ziklo tipologiko naturalak egitura aglutinatzailerak fusioatzaile (edo flexibo) bilakatzen ditu oro har (ik. Croft 2003: 252); mailegaketa prozesuek, aldiz, hizkuntzak fusio edo flexiotik aglutinaziorako bidean jar ditzakete, osetiera, armeniera edo Kapadoziako greziera modernoaren bilakaeran gertatu bezala (Thomason & Kaufman 1988: 84, 93, Igartua 2007/2008: 17-20, 33). Alor morfosintaktikoan ukipenak aldaketa tipologiko erabatekoa eragiten duen kasuetarako Rossek *metatypy* kontzeptua garatu du (ik. Ross 1996, 2007).

Gurera itzuliz, euskara agian maila batekin baino gehiagorekin lot genezake, aztergai dugun garaiaren arabera. Maileguen hainbat geruza aski ezagunak dira (euskara latinarekin edo hizkuntza erromanikoekin elkartzen dutenak), eta horiei esker hizkuntzen arteko ukipenaren norainokoa erabaki dezakegu, baina beste garai batzuetako informazioa urriegia da ondorioak atera ahal izateko.

Erromatarren aurretiko garaietan, adibidez, euskara ukipen-egoera batean egon zitekeen Iberiar Penintsulara K. a. 800 eta 600. urte bitarte (Brontzearen aldia) etorritako leinu zelten hizkuntzekin, baina harreman horiek utzitako aztarnak oso mugatuak dira (Gorrochategui 1987, Trask 1997: 368-372), zenbait kasutan hitz-forma zelten eta euskarazkoen arteko antzekotasunak deigarriak diren arren (eusk. *gori* eta Erdi Aroko irlandarazko *gorim* ‘bero’, eusk. *izokin* eta galo-latinezko *esox* ‘izokina’, eusk. *maite* eta irlandera zah. *maith* ‘ona’, etab.; ik. orain baita Igartua & Zabaltza 2012: 24-25). Kultura materialaren esparruan daukagunaren antzekorik (gogora bedi Mikeldiko aketza, K. a. V. mendetik I. mendera datatua eta zelten idolotzat jotzen dena) ez dugu erraz aurkitzen –toponimiatik kanpo– hizkuntzen arteko antzinako harremanen eremuan (cf. Gorrochategui 1995).

Iberierarekin euskara hainbat modutara lotu izan da. *Vascoiberismo*-aren korrronteak biak ala biak enbor bereko ezpalak direla sinestarazi nahi izan digu, edo, bestela esanda, iberiera antzinateko euskara izan zela. Bada, hala ere, beste ikusmolde bat, aski hedatua azken urteetan, euskararen eta iberiaren arteko antzekotasun fonologikoak nahiz gramatikalak (halakoak badira behintzat) ukipen-egoera bati egozten dizkiona. Hala eta guztiz, ez dago inola ere argi euskararen eta antzinatean Penintsularen ekialdean batez ere mintzatzen zen iberieraren arteko ukipena berma zezaketen baldintzak zeudenik (Javier de Hozen ustetan, adibidez, iberiera *lingua vehicular* edo harremanetarako hizkuntza gisa erabil zitekeen garai hartan, hitz egiten zen lekuetatik kanpo, ik. de Hoz 2009: 413-414, 2011: 28hh.). Edonola ere, ondo ezagutzen diren iberieraren ezaugarriak hain dira urriak, non euskararekin egin daitekeen alderaketan emaitzak ere ezin diren oparoegiak izan.

Horrek mugatu egiten du, noski, bi hizkuntzen arteko maileguei buruzko edozein hurbilpen.

Latinaren eraginak, aurreratu bezala, ez du zalantzetarako tarterik uzten. Zabalak eta sakona izan zen, eta euskararen alderdi gramatikalei ere eragin zien neurri batean (ekar dezagun gogora, esaterako, euskal aditzen *-tu* atzizkia *-indartu*, *ba-bestu*, *bukatu*–, latinaren supinozko formatik hartua). Erdi Aroan euskararen eta erromantzeen arteko harremanak indartuz joan ziren. Euskarak hainbat ezaugarri mailegatu ditu gaztelaniatik, gaskoieratik, frantsesetik eta, maila apalago batean, aragoieratik. Mailegu ugariak lexikoari dagozkie, baina badira fonologiari eta morfosintaxiari eragin dioten mailegaketa prozesuak ere. Gaur egun euskal hiztun gero eta gehiago dira, esaterako, /ɲ/ eta /j/-ren artean bereizten ez dutenak, gaztelaniaren neutralizazioaren ondorioz. Dardarkarien ahoskera, bestalde, frantsesarenetik oso hurbil dago ekialdeko euskalkietan. Kontrako norabidean ere, euskarak inguruko hizkuntzetan eragina izan du. Euskarari egotzi izan zaizkio gaztelaniaren bokal sistemaren sorrera, /v/ eta /b/-ren arteko neutralizazioa eta hitz hasierako *f*- batetik *h*- sortu izana (lat. *ferru(m)* > gazt. *hierro*, lat. *ficu(m)* > gazt. *higo*); gaskoierari dagokionez, *f* > *h* bilakabidea (lat. *focu(m)* > gask. *houèc* ‘sua’, baita hitz barruan ere: lat. *infernu(m)* > gasc. *inhèr/ihèr* ‘infernua’), hitzak soinu dardarkariez hasteko ezintasuna eta bokalen arteko *-n*- sudurkariaren galera (*lūa* ‘ilargia’ < lat. *luna*, *plea* ‘betea’ < lat. *plena*) lotu izan dira euskararen eraginarekin. Aldaketa guztiak euskararen eraginpean gertatu ziren edo ez erabakitzea ez da beti lan erraza izaten, eta kasu batzuetan behintzat zuzeneko eragin hori ukatu izan da arrazoi enpiriko sendoen oinarrian (ik. Izzo 1977, Trask 1997: 415-429). Lexikoan, bestalde, euskararen aztarnak erromantzeetan (batez ere gaztelanian) erraz antzematen dira, kontrako norabidean izandako maileguekin alderatuz gero kopurua dezentez txikiagoa bada ere (baina euskaratik hartutako adibideak ere, gaztelaniaz *-rr-* atzizkia duten hitzen kasuan bezala *-bizarro*, *chamorro*, *cencerro*, *chatarra*, etab.–, nahiko ugariak izatera ere irits daitezke, itxura batean, ik. Iribarren 2010).

Erdi Aroan hasi eta garai modernoetara iristeraino gertatu diren elkarreragin horiek euskara eta inguruko hizkuntza erromanikoen arteko harremanak intentsitate-maila gutxienez ertain batean kokatzen dituzte (akaso Thomason eta Kaufmanek ezarritako III. eta IV. mailen artean). Antzinate klasikoan ere, latinak eta euskarak lotura estuak izan zituela baieztatzeko datu ugari dago. Aldiz, erromatarren aurretiko garaietan euskarak beste hizkuntza batzuekin izan zituen harremanak definitzea zailagoa da, inondik ere, eskura dugun informazioa zeharo urria delako.

Elkarreragin linguistikoen esparruan gauza batzuk nahiko segurutzat jo litezke, beste batzuk, ordea, ez. Liburu hau osatzen duten lanen helburu partekatuetako bat, hain zuzen, euskararen –euskal hiztun komunitatearen– harremanei buruz egun segurtasunez dakiguna azaltzea da eta, horrekin batera, arrazoizko zalantzak noraino heltzen diren ezagutaraztea. Joseba A. Lakarrak mailegaketa prozesuen

eta euskararen berreraiketaren arteko loturak arakatu ditu. Lanaren lehen zatiko hizpide nagusi historiaurrea izan duenez, garai zaharrenetan gertatu omen ziren maileguez mintzatu da, aldeko eta kontrako hipotesiak aztertuz. Latinarekin eta hizkuntza erromantzeekin izandako hartu-emanak ere ukitu ditu lanean zehar. Javier Velazak, bere aldetik, antzinatean euskararen mugei buruzko informazioa eskaintzen diguten aztarna epigrafikoak ikertu ditu: horietako bat edo beste euskaratik gertu legokeen hizkuntza batekin lotzen ditu, ez iberiarekin. Maite Etxenikek euskararen eta erromantzeen arteko harremanak aztertu ditu ikuspegi teoriko eta metodologikotik, iker-eremua definitzeko saio batean. Ondoren, Joakin Gorrotxategik gaztelanian antzeman daitezkeen euskal elementuen tipologia nagusia eta ezaugarriak identifikatzeko egundaino egin den ahaleginik zabalena burutu du. Eta azkenik, Jean-Baptiste Coyosek ederki ezagutzen dituen gaskoieraren eta zubereraren arteko harremanei eskaini die bere artikulua, datuen eta azalpenen sintesia eginez.

Liburuan bildutako lanek, Joakin Gorrotxategirena izan ezik, 2011ko uztailean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatu zuen uda ikastaroa dute abiaburu. UPV/EHUren uda ikastaroetako bat izan zen (“Beste hizkuntzekiko euskararen harremanak historian zehar” izenburua zuena), eta bertan, aipatutakoez gain, Mikel Belaskok eta Gidor Bilbaok ere parte hartu zuten. Lehena toponimiaren ekarpenaz aritu zen, hizkuntzen ukipenaren ikuspegitik, eta bigarrenak euskal *pidginen* gaia jorratu zuen. Arrazoi ezberdinengatik, baina betiere denbora arazoak tarteko, bi egileok ezin izan dute beren lanak liburu hau kaleratzeko ezarri ziren epeen barruan amaitu eta, hortaz, haien idatziak ez daude, tamalez, argitaratutakoen artean. Joakin Gorrotxategi burutzen ari zen artikulua berri izen bezain pronto, prestatzera nindoan argitalpen honetarako euskarazko bertsio bat atontzea proposatu nion. Berak proposamena onartu eta Matías Múgicak ondu du itzulpena. Egile guztiei adierazi nahi diet nire esker ona, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Kultura Sailaren izenean, esku artean zituzten lanei azken bultzada eman eta emaitzak garaiz bidaltzeagatik.

Haien esku trebeari esker, euskararen historian hizkuntza auzoek izan duten eragina hobeto ulertzeko aukera paregabea dugu orain. Kanpotik etorritako osagaiek hizkuntza bera moldatu eta itxuraldatu dute. Haren nortasunaren zati ere bilakatu dira denboraren poderioz. Horregatik esan dezakegu hizkuntza puru edo nahasgabea izatetik, inoiz halakoa izan bada hizkuntzalarien burmuinetik landa, beste edozein hizkuntza bezain nahastua –eta, bide batez, erreala– izatera igaro dela euskara, baita deskribapen linguistikoetan ere. Euskararen izaera, historian zehar inguruan izan dituen hizkuntzek utzitako zantzuek ere osatzen baitute.

Bibliografia

- BAKKER, P., BILBAO, G., DEEN, N. G. H. & HUALDE, J. I., 1991, *Basque pidgins in Iceland and Canada* (*Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*-ren Eranskinak, XXIII), Donostia-San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- CARO BAROJA, J., 1945/1946, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca, Universidad de Salamanca.
- CROFT, W., 2003, *Typology and universals*, 2. argitalpena, Cambridge, Cambridge University Press.
- CURNOW, T. J., 2001, "What language features can be borrowed?", in A. Y. Aikhenvald & R. M. W. Dixon (arg.), *Areal diffusion and genetic inheritance*, Oxford, Oxford University Press, 412-436.
- EVERETT, D. L., 2005, "Cultural constraints and cognition in Pirahã: another look at the design features of human language", *Current Anthropology* 46, 621-646.
- GORROCHATEGUI, J., 1987, "Vasco-céltica", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 21/3, 951-959.
- GORROCHATEGUI, J., 1995, "The Basque language and its neighbors in antiquity" in J.I. Hualde, J. A. Lakarra & R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*, Amsterdam/Philadelphia, John Benjamins, 31-63.
- HOZ, J. DE, 2009, "El problema de los límites de la lengua ibérica como lengua vernácula", *Palaeohispanica* 9, 413-433.
- HOZ, J. DE, 2009, "Las funciones de la lengua ibérica como lengua vehicular" in C. Ruiz Darasse & E.R. Luján (arg.), *Contacts linguistiques dans l'Occident méditerranéen antique*, Madrid, Casa de Velázquez, 27-64.
- IGARTUA, I., 2007/2008, "Ciclos invertidos. En torno a la direccionalidad del cambio tipológico", *Die Sprache* 47/1, 1-47.
- IGARTUA, I. & ZABALTZA, X., 2012, *Euskararen historia laburra / Breve historia de la lengua vasca / A brief history of the Basque language*, Donostia-San Sebastián, Etxepare Institutua.
- IRIBARREN, M. C., 2010, *Influencias vascas en la sufijación castellana. Morfología y contacto de lenguas* (=Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" 44/1), Donostia-San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- IZZO, H. J., 1977, "Pre-Latin languages and sound changes in Romance: the case of Old Spanish /h-/", in M. P. Hagiwara (arg.), *Studies in Romance linguistics*, Rowley, Newbury House, 227-253.
- MATRAS, Y., 2009, *Language contact*, Cambridge, Cambridge University Press.
- MCWHORTER, J., 2001, *The power of Babel. A natural history of language*, New York, Times Books.
- MICHELENA, L., 1961, *Fonética histórica vasca*, San Sebastián, Gipuzkoako Foru Aldundia (bigarren edizioaren berrargitalpena Mitxelenaren lan guztien

- edizioan: L. Michelena, *Obras completas*. VI., J. A. Lakarra & Í. Ruiz Arzalluz, arg., Donostia-San Sebastián/Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 2011).
- MICHELENA, L., 1964, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, San Sebastián, Auñamendi (berrargitalpena: L. Michelena, *Obras completas*. V., J. A. Lakarra & Í. Ruiz Arzalluz, arg., Donostia-San Sebastián/Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 2011).
- MICHELENA, L., 1974, “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, *Fontes Linguae Vasconum* 6, 183-209 (berrargitalpena: L. Michelena, *Obras completas*. V., J. A. Lakarra & Í. Ruiz Arzalluz, arg., Donostia-San Sebastián/Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 2011).
- MIGLIO, V. G., 2008, “«Go shag a horse»: the 17th-18th century Basque-Icelandic glossaries revisited”, *Journal of the North Atlantic* 1, 25-36.
- MORAVCSIK, E. A., 1978, “Universals of language contact”, in J. H. Greenberg, Ch. A. Ferguson & E. A. Moravcsik (arg.), *Universals of human language. I. Method and theory*, Stanford, Stanford University Press, 93-122.
- NEVINS, A., PESETSKY, D. & RODRIGUES, C., 2009, “Pirahã exceptionality: a reassessment”, *Language* 85/2, 355-404.
- ROSS, M. C. 1996, “Contact-induced change and the comparative method: cases from Papua New Guines”, in M. Durie & M. C. Ross (arg.), *The comparative method revisited: regularity and irregularity in language change*, New York, Oxford University Press, 180-217.
- ROSS, M.C., 2007, “Calquing and metatypy”, *Journal of Language Contact – THEMA* 1, 116-143.
- THOMASON, S. G., 2001, *Language contact: an introduction*, Edinburgh, Edinburgh University Press.
- THOMASON, S. G. & KAUFMAN, T., 1988, *Language contact, creolization, and genetic linguistics*, Berkeley-Los Angeles, University of California Press.
- TRASK, R. L., 1996, *Historical linguistics*, London, Arnold.
- TRASK, R. L., 1997, *The history of Basque*, London/New York, Routledge.
- WEINREICH, U., 1953, *Languages in contact: findings and problems*, The Hague, Mouton.

MAILEGAKETA ETA BERRERAIKETA EUSKARAREN HISTORIAURREAREN IKERKETAN

JOSEBA A. LAKARRA
(UPV/EHU)

Sarrera^{*1}

La comparaison est le seul instrument efficace dont dispose le linguiste pour faire l'histoire des langues... De ce que la méthode comparative est la seule qui permette de faire l'histoire des langues il résulte que, tant qu'une langue est isolée, elle est dénuée d'histoire. Entre l'état du basque au XVI^e siècle et l'état du basque aujourd'hui, il y a des différences; mais les changements ne sont pas essentiels; en substance, la langue est restée la même. Si donc on ne trouvait pas le moyen de rapprocher le basque de telle ou telle autre langue, il n'y aurait aucun espoir d'en faire jamais l'histoire (Meillet 1925 *apud* Mitxelena 1963: 12).

* EJ-ren “Lingüística histórica e historia de la lengua vasca” [GIC07/89-IT-473-07 eta GIC. IT486-10] ikerketa talde kontsolidatuaren eta Ministeritzako “Monumentae Linguae Vasconum (I-II-III-IV)” [= BFF 2002-03132, HUM 2005-0847, FFI2008-04516 eta FFI2012-37696] ikerketa egitasmoen barnean gehi UPV/EHUko UFI 11/14-an kokatzen da honako hau.

¹ Testu honen oinarrian hiru hitzaldi dira, bata, hurbilenekoa, 2011ko uztailean EJ-k antolatu eta UPV/EHUko Ikastaroetan emana; lehendabizikoa (“Latina eta euskara”) 15 urte lehenago Gidor Bilbaok zuzendutako UEU-ren Ikastaroetan Iruñean eta tartean Leonen “Etimología y reconstrucción” izenarekin (III. Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística [2-5/III/1999]) aurkeztutako gogoeta zenbait.

Batetik bestera aldatua asko edo gehiena izan arren, badira hainbat puntu –batez ere Mitxelenak egindako maileguen erabilerari buruzkoak eta horrek aitzineuskararen berreraiketa estandarrean duen garrantziarekikoak– lehen bezalatsu gorde zitezkeenak. Zorionez, era askotako datu eta lekukotasunak dira mailegaketaren azterketan aurrerapen kuantitatiboak (etimologia berriak) eta kualitatiboak (metodo eta irizpideetan) egin direla baieztatzeko. Beharbada, mailegaketa geruez landa, dialektoen arteko mailegaketak izan litezke ilunen direnak eta etorkizunean argitzea merezi luketenak.

(...) Despite the doubts about the possibility of discovering historical facts about isolated languages, there exist several resources that can help to recover quite a lot of historical information about these languages (...) The study of the history of Basque can be an example to the study of other isolated languages (Campbell 2011: laburpena).

Aspaldiko lan batean (Lakarra 1997b) aipatu nuen Antoine Meilletek (1925: 12) ahaidegabeko hizkuntza (eta euskara zuen berariazko aipagai hori zioenean) historiagabe, edota –Mitxelenak (1963) zehaztu bezala–, historiaurregabeztzat zuela. Urte asko igaro arren geroztik, ez dira ugaldurik euskararen uestezko ahaideetasunei buruzko frogak (cf. Trask 1997), eta oro har, Meilleten iritziak bere hartan dirau oraindik orain, nahiz eta egun urrutiago jotzeko eskubidea eta inoiz aukera izan². Lan hartan erakustenenez, hizkuntzalaritza historiko klasikoan mailegaketak arazo-iturri baino ez da funtsean: alorraren garapenaren oinarrian diren lege fonetikoak itsustu eta era guztietako salbuespenez josi ohi baitituzte eta horrekin konparatistaren lana are zailago bilakatzen³; usuenan filologia zenbaiteko joera txobinistak plazaratzeko balio dute, delako hizkuntza emaile baten atzean den kultura, gizarte eta zibilizazioen edertasun eta bikaintasun paregabeak hartzaile ziztrinen gainetik jartzeko⁴. Halere, ezagun denez, aitzinhizkuntzak –eta, oro har, hizkuntzen historiaurrea– ikertzeko lau bide genituzke (Haas 1969: 46-51): (1) ikertutako hizkuntza ahaideren batekin erkatzea, (2) lehendik lortutako aitzinhizkuntza ahaide berri batekin erkatzea, (3) aztertu hizkuntza horren mailegu zaharren azterketa, eta (4) lehendik ditugun lanabesen azterketa ezberdin, zuzenago edo aberatsagoa.

Euskara genetikoki isolaturik –eta egoera aldatzeko itxaropen gutxiarekin– izanik, ezin baliatu Haasen lehen eta bigarren bideez. Azken aukera beti da hor, jakina⁵: ez da hatsarriei dagokien ezinik barneberreraiketa batetik abiatu eta

² Orain ez nago guztiz seguru Meilleten hitzak zuzen hartu izan diren, baina bego hau beste aukera baterako.

³ Melanesiako “hizkuntza aberrantez” (ikus Grace bibliografian) edo latinaren mailegu italikoez bibliografia ugaria da (cf. § 7.1-n Martinet (1950) eta Mitxelena (1957)-ko aitzineko oharra euskaraz mailegaketak gramatika historikoari jarri oztipoez). Aipagarria da euskara eta edozein hizkuntza edo familia erkatzerakoan zeinen arreta gutxi jarri ohi den maileguetan, bai euskararen aldetik diren edo izan litezkeenetan eta baita beste aldekoek dagokienez: ikus Kaukasoko hizkuntzentzat Charadchidze (1990-91) eta Schmidt (1989).

⁴ Rohlfen 30etako lan famatuaren izenburuak ideia bat eman lezake latinista eta latindar inperioaren bozeramaile zaratzatuen bera izan ez arren. Lakarra (2008a)-ren Eranskinen ere bada zenbait euskaltzalek –usuenik itxaro ez ohi den tokian– egindako latinetikoa ondarearen bikaintasunaren aldarrikapen suturik.

⁵ Mitxelenaren metafora batez esatearren (eta berak oharu lege, agian ez da metafora hutsa) “todo estado de lengua es un sistema ordenado que por su misma ordenación conserva registrado un mensaje que el paso del tiempo vuelve borroso e ilegible. Esta degradación, si no es necesariamente rápida, es continua y se prosigue incesantemente a medida que las unidades y la ordenación correspondiente a las nuevas estructuras van suplantando a las unidades y a la ordenación antigua” (1963: 11).

aurrera jotzeko, atetiko lekukotasun berririk ez izanik ere, nahiz eta, ezagun denez, handiak diren zailtasunak hizkuntz egoera berreraiki batean aurreko egoera batera jotzera, halaberharrez, garamatzaketen premiazko “barne-kontraesan” edo oinarri aski beti aurkitzeko⁶.

Euskaraz maileguak aspaldidanik izan dira aipagai, dela haietan ikusi uste izan den hizkuntzaren ustelketagatik, dela, alderantziz, haiek hizkuntzari omen zekarkioten loriagatik, mailegaketa horren portzentaiekiko iritziengatik... (cf. Lakarra 2008a: eranskina). Hizkuntzalariei, gutxienez Schuchardten garaitik datorren maileguen azterketa zabalak (“zehatzak” esatera nindoan) euskal lexikoaren zati handi baten etimologia eskuratu digu⁷. Baina, honela euskal lexikoaren zati horren berri lortu arren, norbaitek galde lezake zer egin litekeen hizkuntzaren iragana aztertzeko berebiziko dugun jatorrizko altxorarekin, hots, hizkuntza IE-en edota ez-IE-en batetik ez datorren lexikoarekin.

Ondoren diren gogoeten bitartez aitzineuskararen eta euskararen historiaurrearen berreraiketa funtsean maileguen azterketan oinarritu dela eta zorionez gure hizkuntz berreraikitzaile lanetarako euskarri hori bilatu ahal izan dela erakutsi gogo nioke galdetzaile horri: konparatistek ikertzen dituzten hizkuntzen lexikoaren erdia baino ez balerabilte –maileguak beren lanetik landa utziaz–, garbi litzateke ikerketa horietan badela zer zuzen eta, euskalaritzaren esparruan ikusiaren arabera, baita ondorioak aberasteko modu eta esperantzarik ere.

2. Hizkuntza hartzailea maileguen bitartez ikertzeko zenbait saio

From a cultural-historical point of view, a transfer of words (or other language material) is interesting because this usually reflects cultural influence between speech communities. *From a linguistic point of view, adopting a feature previously used in another language, the donor language often leads towards interesting restructuring processes which may also tell us more about the nature of the receiving language*, as we shall see below (Dimmendaal 2011: 179; etzanak neureak [JAL]).

⁶ Lakarra (1995) eta geroztiko lanetan gure ikerketa-asmo orokorra hizkuntzaren egitura zenbaiten –mailegatu ez diren morfemen egitura, distribuzio eta konbinaketaren– azterketaren bitartez ikerketa estandarrak (funtsean Mitxelena 1957a, *FHV*, 1964, 1974 eta enparatuek) erdietsi sakontasun diakronikoa baino haratagokora jotzea da (cf. orain Lakarra 2012e). Foxek (1995: 145hh) eta hark baino lehen beste askok erakutsi bezala, hizkuntzen egitura ereduaren (*patterned*) zordun dugu berreraiketa (Saussure gaztearekin hasita), hizkuntzen historiaren iraganeko garaiak zehazteko lanean.

⁷ Tovarrek hasi eta M. Agudek burutu (*A-Orloi*) euskal hiztegi etimologikoak latinaren eta erromantzearen hedadura euskal lexikoan zenbaterainokoa izan den argiro erakusten digu.

2.1. Hegoaldeko eslabiera eta latin arrunta⁸

Aitzin-eslabieratik K.o.ko IX. mende akabuan dialekto eslabiarretako lehen testuetako hizkuntz egoerara bidean gertatu aldaketak larriak izan ziren. Bokalen sistema errotik eraldatu zen lehenagoko luzera bereizkuntza kualitatiboak ordezkatzan zuelarik eta –besteren artean– diptongoak ere monoptongatuaz (Bidwell 1961: 108). Kontsonanteetan ere izan zen parekorik: hitz-amaierakoak erori, taldeak soildu, *VrC* eta *VIC* gehienek metatesiak pairatu, edota ozena eta ondoko C-ren artean V epentetiko bat garatzen zelarik, eslabiar lurralde zabalenean *i / u* laburrak + *r / l* bilakatu ziren silaba-koda zilegi bakarra.

Barneko lekukotasunen bitartez hots batzuk beste batzuen aurretik edo ondoren jar litezke; beste asko, alabaina, garaikide zein bata bestea baino zaharrago nahiz berriagozat jo litezke, edota, hobe esan, ez da lekukotasun aski batera ala bestera erabakitzeke. Horretarako erabili izan da, hain zuzen, Balkanetako erromantzearen laguntza.

Seigarren mendearen akaburantz Balkanetan ezartzerakoan, eslabiarrek ez zituzten lurralde horiek mortu aurkitu: Danubioaren hegoalde gehienez Adriatikotik Dyrrachium (Durazzo) bitartean grekera mintzatzen bazen ere, ibaiaren iparrean lehenagoko bertako IE hizkuntza zaharragoez landa, latin arrunta egiten zen eta hortik hartutako mailegu eta leku-izen anitzek utzi du arrastorik eslabieraz⁹.

Eslabierazko emaitzak latineko etimoeekin erkatuaz aldaketok ikus litezke¹⁰:

- a) *a* azentuduna > *a* azkenaurrekoan eta *á* > *o* azken-hirugarrenean: *Savus* > *Sava*, *Pagus* > *Pag*, *Massarum* > *Mosor*, *Apsarum* > *Osor*.
- b) *a* azentugabea > *o*: *Salona* > *Solin*, *ad Portulam* > *Oprtalj*.
- c) *o* azentuduna nahiz azentugabea > *u* laburra, nahiz eta lekukotasun gutxi izan.
- d) *o* itxia eta *u* > *u* luzea > Eslabiera batua *y* > Hegoaldeko Eslabiera *i*: *Salona* > **solynu* > *Soli*, *Scardona* > *Skradun*, *Tragurium* > **trogyru* > *Trogir*.
- e) *e* itxia zein *i* azentudun izanik > *i*: *Nedinum* > **nīdinū* > *Nadin*, *Oescus* > *ęsku* > *Iskār*.
- f) *i* azentugabea > *i*: *civitate* > **cīvītātī* > *Cavtat*.
- g) *e* azentuduna > *e*: *Senia* > *Senj*, *venēt-* > **bīnetūk* > *bnetk-* (eliz-eslabiera zaharrean) > *mletk* ‘Venezia’ (serbokroata modernoan).

⁸ IE familiaren beraren barnean ere bada mailegaketaren azterketaren bitartez historiaren ikerketa hainbat aitzinatu duen azpifamiliarik; pentsatzekoa da –gogora Mitxelenak dioena (1964)-an– albaniera horietarik dela. Hemen, halere, aski iruditu zait eslabieraren eta zeltaren kasu ezagunagoak aipatzea. Atal honetarako ikus Bidwell (1961); errusieraren garairik zaharrenetarako (baina mailegaketazko berariazko interesik gabe) ikus liteke Vlasto (1988).

⁹ Hortik jalgi ziren beranduago oraindik mintzo den errumaniera, Veglia irlan XIX. mendea aitzinaturik itzali zen dalmatiera eta venezieraz kutsaturik Istria aldean irauten duten erromantze-hiztun multzoak (honetzat bada Chambonen arestiko lan interesgarri bat).

¹⁰ Bidwellek ohartzen duenez, honek guztiak azken kokaguneaz landakoetan balio du; hor, aldiz, erregelak nahasiagoak dira ulertzekoa ere den moduan.

- h) *e* azentugabea > *i*: cf. goian *venét-* gehi *Nedinum* > **nīdinũ* > *Nadin*.
- i) aurreko V + sudurk. + C > *e* irekia: *Parentium* > **pore^Nčĩ* > *Poreč*.
- j) *e* itxi nahi irekiak > *e* laburra eta *a* > *a* / __r/l + C: *Arba* > *Rab*, *Mēlita* > **melta* > *Mljet*, *Serdica* > *Srědīčĩ* (metatesiekin hirurak).

Honen guztiaren ondorio gisa eslabiarrak Balkanetarantz abiatu zirenean beren hizkuntzaren bokal sistemaren aldaketa hasi-berritzat jotzen du Bidwellek: latinetiko mailegurik zaharrenek /aw/ diptongoak eta bokal luzera fonologikoak irauten zutela erakusten dute; geroago hasi zen diptongo hori *ov* legez mailegatzzen; orobat, *o* itxiak eta *u*-k ez *y* (lehen bezala) baina aitzineslabierako *aw*-ren emaitza berriekin bat egin zuten, etab. Kontsonanteetan azterketa zailagoa izan arren, latinetiko maileguen azterketan oinarriturik eraiki ahal izan da haiek ere biltzen dituen ondoko kronologia absolutoa:

- a) Lehen sabaikaritzearen eragina amaitua zen K.o.ko 600. urterako (*terminus ad quem*, eslabiarren ezarpena Balkanetan),
- b) Eslabierazko bokal sistemaren berregituraketa (monoptongazioak gehi luzera > bes-telako berezkuntzak) indarrean zen 600. urterantz eta Balkanetako ezarpenaren lehen garaian, baina amaitua 750. urterantz, *Laurentius* > *Lovreč* bezalako bilakabideekin hartzen hasi baitziren orduan kristau izenak.
- c) Bigarren sabaikaritzea ere indarrean zen 600. urtean eta amaitzen 750.ean; nolanahi ere desagertua da IX. mende akabuko lehen testuen aurretik.
- d) Likiden metatesia 750.az geroztik hasi eta 900.a baino lehen amaitu zen.
- e) Hirugarren sabaikaritzea bazen 600. urterako eta ia 900.era arte iraun zuen hegoeslabieraz¹¹.

Bidwellek (1961: 127) ondorio gisa aldarrikatzen duenez, aitzineslabiera (eta are IE) eta lehen testuen bitartez ezagutzen dugun eslabierara bitartean izandako aldaketen arazoa aurreko eskuliburu eta ohiko azalpenetan ezagutezinak bailiran saihestu egiten ziren, edo guztiei ematen zitzaaien itzelezko aintzinasuna; latin arruntetik mailegatuaren azterketak, ordea, artean ezin erdietsi zitekeen zehaztasuna erantsi zion ikerketari.

2.2. Irlandera eta latin britonikoa

Britaniera zaharra noiz bilakatu zen britaniera berria (*neo-Brittonic*), hots galesa, kornikoa eta bretoiera, ikertzen dutenentzat bada mugarri nagusirik:

If there is any one datable phonological change which marks the end of British and the beginning of Welsh, Cornish, and Breton, it is the loss of final syllables (with the resulting break-up of the case system) which was completed about the middle of the sixth century, together with the syncope of composition vowels and certain other unstressed internal syllables which took place at roughly the same time (Jackson *apud* Sims-Williams 1990: 217).

¹¹ Ikus Bidwell (1961: 126-(f)) hegoeslabiera-mendebaleko *y* eta *i*-ren nahasketaz [650/750-850 bitartean].

Jacksonek kronologia absolutoak eraikitzeke britanierarekin kontaktuan¹² izandako beste hizkuntza batzuen kronologia absolutoak eta laguntzaren bat eman lezakeen zenbait sail erabili zuen (epigrafia, testuen filologia eta populazio mugimenduak) lanabes gisa bere liburuaren lehen zatian; eta astiro eta zehatz miatu ondoren, britaniera eta britaniera berriaren artean izandako aldaketa fonologikoen kronologia erlatibo eta absolutoa eraiki zituen bere 1953ko lan klasikoan¹³. Ahultzea (*lenition*), azken silaben galera, erdiko bokalen sinkopa, espirantizazioa eta kantitate sistema berria... ordena honetan gertatu zirela eta guztiak 400-600 urteak bitartean koka litezkeela garbitu zuen.

Bada latinetik hizkuntza zeltiko zahar batera igarotako mailegu latindar samalda: latin britonikotik irlandera zaharrera, alegia. Lehenagoko bestelako gutxi batzuen (*fin* < *vinum*, *or* < *aurum*, eta Schmidtek (1991: 4) emandako enparatuen) lekukotasunik izan arren, batez ere Done Patriren misioaren [432] eta ondorengo eraginez Irlanda kristautu ondorengo mendeetan eliza-latin britonikoak –eta hango latin mintzatuaren ahoskerarekin¹⁴– utzitako hainbat berba izan dira irlandeararen historia landu dutenek aztertutakoak¹⁵. Dagoeneko XX. mende hasieran erakutsi zenez, latinetik maileguak bitan banatu ahal dira beren ezaugarri fonetikoen arabera¹⁶. Lehen taldekoek ondoko bilakaerak betetzen dituzte:

- (1) $p > c$ (*purpura* > *corcur*; *pluma* > *clum*, *puteus* > *cuithe*, *Patricius* > *Cotriche*, *presbyter* > *cruimther*; etab.)¹⁷,

¹² Testuinguru zabalago batean, “Language contacts between Latin and Celtic in the historic period are the consequence of events that took place between c. 400 B.C. and c. 400 A.D.” dio Schmidt-ek (1991: 2).

¹³ Cf. “Our information of the Britt. language of the pre-Roman and Roman periods is confined to Greek and Roman sources and consists mainly of names and single words (...) Another important source or Early Britt. is the corpus of approximately 800 words borrowed from Latin during the four centuries of Roman rule in Britain” (Schmidt 1990: 126-127).

¹⁴ Honetaz eta latin horren iraupenaz eta gainerako ezaugarriez ari da Jackson aurreko kapitulu (III).

¹⁵ Ikus Jacksonek (1953: 123 hh) maileguok ez zelta britonikotik baizik eta hango latinetik igaroak direla erakusteko emandako azalpenak; izan ere bietan leherkariak ahulduak ziren bokalararte (*p, t, k, b, d, g, m* > *b, d, g, m*) eta *a* luzea > *o* luze irekia bilakatua.

¹⁶ Schmidtek (1991: 3) “[...] for Irish, where, in spite of present day criticisms, we must distinguish between two strata of Latinisms, i.e. the Cothriche and the Pátr(a)icc strata” diosku hitzez hitz; antzera aurreko urteko lanean ere, hemen “In any case, along with the river names mentioned in the introduction, the two-strata theory has proved particularly successful as an aid to the investigation of phonological change in Goidelic and Brittonic” gehituaz (1990: 131).

¹⁷ $p > c$ ez zen zuzenean gertatu; mailegu horiek sartu orduko irlandearak *p* galdua zuen eta hurbilen zen fonema (*qw*) erabili zuen; gero, *qw* guztiak *c* bilakatu zirenean, bete zen aldaketa hau.

- (2) *-t-, -c- > -th-, -ch-* (*puteus > cuithe, Patricius > Cotriche, presbyter > cruimther, etab.*),
- (3) *-ius, -ia-, -ium, -eus, -ea, -eum > e* eta *-io > -(i)u* (*cuithe, Cotriche, *orthu < oratio*),
- (4) *nt, nc > nd, ng* (*planta > cland, uncia > ungae*),
- (5) *a luzea > a* (*caseus > caise*), eta
- (6) *f- > s-* (*fenestra > senester, frenum > srian, furnus > sorn*).

Bigarren taldekoak lirake, aldiz, ondokoak agertzen dituztenak:

- (1) *p > p* (*pater > pader, spiritus > spirud, Patricius > Padrig*),
- (2) *-t-, -c-, -p- > -d-, -g-, -b-* (*pader, spirud, Padrig*)¹⁸,
- (3) *-ius* eta gainerako amaierak galdu egiten dituztenak (*Padrig, purgadoir*)¹⁹,
- (4) *nt, nc* eta *mp* gordetzen dituztenak (*gentes > gent(i), templum > tempul*)²⁰,
- (5) *a luzea > o luzea* (*oratio > oroid, altare > altoir, etab.*)²¹

Saraw-k azaldu zuen taldeok ordena horretan mailegatu zirela, bata irlandezar zenbait aldaketa jazo baino lehen, bestea aldaketok jazo ondoren, nahiz eta ez ohartu britanieran eta hango latinean²² ere garai beretsuan gertatzen zirela. Aldaketa guztion kronologia erlatiboa irlandera zaharrean Pokornyk zirriboratu zuen: (1) *a/o* eta *i/u*-afekzioa silaba azentudunetan, (2) *a/o*-afekzioa silaba azentugabeetan, (3) azken silaben galera, (4) ordainetako luzamendua *cr, cl, cn, gr, gl* eta *gn* laburtuaz eta (5) sinkopa.

Ogam inskripzioak eta bestelakoak gogoan izanik, baina maileguen azterketan oinarriturik funtsean (cf. Schmidt 1990: 129)²³ Jacksonek (1953: 141hh), aldaketen data absolutoen taula proposatzen du, Done Patri eta bere jarraitzaileen lanaren (bostgarren mendearen bigarren laurdena edo erdialdea) eta seigarren mendearen erdialdera bitartean:

¹⁸ Nahiz eta bigarrenak ere idatziz *< -p-, -t-, -c- >* ageri irlandera zaharrean (cf. Jackson 1953: 126, 3. oh.).

¹⁹ Honek adierazten du ordurako irlandezararen azken silaben galera jazo zela (Jackson 1953: 129).

²⁰ Hasiera batean irlandezar ez zituen talde horiek, baina gero garatu zirelarik, maileguotan gorde ahal izan zituen (Jackson 1953: 129).

²¹ Irlandera zaharrak ez du *f*-rik eta soilik beranduago garatzen da, lenizioaren ondoren.

²² Latin horren izaera arkaikoa (cf. Euskal Herrikoa) behin baino gehiagotan aipatu ohi dute ikertzaileek; horrekin lotua da Mitxelenak (1965) zeltan utzitako maileguak erabiltzea latin zahararen azterketarako.

²³ Schmidtek (1990: 126), Jacksonen ereduaren zerbait aldaturik eta hizkuntzaz landako gertakarietan oinarriturik, honako proposamena egiten du: “the history of Britt. may be subdivided into three periods: a) the pre-Roman period, from the time of the first reports on Britain by Pytheas of Marseilles, c. 325 B.C. down to the Claudian invasion in 43 A.D.; b) the Roman and early post-Roman period until the arrival of the Anglo-Saxons in 450 A.D.; c) the post-Roman period down to the emergence of the neo-Britt. languages”.

1. At some time between the first and early fifth centuries, the change *nt, nc > dd, gg*, with compensatory lengthening.
(Late fourth or early fifth century, the oldest Ogam inscriptions).
(Mid fifth century, the main body of Cothriche loanwords).
2. Second half of the fifth century, in the following order;
 - (a) Lenition (*f > s*- sub-group of Cothriche loanwords)
 - (b) Reduction of unstressed long vowels
 - (c) *a/o* and *i/u*-afection of stressed syllables.
 - (d) *a/o*-afection of unstressed syllables.
3. About 500, loss of final syllables.
4. First half of sixth century, reduction of *cr, cl, cn, gr, gl, gn*, with compensatory lengthening of short vowels.
5. Mid sixth century, syncope.
(Exact position in the table uncertain: (1) infection of consonants, which is older than loss of final syllables; (2) *qwo > co, qwe, qwi > c'u'e, c'u'i*, first half of sixth century; the two last *> ce, ci* perhaps second half of sixth century) (Jackson 1953: 142-143).

3. Maileguak ezagutzeko bideak

Ez naiz sartuko, interesgarri eta garrantzitsu izan arren, mailegaketaren zergatiak aztertzen –Campbellek (1998) beharra eta omena aipatzen ditu nagusitzat eta hala iruditzen zaio edozeini–, gai hauek erraz baztertzeak ez badira ere hurbilketa egoki batean. Bibliografia ugaria eta etengabe ugalduez doana du gaiak, egungo egunean norberak kontrolatu beharrean berak norbera menperatzeko modukoa. Hortik atera genezakeen ondorio nagusia, ene ustez, zera litzateke: edozer edo ia edozer mailega litekeela denbora eta kontaktu egoera egokia izanaz, baina beti ere hierarkia zenbait gogoan izanik: izenak errazago aditzak baino, hitzak errazago eratorpen afijoak baino, hauek errazago flexioak baino, etab.; horrenbestez, hierarkiaren goiko muturreko zerbait mailegatua dela baieztatzeko beheragoko mailek maileguz bete-xamarrek beharko dute²⁴.

Maileguak ezagutzeko irizpideak *realian* oinarrituak edo aztertutako formen hizkuntza ezaugarrietan (fonologiko eta morfologikoetan, gehienbat) aurki ditzakegu (cf. Trask 1996, Campbell 1998, Dimmendaal 2011): *lehoi, zebra, iglu, te, kafe* eta beste hainbat mailegutzat jotzeko hasiera batean lehen taldeko arrazoiak izan ziren burutan –historikoki horrelako animalia eta produktoak ez dira ez Euskal Herrietan eta ezta urrunxeago ere aurkitzen eta, beraz, oso egiantzekoa da

²⁴ Leipzigeokoe diotenez (eta aspalditik ezagun zenez) partizipioak aski erraz baina aditz jokatuak nekez mailega litezke aditzaren esparruan; hortik euskarak hainbat mailegu (gehienak) partizipioetarik edo partizipio gisa hartu izana eta ia ezinezko *entzun (dantzut, dantzuzu...)* eta *ezagutu [egiatan ezagun] (dazagut, dazaguzu...)*, Schuchardtek dioena dioela. Bestalde *acabó* (3. p.sing. lehen aldia) *> akabo* (exklamazioa), *placet* (id, orainaldia) *> laket* (izen/adj.) erraxki ulertzen ahal ditugu.

horiek edo horien berri gugana ekarri zuenak izenak ere kanpotik ekarri zituela²⁵. Alabaina, *tse-tse*, *blok*, *ñu* eta enparatuetan (hauek ere Euskal Herritik kanpoko zerak izan arren) euskaratik hain bereiz diren ezaugarri fonologikoak –eta azalpen etimologikoa (cf. Campbell 1998)– begibistakoago direla dirudi; orobat *futbol*-en edo *danzin(g)*-en kasuan (< ing. *foot-ball*, *danc-ing*)²⁶.

Latinaren eragina aztertzean oso kontuan izan behar da –Mitxelenak usu gogoratu legez– eragin hori etengabekoa izan dela, Britainia Handiko zeltan ez bezala. Bestalde, jatorrizko hitzen eta maileguen artean bereizkuntzak ez dira erabatekoak: edozer da ondare zaharrekoa besterik frogatzen ez den bitartean: gerta daiteke lekukotasun eta azterketa gehiagorekin lehen zahartzat genuena gero mailegutzat jo behar izana (gutxiagotan aurkakoa: cf. beherago *adar*-en kasua).

Jatorrizkotzat ditugu guk ezagutu historia garaian etengabe hizkuntzaren altxorraren barnean izan direnak, honen eboluzioa, garaian garaiko aldaketekin pairatzen zutelarik. Horretaz, hizkuntzaren aldaketa guztien lekukotasuna eman dezakete kasurik hoberenean; maileguak aldiz, batzuk lehen eta besteak gero sartu dira hizkuntzan eta beren etorkia ere ez da beti bera izan. Hauen lekukotasunak hizkuntzaren eboluzioaz berri emateko soilik sartu diren garaitik gerorako balio du: ezin pentsa dezakegu euskararen beraren aldaketak direla euskararen noizbait errotu den zeinahi maileguk bere latineko etorkitik izan dituen guztiak: batzuk euskarara igaro baino lehenagokoak izan daitezke. Esate baterako, *caelum* > *zeru*-tik ezin atera genezake euskaraz belareak hitz hasieran txistukari bilakatzen direla edota hitz bukaeran sudurkariak galdu egiten direla; cf. *gela* eta *il(h)un*, hurrenez hurren. Haatik, *-l-* > *-r-* bai, hori euskararen barnean jasan du eta, beraz, *zeru* euskaraz zaharrago dugu *sekula* (< *saecula*) baino, eta ondorio beraren alde (*sekula*-ren modernotasunaren alde, alegia), egiten du hasierako *s-* apikariak ere; ezinbestean, aldaera zaharragoa dateke Z-ko *zekürü* (cf. § 7.1).

Forma irizpideak kontuan harturik (semantikaz landa), maileguak datatzeko barneko edo atetiko irizpideak erabil ditzakegu; alegia, mailegua zaharra dateke baldin eta a) bere etorkizko itxura ongi gorde baleza (euskarara iritsi aurretik), b) bere etorkizko itxura asko alda baleza (euskararen bilakabide propioekin). Hots, zaharra izango da aldameneko erromantzeetan jazo diren aldaketa fonetiko batzu ez baditu pairatu, haietarik ez dela igaro esan nahiko baitu eta, alderantziz, zaharra izan beharko du, euskararen barnean jazo diren beste zenbait aldaketa

²⁵ *Artoa*-rena kontrako kasua genuke, *maiza*-ren baliokide den neurrian; hemen badirudi izen zaharrak lehengo balio zaharra ('artatxikia') utzi eta berria hartu zuela ('maiz'). Ez da fenomenorik ohikoena, inolaz ere, baina bai kontuan hartzekoa (cf. *azterketa* > 'etsamina' edo [ling.] *ezaugarri*).

²⁶ Antzera gertatzen da *adar*-en erreduplikazioarekin (§ 6.1); cf. beherago (§ 5.4) *hamar*, *zazpi* edo *bortz*-i dagokienez.

aspaldiko jasan baditu, horrek euskararen barnean aspalditik dagoela adieraziko baitigu.

Ezin jakin daiteke latindar maileguak zehatz zenbat diren; eskaintzen diren portzentaiak gutxi gorabeherakoak edo aliritzikoak dira eta, gainera, mailegu guztiek (edo morfema guztiek) ez dute garrantzi bera: Lacombe eta Gavelek “Il n’est pas besoin d’être linguiste pour se rendre compte que le nombre des vocables latins ou romans qui ont pénétré en basque est considérable” esanaz hasten zuten beren “Basque et roman (chronique rétrospective)” delako lana. Berehalakoan “Sans doute, certains de ces emprunts, surtout les plus anciens, ont parfois été suffisamment transformés par le jeu des altérations phonétiques pour que le demi-lettré, et même le lettré non initié ne les reconnaissent pas toujours” gehituaz (1934: 84)²⁷.

Izan ere, ez da beti erraz maileguak ezagutzea: 1741ean Martin Harrietek zuen gogo garbizalea ez zait diskutigarria iruditzen; hara bere Gramatikako euskara-frantsesa hiztegiko ondoko sarrerak:

<i>abondancia, frangancia</i> , abundance	:	abundance, <i>frangancia</i>
<i>abandonatcea, largatcea</i> , abandonner	:	abandonner, <i>largatcea</i>
<i>affligitcea, tristatcea</i> , affliger	:	affliger, <i>axekhabeztatcea</i>
<i>aise, errech</i> , aise	:	aise, <i>errech, gogacara</i>
<i>arbola, çuhatça</i> , arbre, m.	:	arbre, <i>çuhatça</i>
<i>arroganta, furfuiatxua</i> , arrogant	:	arrogant, <i>furfuiatxua</i>
<i>attencionea, artha</i> , attention	:	attention, <i>artha</i>
<i>borondatea</i> , volonté, f.	:	volonté, <i>gogoa</i>
<i>canala, istuna</i> , canal, m.	:	canal, <i>istuna</i>

Nabarmena da *abondancia*, *abandonatcea*, *affligitcea*, *aise*, *arbola*, *arroganta*, *attencionea*, *borondatea*, *canala*, *data*, *digne*, *errefusatcea*, *erlequia*, *erruiñatcea*, *faltatcea*, *flacatcea* eta *frescoa* –beste hainbat eta hainbatekin

²⁷ Eztabaida baino iritzi-trukaketa izan da euskarak omen duen mailegu kopuruari dagokionez: Lafittek, hirutik bi edo mailegutzat zuen euskal lexikoan; Trasken gutxixeago, %50 pasatxo edo euskara modernoan. Alta, ez bata ez besteak ez damaigu datu eta erreferentzia zehatzik beren kalkuluez: ze hiztegi, hitz-zerrenda, alor semantiko edo dena-delakoaren gainean eginak dira eta zenbateko segurantzaz? Badirudi mailegaketa hori ugaria eta zabala izan delarik gehienek ustez, zifra bat edo beste aliritzian eman dutela.

Oinarri sendoagoak dituzte, noski, Adam Zawizewski (2001) eta Michel Etchebarneren (2006) lanek, corpus ezagunak hartu dituztelarik aztergai –nahiz eta urruti garen Irwinek (2011) japonieraren maileguez darabiltzan zehaztasunetarik–; bidenabar, bataren eta bestearen zifrak ezberdinak dira, baina urruti ditugu biak –askozaz zifra apalagoak dituzte, alegia–, Lafitte nahiz Trasken iritzietarik.

batera— “berce hizcuncetari hartuac” zirela harentzat, bere herikideen ahotan ziren arren, segurki; horregatik, fr.-eusk. (askozaz zabalagoan) ez ditu sartzen eta bai ordain jatorragoak ematen: *axekhabeztatcea*, *errech*, *gogacara*, *çuhatça*, *furfuiatxua*, *artha*, *gogoa*, *istuna*, etab. Ez da hor ere mailegurik falta, *frangancia* eta *largatcea*-tik hasiaz; alabaina, bertakotuak dira, hainbat non ez Harrietek ez bestek ezin aurki ziezaieketen aitzakia larriegirik²⁸.

Mitxelenak (1964) eman zituen zenbait adibide maileguak ezagutzeko diren era guztietako zailtasunez. Hitzen etorkiekin segurtasun gradu asko dira: formaz nahiz esanahiz latinetiko jatorria erabat egoki eta segurua dutenetik, beharbadakoak (arazotsuak) direnetara, edota erabat ezezaguna dutenetara bada alderik. Zailenak antzematen fonetikazko (*biao*) edo/eta semantikazko (*deus*) aldaketa handiak pairatu dituztenak ditugu; inoiz gerta daiteke azalpen bi bururatzeari ere: etorki latinetikoa eta euskararen barnekoa. Hori da *begiratu* “mirar, proteger”-ekin gertatua²⁹.

Ez da zeresanik, zenbat eta aldaketa gehiago izan hizkuntza emaileko formari buruz eta –batez ere– zenbat eta egokituago izan hizkuntza hartzailearen egituretara, hainbat eta zailago izango dela hitza mailegua dela ezagutzea:

(...) desde los ejemplos claros en que la admisión de un prototipo latino explica satisfactoriamente un término vasco en forma y sentido hasta aquellos en que una hipótesis de esta suerte aparece extremadamente improbable, se escalona una multitud de casos dudosos. Por consideraciones formales sobre todo, uno se siente p.ej., inclinado a ver préstamos en vizc. *abagadaune* “ocasión” (con el suf. *-une* tratado en § 4.2.), occid. ant. *apukadu* “sucedido”, ronc. *atizatu*, *atxezatu* “comulgado”, *dollor* “ruín, malo”, *elikatu* “abstenido” y “alimentado”, vizc. ant.

²⁸ Orain (cf. Urgell 2009) argudioa pixkat korapilatsuagoa litzateke Harrietek Voltoirez zuen zorra ere kontuan hartu beharko baikenuke. Liburu akabuan agintzen zuen beste lan berri (zorigaitzez galdu) baten egitura azaltzean datozkigun bikoteetan ere bada hemen ukituarekin loturik; bestalde, Larramendi ez dela izan garbizale bakarra eta horrelakorik gure Iparraldeko idazle “liberaletan” ere aurki genezakeela –Ibarren segiziokoek uste edo nahi ez bezala– aspaldi erakutsi nuen (Lakarra 1996b eta horko bibliografia).

²⁹ Edozein euskaldunek uste lezake *begi* + *-ra* + *-tu* dela “traído / llevado al ojo”, *at(e)-ra* “llevar a fuera” den bezalatsu. Alabaina, erromanistek *vigilare*-ren mailegutzat dute. Has-teko, *begi*-rekin batera, bada *begira*, *bigira* “velada, tertulia” eta hori errazago ikusten da *vigilia*-tik datorrela. Z-z ere bada “custodia, protección” legez. Gainera, ekialdean XVI-XVII. mendeoko testuetan arrunta zen *beguirauc*, *beguirauque*, *begira* + Lag transitiboko inperatiboa, *gogoaucue* legez. Badirudi, beraz, *begi*-ren eragina horrelakorik izan bada, bigarren graduakoa izan dela eta etimologia herrikoitzat jo behar dela (cf. *madarikatu*).

Beste adibide baterako cf. eusk. *(t)xeme* eta gazt. *jeme*; Mitxelenak gogoratu bezala (1958: 116), Azkuek lehena zuen bigarrenaren jatorritzat, izan ere eusk. *xe* (< *ze(he)*) + *me* (< *me(he)*) “azal” baitzezakeen; gauzak justu alderantziz dira, Mitxelenak erakutsi legez.

endorea “el alcalde”, *errexal* “árbol” en Landucci, etc., pero no se ha señalado que sepamos su origen preciso de manera solvente (Mitzelena 1964: 33)³⁰.

4. Latinetiko maileguen lekukotasuna euskara zaharraren fonologi³¹

4.1. Martinet

Nous avons vu que la méthode comparative utilisée par le linguiste diachronicien a des règles et des limites très précises, que Meillet a du reste été le premier à formuler de façon systématique. On pourrait maintenant pour conclure se demander s’il existe d’autres moyens que cette méthode comparative pour faire de la linguistique historique. Meillet a pour sa part prétendu que non, en écrivant notamment: “La comparaison est le seul instrument efficace dont dispose le linguiste pour faire l’histoire des langues” [...] “tant qu’une langue est isolée, elle est dénué d’histoire” [...] Et il donnait notamment l’exemple du basque, qui n’est apparenté à aucune autre langue. Mais depuis, sans qu’on ait réussi à faire sortir le basque de son isolement, certains linguistes comme André Martinet et Luiz Michéléna (sic) sont parvenus à reconstituer des stades anciens de cette langue. Ils ont obtenu ce résultat en recourant à ce qu’ils appellent la reconstruction structurale [...], et que, par opposition à la reconstruction comparative, on appelle communément la reconstruction interne (Touratier 1990: 29)³².

Martineten lanaren bigarren moldaketaren (1955) titulua ezin esanguratsuagoa dugu bere helburu eta jokamoldeaz: “Berreraiketa estrukturala: euskararen herskariak”; lana, gainera, aurreko urteetan egindako zelta, erromantzea, ingelesa, eslabiera eta beste hizkuntza eta hizkuntz familia batzutako antzeko zenbait kasuazterketarekin batean, bere hizkuntzalaritza historikoazko usteak biltzen dituen *Aldaketa fonetikoaren ekonomia: saioa fonologia diakronikoaz* zeritzon liburuan biltzen zen. Lehen agerraldian (1950) titulua apalxeagoa bazen ere (“Euskararen

³⁰ Cf. “muchos préstamos estan tan desfigurados hasta lo incognoscible, que sólo podemos considerarlos como tales, porque la forma, la significación y ciertas circunstancias exteriores nos lo muestran como una masa separada del fondo indígena; no podemos determinar, al menos por el momento, las palabras románicas que les han servido de base” (Schuchardt 1906: 473).

Orobat, delako aztarna formal horiek zehaztuaz doaz berreraiketa aitzinatu ahala. Bestalde, filologiaren aitzinamendu berriek berretsi ahal dute lehen irizpide formal hutsen gainean emandako hipotesien zuzentasuna. Hori da, esaterako, goian Mitxelenak aipatu *dollor* edo *abadagune*-rekin gertatua: cf. gal. *trollo* eta *vegada* (Lakarra 2008a).

³¹ Schuchardt eta Gavelez ikus zenbait ohar Lakarra (2008a)-n.

³² Gai klasikoa da, noski, berreraikia itxuraz bateratua dela, barneko dialekto eta kronologia bereizkuntzarik gabea... hots, benetako hizkuntzek berezko dituzten tasun funtsezkoak peitu dituelarik; horren inguruan, eta hainbaten artean, ikus bitez Dyen (1969) eta Petit (2007).

hasierako herskariaren ahostuntzeaz”), ordura arteko euskal hotsei buruzko lanak ezagutuaz nabarmena zen arazorik larrienetako bati aurre egiten ziola³³.

Martinetek hasieratik bertatik aldarrikatu zuen ikuspegi estrukturalista baten beharra: izan ere, beste hizkuntz familia batzutan (IE, semitikoa) aitzinhizkuntzak konparaziotik sortutako sistema bezala ulertu beharrean, familiako baten (sanskrito, arabiera) erdi-kalko legez eraiki izan dira eta euskararen kasuan, haren historia fonetikoari buruzko lanak izan arren, aitzineuskararen kontsonante-sistemaren ideiarik gutxienekoa ere ez zen.

Lehenago Schuchardtek eta gero Mitxelenak legez, mailegaketa etengabearen eta euskalkien arteko kontaktuek euskaraz erregularitatea eta auzi-abartza batzea zuen Martinetek horren arrazoi nagusitzat, markatuaz korrespondentzia bakoitzeko aitzinhizkuntzarako unitate bat ezartzea inongo euskalariri ez zaiola bururatu, hain bailitzateke sinistezina emaitza. Aurrekoek bezala, baina berariaz eta zuzen zuzenean, latinetiko maileguen azterketara jotzen du, hor idoro baititu oinarri seguruenak eta baita fenomeno harrigarrien arrasto garbienak ere: belareak bokal altu baten aurrean txistukari bilakatugabe oraindik gordetzen dituzten barbarik zaharrenetan (*bake, bike*), lehen silaban beste herskaririk denean ahostuna izan ohi da hori; bokalartean, aldiz, ahoskabe gordetzen dira latinez horrela zirenean (*pacem, picem*). Uhlenbecken azalpena (ahoskabe-ahoskabe > ahostun-ahoskabe disimilazio gisa) bai horrelakorik beste hizkuntzetan kausitzen ez delako eta baita ahostuntzeak herskari bakarrarekin ere (*golu < colus*) gertatzen direlako baztertuz, Gavelen hasierako ahoskabe ororen (mailegu nahiz jatorrizko) ahostuntzea aztertzen du.

Dela (a), dela (b) hauta dadin abiapuntua,

(a)	$\begin{matrix} *p- & *p- \\ & *-b- \end{matrix}$
(b)	$\begin{matrix} *p- & *p- \\ *b- & *-b- \end{matrix}$

ez dirudi ahostuntzea azaltzeko gai: (a)-ren kasuan ez da ikusten zergatik bereizkuntza gehieneko kokagunean (hasieran) ez den ahostun / ahoskabe bereizten eta, gainera, gero horko ahoskabea soinu markatuagoa (ahostun) bilakatuko den; bigarren kasuan are gutxiago, kontuan izanik ondoko hizkuntzetan sistema hori betidanik izan delarik, indar handia egingo zukeela oposaldia mantentzearen alde.

Martineten ustez, latinaren eta haren ondoko hizkuntzen eragin bortitzean bide datza ahostuntzearen arrazoiak; abiapuntua ez da, ordea, Gavelen ahostun / ahoskabe oposaketa nagusian oinarritua, oso bestelakoan (bortitz / ahulean)

³³ Hortik urte berean Mitxelenak (1950) euskalariak eskurago izan zezaketen aldizkari batean haren berri ematea, azalduaz eta iruzkinduaz. Martineten lanaren bigarren emanaldiko (1955) berrikuntza gehienak Mitxelenaren artikuluko ohar eta proposamenak bildu nahian eginak dira.

baizik. Latinetiko maileguen tratamenduak erakusten dio, hain zuzen ere, hitz hasieran ahostun / ahoskabe izaera baino esanguratsuago den beste zerbait behar dela eta horretarako, daniera lagun, hitz hasieran hasperendun eta barnean soil ahoskatuko liratekeen herskari bortitzen eta hitz hasieran “goxo” (batere hasperen gabe) eta barnean irristarri liratekeen ahulen sistema proposatzen du:

/P/	*ph-	*-b-
/p/	*b-	*-β-

Horrela gauzak, latinetiko hasiera ahostunak bigarren soinuaren bitartez (fonologikoki ahul) islatuko ziren, izan ere fonetikoki oso gertu baitzuten aitzineuskarakoa, ahoskabe zen arren; ahoskabeak ere, orobat, bigarren horretatik joan ziren³⁴ hurbilago egiten baitzitzaien euskarazko ahoskabe hori bortitzari zegokion alofono hasperenduna baino. Honela, hitz hasieran aitzineuskararen herskari bortitzen saila latinetiko berbarik gabe gelditu zen. Geroago, inguruko hizkuntzen eraginez, sail hori desagertu egin zela suposatzen du Martinetek (eta ahulena ahostun izatera iragan), artean horrelako hotsik zuten jatorrizko morfemetan hasperentasuna areagotuz eta hortik irristari > h (> ø inoiz) bihurtuaz; Gavelek lehenago azalduko “analogiaz” sortuko zen historikoki hitz hasieran ere aurkitzen dugun herskari fonologikoki ahoskabeen saila, inoiz hauetariko zenbait fonetikoki hasperendun egiten zelarik³⁵.

4.2. Mitxelena

Bere ikerketa jardun guztian legez, latinaren eta euskararen arteko harremanenean ere Mitxelenak hizkuntz teoriaren eta filologiaren aldeko aldarrikapena egingo du. Izan ere, inorentzako baldintza ez eze bere lan osoaren ezaugarri argia dugu. Mitxelenarentzat bi etimologia-bide seguru eta, hortaz, bi oinarri sendo, ditugu euskal hizkuntzalaritza historikoan: elemendu konplexuen (konposatu eta eratorrien) analisisia eta mailegatutako altxorraren azterketa. Bi alor horiei lotu zitzairen izan ere bere bizitza osoan, hasiera hasieratik irizpideak landuaz. Esaterako, sistemen arabera hartzaileak informazio gehiago edo gutxiago gorde lezakeela ohartuaz, euskarak bokaletan latinaren bilakabidea gehiegi ezin

³⁴ Gehienetan, inoiz ahoskabe manten zitezkeela suposatzen du.

³⁵ Martineten saioan bada txistukarien azpisailari eta /mb/, /nd/ ustezko fonema konplexuei buruzko proposamenik eta are hitz hasierako herskari bortitzen lekukotasun bilaketarik; alabaina, azken honetan errazago ulertuko denez, funtsean proposamen horiek “estrukturalak” izateaz landa, soilik jatorrizko altxorreko lexikoan azter litezke. Fonema konplexu horien beharra aitzineuskararako zalantzan jartzen du Mitxelenak (1957a).

argi zezakeela baina txistukarietan oso bestelakorik gerta zitekeela aldarrikatu zuen, azken bide honi ere lan berezia eskainiaz (Mitxelena 1965)³⁶.

Latinaren eta euskararen arteko harremanak berariaz³⁷ ukitzen zituen lehen lanak izenburu esanguratsua zuen: “Basque et Roman”, Schuchardten mende erdi lehenagokoaren titulu bera, hain zuzen ere³⁸. Austriarraren lanaz geroztik etimologia berri garrantzitsurik eta aurkikuntza erabatekorik ez dela izan eta, beraz, alorreko arazoak ez direla gehiegi aldatu gaztigatu ondoren, hara haren jokamoldeez zioskuna:

Etant donnés l'autorité indiscutable de Schuchardt ainsi que le rôle prépondérant qu'il a joué dans ces recherches, on ne saurait que regretter certains aspects de son oeuvre qui découlent de ses conceptions théoriques; son penchant pour l'étymologie intuitive, presque impressioniste; son insouciance à l'égard des sons; sa tendance à expliquer *ignotum per ignotius*; le fait qu'il renonce fréquemment à considérer l'histoire des mots en question, qu'il connaissait du reste assez bien la plupart des cas. Tout ceci était bien plus dangereux dans le domaine basque que dans d'autres beaucoup plus étudiés où les critiques de Schuchardt, dont on ne peut souvent nier le bien-fondé, n'ont pas réussi à ébranler les convictions de base ou à introduire des changements profonds dans les méthodes usuelles (Mitxelena 1957b: 108)³⁹.

Berrogeitamarreko hamarkadaren hasieran atera zituen bere lehen lanetarik berreraiketarako irizpideez funtsean, baina horrenbestez baita hizkuntzaren funtzionamendu sinkronikoaz eta bilakabide diakronikoaz ere zuen arta ageri da. 1950ean Martinetek euskarazko herskariet buruzko lana atera bezain laster horren berri eman zuen Euskal Herriko aldizkari batean; hizkuntzalari frantsesaren laburpen egokiaren ondoren haren teoria oinarritzera eta hedatzera zihoazen oharrak gehitu zizkion, hala nola hasierako kokagunearen segurtasun eza, erorketa gehiagoren frogak⁴⁰, herskari ahostunetako bokalarteko ahoskera isurkaria, txistukari ondorengo neutralizazioa eta *h*-aren falta...

³⁶ Germanikoan edo zelta britonikoan (luze eta labur sistemarekin) gauzak justu alderantziz dira Mitxelenak hor erakusten duen bezala.

³⁷ Zeharka aitzineko guztiek eta bereziki “De etimología vasca”-k (Mitxelena 1950); honetan Boudak *ad probandum* egindako asmakaria fonetiko eta morfologikoez landa, maileguak (latinetikoak eta erromantzeetarikoeak gehienbat alderdi honetan) jatorrizkoetarik ez bereizteak konparaketa euskara-kaukasikoari zekarzkie ondorio gaiztoak erakutsi zituen (baita Mitxelena 1957b-ren amaieran ere).

³⁸ Markagarria da egilea hil ondoren argitaratutako lanak (1987) titulutik bertatik duen Schuchardten beste ezagun batekiko erreferentzia ironikoa.

³⁹ Schuchardti buruzko (kontrako) iritzi gehiagotarako bada non ikus '50 eta lehen '60etako lanetan, nahiz eta aurreko oharrean aipatuari ere aski esanguratsua deritzodan.

⁴⁰ Hortzetako (/ t- / baina baita / d- / ere) faltaz latinarekin kontaktuan sartu aurrekotzat du, baina *t-*, *d-* > *l-* edo *ø-* zenbait aipatzen ditu; **e-dun*, **e-thorri* eta bestek lehenago hasieran ere bazela erakutsiko lukeelarik (1951b: 209). Ikus Lakarra (2011a) beste (*adar*, *odol*, *eder*, *etab.*) *d-* > *ø-* batzutarako.

Baina aurreko ahapaldietan aipatutako ezaugarriak hobekien biltzen eta erakusten dituen lana “Las antiguas consonantes vascas” (1957a) bide dugu⁴¹. Saussurek eta Meilletek (ahaideak peitu) euskararen historiaren ezagutzeko aukeraz zuten zalanza edo ezezko sinismen osoari aurre eginaz, barneberreraiketa aurkezten du horretarako lanabes arazotsu baina ezinbestekotzat. Bat dator Martinetekin euskararen historian gertakari asko nahasgarri eta oztopo bilakatzen direla berreraikitzailearentzat: hizkeren banaketa, baina beren arteko kontaktuen etenik gabekoa, inguruko hainbat hizkuntzaren eraginak hainbat garaitan baina hau ere etenik gabekoa, material zahar eta berria gradu diferenteetan hedatua, zokoratua, aldatua, bertakotua... behin baino gehiagotan ez lege fonetiko argiak baizik eta “tendances qui n’ont pas abouti” direlakoak izanik eskuartean. Gauzak honela, berreraiketaren iratxoei eta lilurei aurre egin ziezaikeen giriseilu gisa, artean euskal linguistika historikoan ezezagun zen neutralizazioaz baliatuaz eta Martinetek axaletik baino ezin erabil zezakeen azken bost mendeetako eta are lehenagoko erdiaroko euskararen eta akitanieraren laguntzaz, berreraiketa estrukturala euskal sistema fonologiko osora zuzentzen du⁴², eta latinetiko altxorak izandako bilakabidearen analisi zehatzagoa erabat funtsezko bihurtu zen.

Aitzineuskararen hots inbentarioa eraikitzeke orduan, bustien azpisaila gainerako fonema-hautagaietako bere menpekotasuna dela eta⁴³ albo batera uztea izan zen lehen erabakietarik; gero [m]-rekin ere bide bera jarraituko du bere joko morfologiko urriak, maileguen bitartez hartu duen hedadura, /n/-aren alofonoizaera edota, gehienbat, /b/-ren asimilazio-emaiza dela erakustean; funtsean, hura gabe pasatzea ez da ezezko. Herskariak⁴⁴, lau txistukariak, ozenak eta *h* dira, bada, berreraiketaren hasierako zerrendan kokatuko dituenak⁴⁵.

⁴¹ *Fonética histórica vasca* (1961) bera honen garapen dugu, oso landu eta zabala, hori bai; hemen inon baino nabarmenago egin dakiguke dialektoek eta hizkuntzaren historiak (testuek) emandako lanabesetz zuen ezagutza, ez artean ez ondoren berdindu ez dena.

⁴² Bokalak ez dira berariaz aipatzen, ez baitira –salbuespenak albuespen– gehiegi aldatu harako *Nescato*, *Cison*, *Sembe* edo *Ummesahar*-etik, edota bestela esan, eskura daitezkeen lekukotasunen bitartez ezin iritsi baikaitezke euskara historikoan aurkitzen dugun sistematik urruti den bestetara aitzineuskararako.

⁴³ Mitxelenak zenbait aldiz markatu legez, “menpekotasunak” ez dakar berarekin “berankortasuna”, nahita nahiez; izan ere, euskaraz mila urte eta, beharbada, gehiago baitu. Gorrochateguik orain (2009) akitanierazko zenbait < X- > horren islatzat du. Bustidura fenomenoak zenbat eta urriago –zenbait erromanikoak dira zalantzarik gabe– hainbat eta gardenago behar zuen izan horien balioa, jakina.

⁴⁴ /p/ hor azaldu arren, horren izaera fonologiko ez alofonikoaz zalantza handiak azaltzen ditu Mitxelenak, izan ere *ibar* / *ipar* –“lehenagoko konposatu analisaezinak”; orain zenbaiten analisisian aitzina genezake– eurak ere ez jakin benetako bikote minimoa diren; [f]-az ikus hiru ohar behegaro eta Lakarra (2009d).

⁴⁵ Erdira jaits litezke ozen eta txistukariak AEZ-rako barneko bortitzak CC taldeetarik datoze-la proposatuaz. Dagoeneko aukera hau *FHV*-n plazaratzen da baina ez da garatzen aldeko datu [= berreraiketa, etimologia] faltaz; cf. Lakarra (2011a).

Aurreko lan batean (Mitxelena 1951b) Martineten sistema herskariantzat egoki aurkiturik, kontsonante-inbentarioaren gainerako azpisailak igaro baino lehen, hura sakontzen eta sendotzen du. Izan ere, hiru lekukotasun mota berri aurkezten ditu Martineten oinarritzko [bortitz] / [ahul] oposaketaren alde: a) geminatuen bilakabidea, b) [f]-arena eta c) akitanierazko eta iberikozko <tt> eta <cc> grafiena, hurrenez hurren.

Lehen ezin ahantz hemen latinetik eta erromantzetiko geminatu ahostunen gainean eraikia baita ia erabat⁴⁶: aurretiaz aparteko kasurik egin ez arren, *sabbatu*, *abbas* eta beste zenbaitek ez dute euskaraz ordain ahostuna, ahoskabea baizik (*zapatu*, *apaiz*), [+/-ahostun] oposaketan oinarrituak diren erromantzeetan ez bezala. Mitxelenaren ustez gertakari hau edota [f] lehen /b/-ren eta orain /p/-ren aldaera izatea errazago uler daiteke, ez erromantzeena bezalakoa izanik nagusi, [bortitz]/[ahul] oposaketan oinarritua baizik⁴⁷.

Martineten sistema errazki heda zitekeela txistukarietara lehen ere erakutsia zuen (1951b): izan ere, bi azpisailon neutralizazio-gune garrantzitsu berak dituzte (hitz hasiera eta amaiera) eta zilegi da pentsatzea oposaketa berbera izan daitekeela (ez bi aske) azpisail bietan gertatzen dena, hitzaren bi ertzetan soilik erdiak eta fonema guztiak bokalarlean baino agertzen ez direlarik.

Dardarkarietan ere lana ez da zailegi –lekukotasun grafikoak eta bestelakoak argiak dira–, nahiz eta hitz hasieran ez [r] eta ez [R] ageri; zailtasunak gainerako ozenetan ikusten zituen Mitxelenak eta aurretiaz gaztigatzen du azalpen honek dakarren berrikuntza. Gavelek uste zuenaren aurka (1920), maileguen lekukotasunak argiro azaltzen du euskaraz -n- > (-h- >) -ø- (*area*, *ohore*, *freu*) gertatu dela baina -n- zenbait morfematan, latinez bikoitza zutenetan, hain zuzen, gordetzen direlarik (*Kapanaga*)⁴⁸; mailegatu ez direnetan ere bietarik dugularik –gordetzen zein galtzen direnak– (*ardão*, *gastão*, cf. *ardan-*, *gastan-*, baina *anaia*, *Eneko*), latinarekin kontaktuan izan aurretik (eta gero hainbat mendetan)⁴⁹ euskarak bi *n* mota (bortitza eta ahula) zituela atera behar. Albokoetan, orobat, bazen zehazterik: *aingeru*, *goru*, *gura* / *angelu*, *gastelu*, *balea* eta enparatuek -l-

⁴⁶ Kasurako /-bd-/ edo /-db-/ taldeak ere (*gutizia*, *apal*) berdintsu dira; arabieratik adibiderik ere bada (*atorra*). Argudio hau ahazteak ekarri zuen, besteren artean, Traskek 1985ean [soil]/[geminatu] oposaketara jotzea; 1997an Mitxelenaren sistemara bihurtu zen (hasperenarekikoak landa, bistakoa denez).

⁴⁷ Alabaina, Hualdek (1997) erakutsi bezala, *f* < *wh* izanik, soinu hori askoz beranduagokoa genuke jatorrizko lexikoan.

⁴⁸ *anho* < *annona* izan liteke bi jatorri eta bilakabideak biltzen dituen gutxietariko baliabide nemoteknikoa; gainera, /n/ eta /N/-ekikoez landa orain **h*₃ > *h*₁ eta **hVR* > *VRh* bilakabi-deetarako balio du; ikus lan honen azken atalak.

⁴⁹ Mitxelenak Erdi Aro arte edo; esango nuke IV. menderako aldaketa gertatua zela. Ikus Lakarra (2012a) eta hemen § 7.2.

> -r- baina -ll- > -l- erakusten digute, modu aski sistematikoan⁵⁰; latinaurreko morfemetan ere bi bilakabideak aurkitzen ditugularik (*herio* [*< *elino*], *Araba* / *ilun*, *alaba*) bi unitate onartu behar aitzinsisteman, ez bakarra. Honek guztiak ozenetan /r/ ~ /R/ -rekin batean /n/ ~ /N/, /l/ ~ /L/ ezartzera garamatza (cf. § 7.1).

Hara, bada, kontsonante-sistema osoa:

bortitzak	—	T	Ć	C	K ⁵¹	N	L	R
ahulak	p	t	ś	s	k	n	l	r (gehi h) ⁵²

5. Gainerako mailegaketak

Mailegaketa latino-erromanikoaren azterketatik zer atera dugun eta gehiago ateratzeko zer egin genezakeen ikusi aurretik, komeni da gainerako mailegaketez zerbait esatea, ez maileguen (edo “hitz garbien”) zerrendak lortzeko asmoz, baizik eta gure lanaren helburua buruan, euskararen bilakabidea argitzeko eta berreraiketarako izan lezaketen sendotasuna edo aurkeztu ahuleziak miatzeko. Hurrenez hurren, germanikoaz eta arabikoaz, alde batetik, eta zeltikoaz eta iberikoaz, bestetik mintzatuko naiz.

5.1. Baliteke euskalariok germanikoari arreta aski ez eman izana⁵³: gure kronologian mailegaketa aski berankorrek dira eta nekez lagun zezaketen garairik zaharrenak argitzeko. Alabaina, datuak benetan aberatsak balira euskararen zazpi bat mendetako garai iluna argitzeko lanabes garrantzitsua lirateke: Mitxelenak V-VI. mendeetan jarri zuelarik Euskara Batu Zaharra (cf. orain Lakarra 2012a), hori berreraikitze lekuotasun germanikoa interesgarri bide litzateke ganorazko ezer balitz; ez da horrelakorik, ordea —erromantzez ere batez ere onomastikan

⁵⁰ Gaskoian justu alderantziz, Gorrochateguik (1986b) Echeniqueren liburuaren iruzkinean gogoratu bezala.

⁵¹ Mitxelenak (*p*), *t*, *tz*, *ts*, *k*, *N*, *L*, *R* / *b*, *d*, *z*, *s*, *g*, *n*, *l*, *r* eman arren, nahiago dut honela irudikatu benetako oposaketa fonologikoa zein den hobeki isla dadin.

⁵² Ez ditu, aldiz, onartzen Martinetek proposatutako /mb/ eta /nd/ horien beharrik edo arrastorik ez izanik. Bokalak berariaz ez dira aipatzen (kasu 1957a-ko lan erraldoiaren izenburuari edo *FHV*-ko laburpenari), ez baitira aldatu akitanieratik; cf. *Nescato*, *Cison*, *Sembe*, *Ummesahar*... eta beren ordain modernoak. Beraz, oraingo bostak aski, hiru irekiera-gradu, eta luze-labur bereizkuntzarik gabe. /j/ eta /w/ irristariak berankorrek dira, era ezberdinetan sortuak; lehenak, aditz zaharretako *e*- aurritzian izan ohi du iturburu nagusia; bigarrenak, diptongo zenbaiten hondar zatia ez denean, maileguetan.

⁵³ Cf. Mitxelena (1964), zeinetan kontuan hartzen diren aurreko lanak, P. Naertena (1963) tartean; geroztik ez da aurrerapen handirik Mason (1979) nahiz Kremer (2004)-en hobeak gogoan hartu arren.

aurki liteke eraginen bat, ez hiztegi arruntan—, mailegu hautagaiak gutxi dira eta ahulak: germanikotik hartutakotzat aurkeztutakoen artean *ehun*, *edo* eta *gudu* dira, baina batek ere ez du itxura onegirik (cf. Mitxelena 1964 eta Lakarra prestatzen-a). Izan ere, germanikoaren barnean euskararekin inoiz kontaktuan izan ez diren hizkuntzei dagozkie, eta hau aski litzateke —horien mailegu izaera ez bada ere— germanikotasuna behintzat zalantzan jartzeko ez eze deblauki ukatzeko; hori aski ez izan eta *ehun* eta *edo*-k euskararen barnean aurki lezakete azalpen egokirik: < **e-non* (cf. *e(i)ho*) eta **e-don* ‘take’ (cf. *idoki*) gehi *jo*, *eramo*, *lo*..., hurrenez hurren; azkenik, iberierarekin jatorriaz deman *edo* den *gudu*-k ere ez bide luke desegokiegi erromantzea (ik. Corominas s.u. *acudir*)⁵⁴.

5.2. Arabieratik ere *atorra*, *gutun* eta *alaroza* hapaxa⁵⁵ eta besteren bat ditugu (gehienez ere) zuzenean sartutakoak⁵⁶; gainerakoak, *azenarioa* eta enparatuak, erromantze zahar edo dialektaletik datoz eta, beraz, guretzat erromantzetikoak dira eta ez arabierazkoak. Honek ez du kentzen, jakina, *atorra* < *addorra* bada interesa erabat falta dutenik: kontsonante enfatiko bat latin-erromanikoko geminatuak bezala (*sabbatu* > *zapatu*, *cobdicia* > *gutizia*) garatu badira euskararen bortitz / ahul oposaketaren iraupenaz datu garrantzitsuren bat eman diezaiguke, esaterako.

5.3. Zelta eta euskara

Arkeologiak, historiak eta are onomastikak erakusten digute historikoki “Euskal Herri” deitzen dugun horretan zeltaz mintzo ziren herriak bizi zirela eta, beraz, aukera asko dela haien eta euskara edo hizkera euskaroideekin kontaktuan izatea. Honek guztiak, hipotesi gisa, esku ematen digu galde egiteko latinetik eta erromantzetik hainbat hartu duen euskarak, ez ote zuen berdintsu egingo aurreko hizkuntzetarik, nahiz zelta, nahiz gainerakoetarik. Alabaina, hizkuntzazko ondorioa den partetik, hizkuntzaren aldetik frogatu beharra dago hipotesi hau. Egia da Schuchardt hasi eta beste asko (Tovar, Holmer, etab.) aritu izan direla zeltaren eta euskararen, edo gainerako IE hizkuntzen eta euskararen antzekotasunak

⁵⁴ Hor bertan esaten zaigu “por un caso curioso *acudir* significa hoy ‘atacar a golpes’ en Catamarca, Argentina (...) acercándose al punto de partida semántico de *quater* ‘sacudir’ Véanse ejs. antiguos parecidos en Malkiel, p. 139, pero será una coincidencia”; ez dut uste halabehar hutsa denik: *OEH*-ko *gudu* zahar eta jator gehienak aharien talkak dira. Bestalde, norbait ohartu ez den arren, < KUTUR OISOR > irakurtzen dute iberistek (1970etik edo) aspaldiko < **GUDUA DEISDEA > famatua; polita norbait hori 40 urte beranduago monstuo monstuozeria handiagoz konpontzen ibiltzea: ikus Lakarra (2006a).

⁵⁵ Azken hau ez da segurua: ‘emazte, espos’ esanahia du agerraldi bakar horretan eta gazt. zaharrean horri hurbiletik lotzen zaion ‘dote’ gisa agertzen da. Hitako Arziprestearen pertsonaia baten izena ere bada.

⁵⁶ Ducéré (1883) erabat zaharkitua da, noski; ikus Echenique (1983)-ko pasarte laburra eta erantsi Corriente (1999 eta 2004); interesgarria, orobat, Benarroch (2010)-eko iruzkina.

erakusten; horien ondorio dira erkaketa saio ugari eta hauek hartu ohi ziren garai batez –orain ere zeltomanoen eta erromanista atzeratuagoen–⁵⁷ latinaurreko IE hizkuntzen eragin nabarmentzat. Mitxelenak (1964) eta Gorrochateguik (1987) erakutsi duten bezala, ordea, xehetasunetara joaz geroz, gauzak ez dira horren garbi. Funtsean zera dago, ea nolako baldintzak ezartzen ditugun onartzeko euskal hitz bat latina ez den beste hizkuntza IE batetik datorrela. Mitxelenak honakoak jarri zituen:

- 1) Deribazio ona izan behar du fonetikoki eta semantikoki.
- 2) Nondik norakoak garbi behar du; hots, seguru behar du izan bere IE-tasuna.
- 3) Erkaketa euskal hitzen eta IE hizkuntzetako hitzen artean behar da egin, ez hitz eta erroen edo erro eta erroen artean.
- 4) Arrazoiak behar ditugu izan hitza mendebaleko IE hizkuntza batekoa dela onartzeko, hots, euskaratik noizbait gertu izan den batekoa.
- 5) Frogatu beharko da ezinezkoa dela transmisioa latinaren edo erroman-teen bitartezkoa izatea.

Baldintzok onarturik –eta horiek dira, gutxi gorabehera edozein eremutan erabiliak (cf. Szemerényi 1962)–, oso nekez gaindi lezake langa erkaketa askok eta askok; linguistika diakronikoak, ordea, oinarri sendoak izango baditu, hobe da hertsu izan ezen ez “liberalegi”⁵⁸.

Kontuan izan behar da aintzinako iturriek oso denbora labur baten lekukotasuna ematen digutela: pare bat menderena euskara-zeltibero kontakturako eta zertxobait gehiago galo-euskararentzat, geroztik bi hizkuntza horiek erabat galdu baitziren erromatarkuntzarekin. Euskara bi hizkuntza zelta hauekin kontaktuan izan zen, bada, gutxienez;⁵⁹ bestalde, etorki bereko izaki, gauza asko batera izan arren ezberdintasunak zituzten fonologia, hiztegi eta sintaxian. Euskara eta zeltaren arteko konparaketak duen lehendabiziko arazoa hizkuntzon aintzinako *corpora* eskasak dira. Untermannek eta enparatuek deitu bezala, *Restsprachen*, “hondar-hizkuntzak” dira, eta hizkuntz azterketak –kasurik hoberenean ere– ezin du horietarik sistemen zirriborro bat baizik erdietsi.

⁵⁷ IE-ei *hoge*i ezin etor litekeela *ugeint*-etik azaldu beharrik ez genuke normalean izango; orain, Mitxelenak eta Gorrochateguiren argudiaketaz landa, **h₃ > h₁*, **b- > ø-* eta diptongoaren modernotasuna ere hor ditugu. Orduñak (2011), halere, ib. *orkei*-rekin berdindu eta **oin-ga-bi* atera nahi luke; benetako forma (*hoge*i) ez azaltzeaz landa, azalpen horrek euskal morfologia eta fonetika zaharraren aldetik dituen arazoak bistakoak dira.

⁵⁸ Gogora, Meilletek zioenez, halabeharra dela gure etsai nagusia historia (erkaketa, berre-
raiketa...) egiterakoan.

⁵⁹ Baskoien artean eta batez ere, bardulo eta karistioen artean, euskaldun (huts) ez zirenak ere edozein eratako hizkuntza edo hizkera zeltaren bat erabiltzea da aukera logikoa; ama-hizkuntza iberiera zutenak urruti zirela dirudi (ik. De Hoz 1993, 2009, 2010-11, 2011).

Gauzak honela, ez da beste aterabiderik hizkuntza neozeltikoetara jozteaz baizik. Hauen artean irlandera nahi eta nahiezkoa da, galesa, korniera eta bretoiara baino kontserbatzaileago delarik alde batetik eta bere lehendabiziko testuak aspaldikoak direlako –VII. mendekoak, baina batzuk bi eta are hiru mende lehenagokoak, zaharrenak askorekin familiakoen artean–, bestetik. Euskal hitz bat mailegutzat errazago joko da ahalik eta zabalenik bada zelta hizkuntzen barnean, nahiz goideliko, nahiz britonikoetan, eta areago galoz eta zeltiberoz lekukotasunik balu.

Korrespondentziak aurkitzeko lana zailtzen duen beste arazo bat zeltak literatur-aurreko garaian (Aro aldaketatik Erdi Aroko lehen testuetara bitartean), hain zuzen, pairatu aldaketa ugariena da (ikus § 2.2). Hauen artean garrantzitsuenak lenizioa, hasierako aldaketak, azken silaba galtzea, erdikoaren sinkopa, bokal infekzioa, etab., dira, guztien artean hizkuntzari beste aire bat ere eman ziotelarik.

Tovarrek, esaterako, ez zuen hau kontuan izan eusk. *hoge* eta gal. *ugeint*, bret. *ugent* parekatzean. Baina forma hauek **wi-kmti* dute iturburu zelta zaharrean. Soilik gero, hizkuntza zeltak dagoeneko euskararen auzo ez zirenean, gertatu ziren **m* > *am* bokalizazioa, lenizioa **vikanti* > **viganti*, i-umlaut **viganti* > **vigenti*, azken bokala galdu eta *wi* > *u*. Beraz, aipatutako euskal hitzak behar ez zuenaren antza du, eta Tovarren hipotesia ezin mantentzeko; beste gauza bat da, antropologo zenbaitek uste duenez, 20ko zenbaketa zelten eragina izatea; hitza behintzat ez⁶⁰.

Zeltaren aipatu aldaketak mailegutzat hartu formak ez zelta berrienarekin baizik zaharrenarekin konparatzera garamatza; hain zuzen ere, latinetik askozaz hurbilago den zeltarekin. Hortaz, askotan ia ezinezko da formaren aldetik mailegu batzuk latinetiko ala zeltatik etorkia duten erabakitzen: *zarika* ‘zuhaitza’ nahiz **salik* zeltatik nahiz *salice(m)* latinetik etor daiteke. Bere dokumentazio urria, euskalki hedadura txikia eta toponimiako erabilera eskasa kontuan Gorrochateguik (1987) latin-erromantzetiko mailegu berri-xamartzat du.

Historikoki zeltek eta euskaldunek –edo zelta hizkuntzek eta euskarak– izan harremanez gutxi badakigu, are gutxiago historiaurrerako: ez dakigu euskaldunak eta zelta hizkuntzen hiztunak noizdanik ziren kontaktuan, ez eta nolakoa zen K.a.-ko VI. mendeko zelta, ez eta geroko dialekto-zatiketa hasia zen zeltan ala “zelta batutik” hurbil zen, edota harreman iraunkorrik izan zen zelta aurreko beste IE herriekin. Hau guztia funtsezkoa da Hegoaldeko nahiz Iparraldeko aintzinako hizkuntz egoerarako. Baina batera zein bestera, gutxieneko oinarriarekin erkaketak

⁶⁰ Bide batez, eusk. *hoge* ere ez da betidanikoa Tovar eta honetaz arduratu ez arren; ikus hiru ohar gorago. Aski da pentsatzea **h₃* > *h₁* jazo dela (eta, beraz, lehenago **-n-* > **-h-*) konturatzeko hitza zeltak inguruotarik desagertu eta askozaz beranduago heldu zela forma horretara.

burutzeko segurantzako aukera gutxi da oso Mitxelena eta Gorrochateguiaren miaketaren ondotik eta urri horiek beheraka doaz (cf. § 6.1 *adar-ez*).

Euskarak zelta aurreko IE herriein eta hizkuntzekin kontaktuak izan zitzaizkenez gero, “IE zehaztugabetzat” jo izan dira –lehendabizi zeltatzat jo ondoren– goian aipatu Mitxelenaren baldintzak (eta are ahulagoak) betetzen ez zituzten hitzak.

Adibide garbiena *hartz* da. Pedersen eta Tovarrek irl. *art*, galo *Artio* “hartz jainko emea” eta gal. *arth*-ekin konparatu zuten. Meyer-Lübke eta Holmerrek *t*-ren asibilazioari ez zioten oinarriarik aurkitu eta ez zekiten nondik izan zezakeen *h*- edota *-o* gal. Baina antzekotasuna polita zenez eta euskaraz hitz zaharra delarik (akit. *Harsi*, genit.), pentsatu zen (asmatu, hobe) **r* bokalikoa zeltak bezala (**r* > *ar*) aldatzen zuen eta, latinak bezala –baina zeltikoak ez zuen horrela egiten– *t*-ren ordeztutikari bat (*ursus*) zuen IE hizkuntza batetik etorriko zela. Gorrochateguik markatzen duenez, ordea, hipotesi polit eta grinatsu horrek arazo larri bat baino ez du: ez da horrelako hizkuntzaren arrastorik Mendebal aldean. Bestalde, erants genezake *hartz*-ek ez duela bere egitura mailegutzat hartzera behartzen gaituen ezer: cf. *hor-tz*, batetik, eta *haR-i* (cf. *arre* ‘harriaren kolorea’), bestetik⁶¹.

Orain arteko zailtasunak zeltaren aldetik ziren. Goazen orain euskararenak ikustera. Ez dugu aintzinako testurik, soilik izen propioen korpus bat zeinetarik batzuk euskararen bitartez ongi azal daitezkeen. Material horretatik atera dezakegun gehiena fonologia, lexiko eta morfologiari (konposaketari eta deribazioari) dagokio. Oro har, sistema ezagutzen dugu eta baita egon diren aldaketarik nagusienak ere: *-n-* > *ø*, *-l-* > *-r-*, *-nn-* > *-n-*, *-ll-* > *-l-*, etab. Silabarik aldakorrenak euskaraz hasierakoak dira (cf. *FHV*, Lakarra 2009c) eta erdialdeko herskariak mendebaleko erromantzeetakoak baino iraunkorrago dira. Zelta, alde honetatik, erromantzeekin doa: lat. *catena* > eusk. *gatea*, gazt. *cadena*; galo *catu-* ‘gudu’ > gal. *cath*. Bi aldeetako arazoen aurkezpen orokor honen ondoren, dokumentazio abantaila zeltaren alde dago, zalantzarik gabe; areago, berari falta zaionean bere familiako hizkuntzetakoak eta IE berreraikiak laguntzen baitute.

Mitxelenak (1964) edozein hizkuntzatan oinarritzko lexikoaren eta hitz ibiltarien arteko bereizkuntza dela onartzen du, inoiz gorabeherak izan arren. Bada, harrigarri begitantzen zaio zeinen latinaurreko hitz IE gutxi aurkitzen den euskal lexikoan. Horrelakorik ikusten ez duenez, eskasia horren arrazoiren bat bilatu beharra otu zitzaion. Arrazoiketa honelatsu litzateke: erakunde, gai eta moda aldakorrei zegozkien hitzok sartu bide ziren euskaraz baina, beranduago, etengabeko latin-erromantzearen eraginak ezabatu zituen, inoiz oso antzekoak ezarriaz, gainera. Egungo egunean zeltatikoen eta latinetikoen artean hori ezin frogatu ahal bada ere, bai, aldiz, latinetikoen eta erromantzetikoen artean: *dekuma*,

⁶¹ Gogora bedi hizkuntza IE zenbaitetan, tabuagatik edo, ‘hartz’ kolorearen bidez (cf. Mallory & Adams 2006: 333) izendatu dela (baita bere zaletasun ezagunagatik ere: “ezti-jale”).

bak(h)atu, *zeinhare* > *dexema*, *pagatu*, *seinale*⁶². Hots, erromantzetik jasoak ez zuen soilik euskal jatorriko ondarea lurperatu baina baita lehenago bertakotutako latinetikoa ere; gertakari hau kontuan izan behar da euskararen lekukotasunaz mintzatzerakoan.

5.4. Mailegu iberikoez

Mailegu iberikoez, halaber, ez da oraintsu arte gauza handirik esan: izan ere, ulertzen ez dugun eta –beharbada (cf. de Hoz 1993, 2009, 2010-2011, 2011)– euskararekin kontaktuan ere izan ez den hizkuntza batetik (?) maileguen azterketak ez dakit zer eman lezakeen, buruhausteez eta oztopoez landa. Arestian (Orduña 2005, Ferrer 2009) euskarazko ia oinarritzko zenbaki guztiak iberieratik mailegatutzat jo izan dira:

Balioa	Iberiera	Euskara
½	erdi	erdi
1	ban	bat
2	bi(n)	bi
3	iru	(h)iru(r)
4	lau(r)	lau(r)
5	bors(te)	bortz / bost
6	sei	sei
7	sisbi	zazpi
8	sorse	zortzi
10	(a)baí	(h)amar
20	orkei	(h)ogei

Numeralak iberikoz eta euskaraz (Ferrer 2009: 470).

Beste toki batzuetan xehetasun gehixeagorekin aritu naiz (cf. Lakarra 2010a) eta ez da hemen horretaz luzatu beharrik; esan dezadan, bakarrik, goian (§ 3) Campbellengandik mailegaketaren zuzenbideaz ikasi dugunean oinarrituaz, ezen baldin eta onartzen badugu *zazpi* < **bortzaz-bi*,⁶³ *bortz* < **bor-tz* (cf. *hortz* <

⁶² Schuchardtek pozarren gogoratzen zuen garai diferenteetako formak eta dialektoen arteko amalgama zela kausa “esto es lo que hace que tengamos que renunciar en gran parte a determinar bajo la segura dirección de las “leyes fonéticas” el tiempo y lugar de la entrada de palabras extranjeras” (1906: 473).

⁶³ **bortz-zaz-bi* zatika litekeela deritzot, “X-ekin Y” (cf. Lakarra 1983 eta 2008b) egituraren beste adibide batekin, pila bat hizkuntzatan legez; ikus bigarren lanean horren hainbat ondorio.

hor-tz, etab.) edo *hamar* < *han-bor* (cf. *hazkar* < *hazkor*, etab.), orduan (aitzin)-euskarak nekez har zitzakeela hitzok iberikotik zein beste edozein hizkuntzatatik. Hori bera gertatzen bide da *hirur*-ekin (< **her-bur*, cf. *heren* < *her-en*, *herts* < **her-tz-(i)te*), *laur*-ekin (< **la-bur*), lehen aipatu *hoge*i-rekin (< **bor-gen-i*) eta gehiagorekin: maileguak izanik, ezin izan zezaketen euskal etimologia onik ez erdipurdikorik.

Bestalde, iberikoaz dakigun guztiak (ia ezer ez, alegia) ez gaitzake grina hutsaren gainean eratua den etimologia iberiarra hobestera eramanez. Are guxtiago mailegu hipotesi horiek euskal morfologia eta fonetikaz dakigunaren aurka doazenean: *hoge*i-k eta *sei*-k duten /ei/ diptongoa nekez izan liteke zaharra euskaraz bigarrenaren kasuan aldaerarik gabe eta lehendabizikoan asimilazio arrunt batekin (cf. *orhoitu* < *orheitu*, etab.). Hots, zergatik ez dugu **si* (eta **hogi*) ezta gainerako aldaerarik ere? Izan litekeen arrazoi bakarra zera iruditzen zait: historikoki gordetako gainerako *-ei-* diptongodun hitzetan bezala, forma modernoak direlako, bai despalatalizazioak (*leize* < **lexe* < *leze*), bai hiato modernoetarik datozenak (*neike* < *nengike*), bai *ai* > *ei* (*gaizto* > *gexto*) baten ondorio direlako, edota are mailegu berantiar xamarrek: *deitu*, *esleitu*, etab. Beraz, **seCi*, **-geCi* behar dira berreraiki zenbaki horiek euskal gramatika historikoaren arabera, iberista zenbaitu gustatu ala ez gustatu⁶⁴.

Hiri-rekin hamarkada eta mende osoetan gertatuak ere ez bide du inor iberikotik mailegatuaren azterketan zaletzera eramango: euskal hiztegieta –are Mitxelenaren *Apellidos*-en (¡!) bi (*h*)*iri* eman ohi dira: *hiri* ‘toki itxia, hesitua’ ~ (*h*)*iri* ‘gertu espazioan eta [gero] denboran’⁶⁵, bata bestearen ondoan eta elkarren arteko inongo erlaziorik ez balitz bezala, *baso*₁ ‘oihan’ eta *baso*₂ ‘edallontzia’-rekin legez edo. Alabaina, beren artean baden edo ez den erlaziorik aztertzeke oztopo gaingintuezin izan da aurreiritzi batean oinarritutako ustekizuna: Humboldtentzat eta ondokoentzat euskarazko *uri/iri*-k ib. ILLI zuen kide, kognatua orain esango genukeen legez; gero, hizkuntzon arteko erlazio genetikoa modan ez denetik (1950etik edo), –eta “antzak” hor dirauelarik– euskarak iberikotik hartutako mailegua omen genuke. Bazen arazo bat barneko kontsonantea: euskarazko *-r-* ez dagokio *-ll-* edo *-L-* bati; horrenbestez **ili* bat suposatu beharra zegoen eta horrela egin izan da (cf. De Hoz 2010-11). Ez da aski, ordea, ez baita arrazoi partikularrik pentsatzeko euskaraz euskalki zahar guztietan aurkitzen dugun

⁶⁴ Dagoeneko Mitxelenak esana utzi zuen *adin* ezin erator litekeela ib. *ADIN*-etik (ezta, alderantziz ere, bada ez bada); < **har-din*; cf. *-ago* < **har-go(n)*, *-aga* < **har-ga*, etab. (ikus Lakarra 2012b). Gure aldetik gehi genezake ib. AGIR- edozer gauza izan litekeela, salbu eta eusk. *Agirre*, *agiri*, *agertu*, etab. familiaren jatorri: → *aho* + *hiri* > **a.iri* > *agiri*, etab; horko *-g-*, beraz, ez da *begar*, *negu*, *lagun* eta hainbat enparaturena baino zaharrago.

⁶⁵ Hau B-n ere *-iri* da (ez *-uri*) konposizioan. Horko toponimoek ere arreta gehiago merezi zuten; jakina: *agiri*, ez **aguri*, etab.

h- hori “erantsia” dugunik⁶⁶, berankorra, mailegua hori gabe hartu eta halabeharrez aitzineuskaraz edo beranduago hor gehitua. Iberierak, beraz, ez du *huri/hiri* bikotea azaltzen eta beste norabait jo beharko argi bila: latinetik erromantzera eman den bilakabide ezaguna buruan izanik (*circu, circa > cerca(do)* [izena], *cerca* [aditzlaguna] eta *etse/etxe, hesi, hertze*, etab. gainerakoentzat –gehi goiko *her-en, hirur-*entzat– behar dugun **her* erroa gehi *-i* amaiera partizipiokoa aski dira bi *hiri-*ak azaltzeko (izena zein aditzlaguna) eta bien jatorri eta erlazioa ez halabeharrean utziaz, baizik eta euskal filologia eta barneberreraiketaren bitartez arakatuaz (cf. Lakarra 2010a)⁶⁷.

6. Erro teoria eta mailegaketa

6.1. Erro teoria eta etimologia formala

6. “Unidentified”. The final heading in the list of root origins is in fact a non-statement of origin. Here are included all roots for which a satisfactory etymology on both phonetic and semantic grounds cannot be established. This encompasses both roots whose form is undeniably Semitic-looking (...) and those whose structure is contrary to Semitic norms (...). Of course, because of the phonetic developments involved, the external form of a root in Amharic is not necessarily a reliable indication of a Semitic origin or otherwise. Confirmation on the basis of semantic correlation with a satisfactory formal cognate in another language is required before any statement of origin can be safely made (Appleyard 1979: 80).

Ejemplo típico de las actividades de reconstrucción proseguidas en el escalón más alto, conocido o restituído, que aspiran no sólo a penetrar en el pasado, sino también a comprender mejor las relaciones que entrelazaban los términos –cuyo número es siempre indeterminado en las protolenguas– son las investigaciones acerca de la “forma canónica” de morfemas o raíces; su configuración muestra curiosas limitaciones en semítico común que delatan las afinidades de los fonemas en el sistema, o en indoeuropeo, etc. De aquí teorías generales, como la de Benveniste sobre la constitución de las raíces indoeuropeas (Mitxelena 1963: 40).

Bada dagoeneko urte mordoxka (cf. Lakarra 1995hh) aitzineuskara zaharraren berreraiketarako teoria berri bat aurkeztu nuela, garai hartan erro lexikoen forma kanonikoa monosilabikoa zela (CVC) aldarrikatuaz; izan ere, CVC formulak azal litzake orduan markatu erroaren ondoko hertsapenak: (a)

⁶⁶ Bakoitzean nabarmenagoa da /h/ eta herskari hasperendunak argi berezi beharra; bigarren kasuan hasperena beti da “erantsia” edo berankorra baina /h/-arenean ia %100ean horrek lehenagoko /h/ bat edo beste C-ren bat jarraitzen du; ikus § 7.3 eta hor aipatu bibliografia.

⁶⁷ Orduñak (2011) nahiago du orain eusko-iberismo “gogorrera” itzuli, aitortuaz –hori bai– uestzeko antzekotasunak ezin azal litezkeela mailegaketaren bidez; erantzuna Lakarra (2012f) eta (prestatzen-d)-n.

**V, (b) **V-, (c) **TVTV. Forma kanonikoaren gainean lan egiten dugularik (cf. Mitxelena 1963) ezinbestean bi azalpen jaso ohi dituzte –bata *ala* bestea, alegia– delako egitura kanoniko horretatik kanpora gelditzen diren morfemek⁶⁸: a) sinkronikoki fosilduak izan arren aitzinhizkuntzaren garai zaharrago batean eratorri-konposatuak genituzke, edo b) maileguak, oraindik hizkuntza hartzailearen egituretara (erabat) egokitu gabeak.

1995etik bertatik argi geratu zen lehen ezagutu gabeko erroen aldean (**bur*, **ger*, **han*, **dots...*), lehendik ezagutu erroen sareetako adibide gehiagoren (*sabel* eta *gibel*, lehengo *orbel*, *ubel*, *arbel* eta gainerakoan aldean) edo afijo eta fenomeno morfologiko zaharrekin batera, *–*la-*, **gi-*, **sa-* aurrizkiak, *labar*, *labur*, *gibel*, *gizen* edo *sabel*, *samur-en-* eta *zezen*, *odol*, *ahal*, *gogor*, *akats* erreduplikazioak, maileguak ere aterako zirela gure analisiaren emaitza legez. Izan ere, zer izan zitezkeen *legen*, *lizun*, *nigar*, *bazter* edo *bildur* CV-CVC (aurrizki-erro) edo (C)VC-CVC (erro higatu-erro eta erro-erro) azaldu ezin zirelarik? Alegia, ezin jo genezake ez **le-*, **li-*, **ni-* aurrizkietara ez **gen*, **zun*, **gar* erroetara lehen hiruretan, ez **baz*, **der*, **bil*, **dur* erroetara bigarrenetan, nahiz eta, agian, aitzineuskararen erro horiek guztiak noizbait edo nonbait izan (baina ez hitz horietan eta hor behar luketen funtzio edo esanahiarekin).

Kontrakorik ere gertatzen da inoiz, ordea: *adar* mailegu zeltikotzat jo ohi zen (ikus Mitxelena 1964, adib.), nahiz eta horretarako zailtasun filologiko larriak izan (cf. de Bernardo 2006) ustezko jatorriaren aldetik –euskaraz **k(a)* atzizki “ezabatutzat” hartzea ere guztiz bakan eta arbitrarioa da– eta goian ikusi ditugun Mitxelenaren beraren eta Gorrochateguiaren iragazkiak benetan ez gaintitu. Orain, hori aski eta sobera ez balitz, *adar* **dVC* eta **nVC* erro-ereduen erreduplikazioaren adibide berri bat dugu (euskal gramatika zaharrean hitz eraketa zaharrenaren adibide) eta, gainera, *lar(ri)* : *jarri* : *indar* hitz familian *–*dats* : *lats* : *jatsi* : *aldats* eta besteren gisan (cf. Lakarra 2011a)–; nekez jo genezake, bada, *adar* mailegutzat. Orobat, **ardano* trisilaboa *arándano*-tik azaltzea otu zitzaidan noizbait, deribazio fonologikoa ez baitzen zailegi (asimilazioa [**arandano* > **arard-*] eta haplologia [**ararC-* > **arC-*]), esanahia guztiz egoki izan ez arren, **ardano*-k ‘alkoholdun edari oro’ edo bailitzan. Orain ez dugu inongo mailegu ez desegokitasun semantikoren beharrik: **ardano* < **e-da-ra-dan-o* [*edan* aditzaren eratorria] dugu, *arrain* < **e-da-ra-don-i* edo *arrats* < **e-da-ra-dats-en* pare-parean (ikus Lakarra 2008c).

⁶⁸ Tamaina handiagokoek, alegia; lexikoaren forma kanonikotik behera (erorketa edo higaduraren bat pairatu dutenez landa) zenbait partikula edo morfema gramatikal eta onomatopeia gera liteke; halere, FK horren gaineko egiturak ere har ditzakete bi azken sail horien kideek: *al*, *gu*, *ez*, *ah!*, *zein*, *edo*, *blaust!*, *krask!*, etab.

Ondoko urteetan (cf. Lakarra 2004, 2008a, etab.) erro sailak aztertuz joan naiz, Uhlenbecken aspaldiko kontseilua (1942 [1947]) jarraiki⁶⁹. Horretarako eredu bakoitzean aurkitutako hitzak⁷⁰ ondoko bost sailetan kokatu ohi ditut: (1) mailegu ezagunak; (2) aldaerak; (3) eratorri-konposatuak; (4) fonosinbolismoak eta (5) etimologia ezezagunekoak. Hara TVTV erro-eredua adibide gisa:

TVTV

- (1) *baba, bago, baka, bake, bapo, bapho, bega, beta, bibe, bide, biku, bobo, boga, bota, bote, boti, deto, dupa, gabi, gako, gata, gathe, gatu, gito, gubi, gudu, kaba, kabi, kabo, kako, kapa, kapu, kida, kita, kito, koba, kopa, kota, kupa, pabo, paga, pagu, papo, papu, patu, peka, pheka(tu), pike, piko, piku, pipa, pita, popa, poto, puda, puja, puta, taka, tako, tapa, teka, teku, titi, toke, topa* (65)
- (2) *baga, bede, bida, bigi, bobu, dibo, digo, duba, duga, dopa, gaba, gabe, gutu, kabu, kape, kate, katu, kida, kitu, kopu, kuba, pago, pake, pika, pita, puga, puka, pulo/u, tati, teka, tope, topo, thupe, ttapa* (34)
- (3) *baku, dago (etc.), dina, duka, bage, bako, bape, batu, begi, beko, bete, beti, biga, biki, biko, gogo, guti, pape, peka, peko, tegi, toka, tuka, tupa* (24)
- (4) *babi, babo, baka, bebe, bibi, bobo, buba, butu, dapa, dithi, goga, kada, kaka, kika, koko, kuku, papa, pipi, pupu, patta, pito, popa, pupa, pupu, purra, tada, tago, takataka, tapa-tapa, tata, tato, tipi, toto, tupa, tutu* (35)
- (5) *beta, bigo, boga, botu, dako, doba, gate, gokho, gupi, keta, keto, kide, kobe, koka, kote, kubi, kuka, kupi, kũto, padu, papa, peto, pota, teka, tepũ, tika, tipo, tobo, toki, toto, tuku, tuta, tutu* (34).

⁶⁹ (...) je crois déjà rendre service aux études basque[s] en tâchant de ramener les nombreux radicaux nominaux et les racines verbales de la langue basque restés sans analyse à quelques types déterminés, qui doivent, selon toute probabilité, être considérées comme pyrénéens occidentaux anciens. (...) Si pareil élément lexical correspond à un type ancien, il devra passer pour pyrénéen occidental ancien, sauf la possibilité qu'un élément non originellement pyrénéen occidental ancien d'importation ultérieure –mot ou racine– se soit rallié secondairement à un type pyrénéen occidental ancien. Mais cette question est sans importance pour mes investigations, puisque *je recherche non pas des étymologies, mais des types*. Des éléments d'origine étrangère secondairement assimilés à d'anciens types indigènes contribuent, eux aussi à affirmer l'existence de types anciens (Uhlenbeck 1942: 567);

Baita ondokoa ere:

Je me figure les types de mots et de racines que j'ai pu relever dans la langue basque des quatre dernières siècles comme la continuation de types de mots et de racines pyrénéens occidentaux anciens. *Il va de soi que je vise des types et non pas quelque mot ou quelque racine en particulier*. Parmi les mots et les racines que j'ai cités, il y a sans doute un certain nombre d'éléments importés au cours des âges par des peuples étrangers, qui se sont adaptés à des types indigènes (Uhlenbeck 1942: 580); etzanak neureak dira [JAL].

⁷⁰ Ez guztiak, ordea: diptongodunak kanpo utzi izan ditut, horiek –kalkuluak erabat zailtzeaz landa– aitzineuskararen ondoko berrikuntzat hartu bainituen. Esan behar dut ondoko lanen emaitzak erabaki honen alde ageri direla; cf. Lakarra (2012a, 2012c-f).

Aitzineuskararen lexikoa eta honen bitartez haren morfologia eta fonologia zirelarik ikergai nagusi, “(5)” sailari eta horren kideei eman izan zaie arreta berezia eta horregatik proposatu dira, esaterako, iragazki bereziak –fonotaktikoak eta geografikoak– beren ezagutza zehatzagorako. Mailegaketaren azterketa atzeratuago doa, jakina, –nahiz aurrekoaren emaitzetarik zurrutadaka edan– baina aurrerapen nabarmenak izan dira eta izan bide litezke engoitik, arretaz eta sistematikoki azter bagenitza. Hasteko, duela urte batzuk beteago ziren etimologia ezezaguneko “(5)” sailak arinduz joan dira erro eredu gehienetan eta hainbat kide galdu dituzte eredu bisilabo guztiek, batzuetan (gutxienetan) “(4)” fonosinbolismoetara, bestetan (gehixeagotan) “(3)” eratorri-konposatuetan eta usu –are gehienetan– “(1)” maileguetara.

Har bedi ondoko taula⁷¹:

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2	M	%-1	%-2
CVC	325	152	46,76	70	46,05	21,53	48	31,18	14,76	12	07,89	03,69
uCVC:	425	54	12,70	05	09,25	01,17	01	01,85	00,23	05	09,25	01,17
oCVC:	425	47	11,05	07	14,59	01,64	05	10,63	01,17	06	12,76	01,41
hVCV:	425	54	12,47	18	33,33	04,23	02	03,70	00,47	07	12,96	01,64
aCVC	425	110	25,88	33	30,00	07,76	15	13,63	03,52	16	14,54	03,76
uCV:	85	44	51,75	05	11,36	05,83	02	04,54	02,35	07	15,90	08,23
uCCV	215	45	20,93	06	13,33	02,78	00	00,00	00,00	08	17,77	03,72
aCCV	215	82	38,13	12	14,64	05,58	04	04,87	01,85	15	18,30	06,97
aCV:	85	64	75,29	04	06,66	04,70	02	03,12	02,35	14	21,87	16,46
oCV:	85	29	34,11	07	24,13	08,23	06	20,68	07,05	07	24,13	08,23
oCCV:	215	39	18,13	08	20,53	03,72	06	15,37	02,79	10	25,63	04,65
RVRV:	200	41	20,50	02	04,87	01,00	00	00,00	00,00	14	34,14	07,00
SVTV:	300	75	25,00	13	17,33	04,33	04	05,33	01,33	28	37,33	09,33

⁷¹ Legenda: EE = erro ereduak; IZ = izan zitezkeen formak; L = lekukotutako formak; EZ = Etimologia ezezagunekoak; %-1 = x : L; %-2 = x : IZ; H = EZ iragazki fonetikoak eta geografikoak ezarri ondoren; M = Maileguak.

Datuak 2004koak edo dira eta orain, testuan esan bezala, ikerketa etimologikoaren eta berreraiketa-jardunaren arabera berritzerakoan zenbait aldaketa egin behar litzateke eredu bisilabiko gehienetan: “hondar” gutxiago (inoiz zifra absolutuetan 0-ra iritsiaz) eta mailegu gehiago izango litzateke, horien berankortasuna eta CVC-rekiko urruntasuna berretsiaz; erabat alderantziz CVC ereduak, erro berreraikiak erabiliaz, %50 edo gehituko litzateke etimologia ezezagunen eta hondarren kopurua (cf. Lakarra 2008a, 2011a eta prestatzen-c).

EE	IZ	L	%	EZ	%-1	%-2	H	%-1	%-2	M	%-1	%-2
SVRV:	200	71	35,50	05	07,04	02,50	01	01,40	00,50	27	38,02	13,50
TVTV	900	190	21,11	16	08,42	01,77	00	00,00	00,00	80	42,10	08,88
CVmV:	325	49	15,07	09	18,35	02,76	00	00,00	00,00	22	44,88	06,77
TVRV:	600	195	32,50	25	13,07	04,33	04	02,05	00,66	95	48,71	15,83
TVSV:	600	95	15,85	14	14,73	02,33	03	03,15	00,50	47	49,47	07,83
mVCV:	425	94	22,10	12	12,76	02,82	00	00,00	00,00	47	50,00	11,05
RVTV:	300	69	23,00	09	13,04	03,00	01	01,44	00,03	36	52,17	12,00
RVSv:	200	24	12,00	00	00,00	00,00	00	00,00	00,00	15	62,50	07,50

Mailegu portzentairik handienak dituztenek, %50etik igaro eta %62,50era iritsiaz, ez dute, aldiz, %1eko hondarrik⁷², eta usu %0,00 edo hortik hurbil dira; susma genezake, bada, arrazoi gutxi dela erro-ereduok zahartzat –ez, inolaz ere, aitzineuskarakotzat, baina zahartzat, bederen– jo ditzakegula pentsatzeko: erro eredu bisilabiko asko eta bokalez amaituak partikularzki, berankorrek dira euskaraz eta seguruena mailegaketaren bitartez sartuak edo horien bitartez garatuak.

Honako honek aztarna jakingarriak damaizkigu eredu horietako “(5)” sailetako hainbat hitz etimologiagabekorentzat: ikusi behar genuke –lehen baino arrazoi eta segurtasun handiagoz– ez ote gauden orain arte ezagutu gabeko maileguen aurrean. Hori izan da *eska-* (< *uescor*) eta *olde* (< *uoluntate*), *itsu* ([**tseku*] < *caecu*) eta *alu* (< *aluu*) mailegu izan zitezkeela susmatzeko eta horien jatorriak bilatzeko akuilu. Orobat, IVCVC erro eredueta *la-* aurrizki ezaguna (*labar*, *labur*, *lagun*...) ez dutenak, *lotin* (Mitxelenaren arabera **lohi-din*) edo *lehen* (< **den-en*) alde batera utziaz, *leher* (< *tremere*), *lehor* (< *termo*), *lizun* (< *densu*), *legen* (< *dengue*) mailegu gisa azaltzea bide da hurbilketa arrazoizkoena.

Erro ereduena laguntza zuzenetik atereaz, badira bestelako (ir)regularutasun interesgarriak: *atzamar*, esaterako, azalpen eske dugu, ezin baita *hatz* + *hamar* izan –zenbakia izenaren eskubitara– herri etimologiak hori badio ere. Orobat, ez dut uste *beltzaran* ere ‘kolore’ + ‘fruitua’ izan litekeenik, antzeko arrazoi bat dela bitarte, besteak beste: lehendabizikoan *atzapar* aldaerak eta /r/-ren metatesiak eman ahal digu laguntzarik (**hatz-zarpa* > *atzapar*); bigarrenen ez dakit zorakeria ote den **musulman* batetik abiatzea (gogora *morena* < *moro*), asimilazio-disimilazio batzuk lagun.

⁷² Gogora etimologiarik gabeko erroak direla AE-ko izateko aukeraren bat duten bakarrak; EBZeko zehaztu beharko, dialekto modernoetan oinarritutako iragazkiak ezin baitu beste-rik erdietsi (cf. Lakarra 2012a).

Ezain-en V- eta diptongoa ere zenbait berrikuntzaren aztarna dira⁷³: *uesanu*-tik abiatuaz iritsi ahal dugu *-anu* > *-ain* ezagunarekin eta *w-* > *ø-* zahar baina ezezagunagoarekin; cf. *otu* < *uotu*, *ater* < *uerte(re)* –honek goiko /r/-ren metatesia ere badu–, *uoster* > *esker*, etab. *Orein*-en arazoak antzekoak dira baina bilakabide gehiago kateatu dira berton, guztiak ere aski usuko izan arren: **ceruu* + *(h)oin* > **eruoin* > **eroïn* > *orein*; hots, *k-* erorketa, *-b-* > *ø* / *-u* eta *e - oi* > *o - ei* metatesia (cf. *hedoi* > *hodei*, *Erroldae* > *erraldoi*, etab).

6.2. Forma kanonikoaren aldaketa eta mailegu berriak

... los préstamos, de linaje latino-románico en último término en la inmensa mayoría de los casos; queda mucho por aclarar, pero es más bien cuestión de detalle y de precisión. En otras palabras, no iremos mucho más lejos del estado actual, salvo por lo que respecta al rigor y a algún que otro descubrimiento aislado que todavía pueda hacerse. En la inmensa mayoría de los casos, esto convertiría presunciones en certezas, pero las presunciones están ya presentes (Mitxelena 1970: 308).

Ikusi dugu gorago arazo franko dugula usu maileguak ezagutzeko, hainbat eta gehiago zenbat eta hitza formalki eta semantikoki jatorritik gehiago urrundu (§ 3). Orobat, zailtasun horiek ugaltu egiten dira zenbat eta bertakotuago bilakatu maileguak, beren egitura berri arruntak ustez eta itxuraz, ez baitio ez hiztunari ez ikertzaileari mailegutza hipotesirik eskatzen, oinarririk gabeko lasaitasunera eramanez; hori gertatzen da, demagun, *alu* eta *alha*-rekin *FHV*-n.

Forma kanonikoa aztergai hartzerakoan, zenbat eta hertsiago jokatu eta geure buruari gehiegizko askatasunak ematetik ihes egin, maileguak hainbat eta sarriago azaltzen zaizkigu. Alabaina, astiro bada ere, forma kanonikoa ere aldatuaz doa eta aldaketa horren poderioz, lehen hizkuntza hartzailean ezezagun ziren egiturak arrunt bilaka litezke: euskaraz, esaterako, CVC egituratik eta CV- aurrizki eta erreduplikazioarekin CVCVC eta CVCCVC (konposaketa) dira lehenik itxaroten ditugun egitura bisilabikoak. Askari goiz, segurki, baita VCVC zenbait ere, **d-* edo **n-* erroen erreduplikazioaren ondoren, demagun. Ez, ordea, VCV edo VCCV, norbaiti oso antzekoak iruditzen arren: hauek ez dute -C kodarik eta, hortaz, ezin dira izan erroa eskubi duten bisilaboetarik, erroak CVC tamaina nahita nahiezko baitzuen. Bestalde, ezin ditugu ezta CVC + atzizkia (cf. *hor-tz*, *har-tz*, *bor-tz*) egituratik errazki atera eta, horrenbestez, mailegaketa hipotesiak egiantzeko ez eze ia beharrezko ere bihurtzen dira.

⁷³ Lakarra (1996a)-n eta (2009c)-n Vennemannen eta Trasken V- ugaritasunaz aritu nintzen, hau modernoa (historikoa, ez aitzineuskarakoa) zela erakutsiaz. Berebiziko interesa du ugalketa horren azterketak, forma kanonikoaren aldaketari –hizkuntzaren eransletasunaren areagotzeari– lotua baitugu; halaz guztiz, ez da hortik jarraitzen soilik altxor zaharreneko morfema ez-mailegatueta gertatzen denik.

Forma kanonikotik datozkigun arrazoiketa hauek landa, hitz hasierako C- > ø- erorketek eta bestelako aldaketek ere laguntzen digute. Lehendik ere Mitxelena sumatzen zuen (cf. FHV) hainbat *k- eta *b- eroriak zirela gutxienez. Ez da, beraz, zer harritu *caninu* > **aninu*..., **ceruu* + *oin* > **er(u)(u)oin* edo *caecu* > ... **etsu*, nahiz *balana* > **alana*... izatea *hagin*, *orein*, *itsu* eta *arhan*-en deribazioan⁷⁴.

Dagoeneko ageri zaizkigu lege berri gehiago edo lege zaharren adibide haboro:

- .w- > ø-: *voluntate* > **ololde* > *olde*; *vesanu* > ... *ezain*; *uertere* > **arte*- > *ater*; *uoster* > **oster* > *esker*.
- .k- > ø-: **ceruu-oin* > **eruin* > **eroin* > *orein*; *caecu* > **tseku* > **ketsu* > **etsu* > *itsu*.
- .n eskubitarra: *hoben* < **hobe.en* < **obehen* < ...*offende(re)*;
- .r eskubitarra: **hatz-zarpa* > *atzapar*; *praesepe* > **barzi(e)pe* > ... > *bazter*; *tremere* > **derme(tu)* > **lernetu* > *lehertu*
- .*h*₃₂ > *h*₁: *hagin* < **ha.in* < **â.f.ûn* <... *caninu*; *heuskara* < **ehuskara* < **e-nus-kara*; *hezur* < **ehazur* < **enazur*
- .VøV > VgV: *hagin* <... *caninu*; *hogen* < **ho.en* < ...*offende(re)*; *ugatz* < **u.atz* < ... **edo(n)-hatz*; *igerri* < **i.erri* <... **edu(n)-berri*;

Hau da, maileguak eurak -batez ere ehundaka hartu direlarik euskararen bezala- bertakotu ahala beren egiturak ere bertakotu dituzte eta honek oso zail egiten du horietako asko banakako azterketen bitartez ezagutzea; soilik forma kanonikoaren laguntzaz baliatutako azterketak sala litzake eta orduan ere forma kanonikoa aldatuz doala gogoan izanik. Goian (§ 3) aipatu dugun *biao* betidanik euskara izan dela pentsatzea *jaio*-k aitzineuskaratik bertatik egitura horixe duela uste izatea⁷⁵ bezain larri eta arriskutsu da euskal etimologiagilearen-tzat. Lakarra (2009b)-n erakutsi bezala, forma kanonikoak hainbat eta hainbat aldaketa txiki eta (denborarekin) handixko izan ditu deriba zabal eta luze baten barnean. Horrela, bokalarteko hiatoeak, barneko *h*-en ezkereratzak (eta ezkerrekoen barneratzak gero), hitz hasierako zenbait C- > ø- erorketak, hiatoen diptongazio eta soiltzea, V eta C asimilazioak eta gainerako fenomeno ugariak itxuraldaketa handiak ekarri ditu ondare zaharreko hitzetan eta baita maileguetan ere: **e-da-din-o* > *jaio*, *geurtz* < **gero-urtez*, *meridiano* > *biao*, **abari-bagako-egun* > *bariku*, **behi-seni-edabe* > *esne*..., guztiak ere tarteko hainbat urratsekin. Honelako adibideek garbiro adierazten dute ahalik eta hertsiena jokatu beharra

⁷⁴ Egia esan, w- > ø ere bagenuen *otu*, *ote*-n baina seguruenik hauek w- > b- dagoeneko erromantzez egin bide zuten; alabaina, *uescor*, *uoster*, *uertere*, *uesanu*, *uoluntate* ez genituen *eskatu* (> *eske*), *esker*, *aterri*, *ezain*, *olde* eta besterekin. Erosoago dirudi w- > ø aldaketa onartzea eta ez horiek guztiak w- > b- > ø bidez deribatzea.

⁷⁵ J-, maileguez landa, soilik aditz zaharretan; **eCV-* > **e.V* > **jV* EBZ baino lehen baina AEM-ren ondoren gertatu da.

dela forma kanonikoarekin berreraiketan bai morfologia zaharragoaren aztarnak somatzerakoan [*hor-tz*, etab]) eta baita etimologian ere, partikularzki mailegu edo mailegu-gaien azterketan.

7. Ikerketa gehiago mailegaketa eta euskararen historiaurreaz.

7.1. Mailegu geruzak

Hizkuntzaren edozein alderditan –lexikoan nahiz fonologian, morfologian zein sintaxian– oso garai ezberdinetan sortutako nahiz bertakotutako ezaugarri eta formak izan ditzakegu, baita inoiz forma bera edo bertsua funtzio, balio eta testuinguru ezberdinekin ere. Euskaraz, demagun, *zezen* edo *labur* askozaz zaharragoak ditugu *ikuzgailu* eta *hestura* baino, haien erreduplikazio eta aurrizkia hauon konposaketa eta eratorpen-legeekin gehi berandu bertakotutako atzizkiarekin erkatzerakoan ohartzen garen legez. Izan ere, erreduplikazioa eta aurrizkiak geruza zaharrenekoak ditugu (Aintzineuskara Zaharra), hitz-eraketako hotsaldaketak aski modernoago (akitania ondoko eta Erdiaroa baino lehenagoko), atzizkitzea (oro har) are beranduagoko eta atzizki mailegaketa berrienetakoa azken hamarkada edo mendeotakoa⁷⁶. Neutralizazio-aurreko txistukariak (-z- *gazi*-koa, ez -tz *gatz*-ekoa) nahiz dardarkariak (Erronkariko *ur* / *uR* zein monosilaboetako hainbat -r) geruzarik zaharrenekoak dira eta *l-n* ondoko txistukari afrikatuak, aldiz, askozaz modernoagoak; morfologian, orobat, erro monosilabikoak zaharragoak dira edozein bisilabo baino eta, gainera, hauen artean ere badira zaharragoak (CVCVC zenbait, esaterako) eta erabat modernoak (TDTV eta CVCV asko)⁷⁷.

Ez da harritzekoa, beraz, geruzak edo estratoak izatea mailegaketan ere, batez ere euskarak latinarekin eta erromantzeekin –etenik gabe– izan duen eta

⁷⁶ *Aurre-iritzi* bezalako kalkoak modernoenetarik dira (1977 edo ondokoak asko).

⁷⁷ Aurreko lanetan markatu dudan legez, ondoko adibideetan ilunago eta, horrenbestez, zaharragoak dira (a)-koak eta (b)-ekoak azken bi sailletakoak baino; bistakoa da batzuen eta besteen artean morfologiatzko hazkundea aldatu egin dela eta baita hitz-familiena ere:

a. <i>gogor, zezen, adar</i> ;	b. <i>lagun, gibel, samur</i> ;
c. <i>harbel, gordin, zaldun</i> ;	d. <i>gazi, atze, jale</i> ;

Kwok “(1) Are all proto-languages homogeneous in nature? That is, do they consist of only “one” stratum?, (2) If it is possible for a proto-language to contain more than one stratum, to what extent will this “heterogeneity” affect its daughter language(s)? (2006: 202) galdetzen du, Hainan irlako min hizkuntzaren kasua oinarri hartuaz; ez dut uste sakoneko erantzunik den lan horretan, galderek ere –cf. 3.a: “Is the family-tree model” sufficient to account for the development of Chinese dialects?”– ez baitute gehiagotarako ematen. Nolanahi ere, bai lan horretan eta baita txineraren geruzak aztertzen dituztenen artean, bada “bi-directional diffusion” deritzonaz eta baita silabaren tonuari, buruari eta buztanari dagozkien aldaketen azterketa bereziaz arta interesgarria, agian euskarari buruzko lanetan ere emankor gerta lekigukeena.

duen mendeetako hizkuntza kontaktuaren ondoren⁷⁸. Ez pentsa, halere, jatorri ezberdineko lexikoaz ohartzeko hizkuntzaren sinkronia ezberdinak ezinbesteko direnik:

Proto-Chinese and subsequent Old Chinese had absorbed a significant number of words from Miao-Yao, Kam-Tai and Austroasiatic sources as well as loans from Tibeto-Burman. The multiple origin of the Chinese lexicon can already be suspected by the simple observation that Old Chinese frequently has two or more different words for the same thing or concept, and as it turns out, each word can be traced to a different language family (Schuessler 2003: 1).

Norbaitek pentsa lezakeenaren aurka, honelako fenomenoak mundu osoko hizkuntzetan gertatu izan dira mendeetan zehar⁷⁹, ez soilik ingelesa edo gaztelania bezalako hizkuntza “landu” eta “handietan” (cf. Bynon 1977 eta Dworkin 2012, hurrenez hurren). Adibidez, mahometar eragina Sudan-mendebaleko herri eta kulturetan handia izan da eta beren hizkuntzetako arabierazko maileguek hala salatzen dute. Greenbergekek (1947) dioskunez, hausak arabieratik hartu dituen maileguak bi talde nagusitan bil litezke, bateko eta besteko kideak arabierazko jatorrizkoek pairatutako bilakabideek bereizten dituztelarik. Beren artean iturri diferentziak (arabiera herrikoitik ala klasikotik hartuak izan), data diferentziak eta gai edo alor diferentziak kausi litezke. Lehen taldeko maileguak forma herrikoietarik atereak dira eta aldaketa fonetiko anitz erakusten dute; oro har, Afrika Iparraldetik eta Sudanetik datozela dirudite, hausa lurraldeetako islamaren hasikinetan gun e horiek izandako garrantziaz diren bestelako berriekin bat egiten dutelarik. Talde honetako mailegu gehienak II.ekoak baino zaharragoztat ditu Greenbergekek eta eguneroko bizitza (merkatalgoa, teknologia, erlijio mahometarraren oinarriak) islatzen dira beraietan, bertako idazketa-ikasi talderik sortu aurretikoa, nolanahi ere. Egokitzen fonetikoaren artean aipagarrienak honakoak lirateke:

⁷⁸ Japoniera famatua da haren lexikoan ageri diren geruzengatik: ondare zaharra > sino-japoniera > *gairaigo* (“kanpotarra”); horien barruan ere –batez ere azkenengoan (portugesak, gaztelaniera, nederlandera, ingelesa...– bada bereizkuntzarik. Ikus orain Irwin-en (2011) lan bikaina.

⁷⁹ Sagart-ek eta Xu-k (2001) txineratik hanira izandako mailegaketa aztertuz ondoko ondorioak atera zituzten:

We have identified two recent layers of borrowings, labelled M1 and M2. We think they are loans from different varieties of SW Mandarin because there is no evidence at all for a transition between M1 and M2. M2 is definitely the dialect of Lüchun. M2 borrowings are very recent, perhaps post-1911. The majority was made after 1949, and especially during the Cultural Revolution (...) The M1 donor has not been identified (2001: 37).

Bai M1-en zein M2-n barneko diferentziek azpi-geruzak (M1a, M1b, M2a, M2b) –batzuk bestetuk baino argiagoak– bereiztera daramatzate ikertzaileok.

- 1) arab. -VbV- > hausa -VfV-: *alkita.b* > *litta.fi* ‘book’.
- 2) *Q* > *t*, *d* > *d*: *Qala.Qin* > *tala.tin* ‘thirty’, *dira.?a* > *dára.?a* ‘cubit’
- 3) Artikulua (*l-* edo *li-*) izenei erantsirik hartzen da; aldaketa honek bul-tzatzen du gehien Afrika-iparraldeko arabieraren eragina ikustera, hor ematen baita artikulua kontrakzioa.
- 4) Hots faringalak galdu egiten dira, II. taldekoan gorde edo zerbaixka alda-tzen direlarik.

II. taldeko maileguk arabierazko hotsen bilakabide erregularragoak dituzte, egungo egunean hausar ikasien artean arabierak duen ahoskerarekin bat eginaz, hain zuzen ere. Talde honetan kokatzen dira arabierazko pertsona izenak (Koraneakoak) eta erlijiozko eta zientzia eta tekniketako alorrik zailenei dagozkien berbak. I. taldekoen zahartasun erlatiboa⁸⁰ hausaren beraren barnean pairatutako (eta II.ekoek ez dituzten) aldaketek erakutsiko lukete: *b* > *w* silaba akabuan, *f* > *h* *u*-ren aurrean, *t* eta *s*-ren sabaikaritzea aurreko bokalen ondoan, etab. Azkenik, Greenbergen ustez (1947: 89) mailegaketak ekarri du hausaz fonema bakarraren aldaera bide ziren [r] eta [R] fonema bilakatzea, *he-* edo *hi-* agertzea, fonema glotaliko berriak sortzea, eta beste zenbait berrikuntza hizkuntza horretan.

Euskarari dagokionez, Martinetek eta Mitxelenak berreraiketa-lanean hasterakoan –eta maileguak zituzten oinarri nagusi– maileguk (besteak beste) erantsitako nahasketa sentsazioa aipatzen zuten:

Il ne peut faire de doute que le basque en général et ses dialectes en particulier ont été soumis, comme toute langue, à des changements phonétiques réguliers, mais il est clair que des conditions particulières à cette communauté linguistique, largement bilingüe depuis des siècles, et où les échanges de dialecte à dialecte ont dû être fréquents, rendent particulièrement difficile le départ entre évolution phonétique régulière et faits d’échange ou d’emprunt (Martinet 1955: 372; cf. Mitxelena 1957a: 166-167).

Inoiz bide malkartsuetarik baino ezin antzeman genezake familia bereko baina geruza ezberdineko alomorfoen aurrean garena: euskalkietan *mehatxu*, *beaza* eta *zamai* ditugu zabaldurik eta baita *amenazu* eta *amenazatu*, etab.⁸¹. Bigarren hauek lehen hirukoteko edozeinekin konbina litezke hizkera berean, ez aldiz hirukote horretakoak beren artean, *leiho* eta *lexo*, *bentana* eta **bendana* ere egin

⁸⁰ Ikus Hiskett (1967) maileguen kronologiaren zehatasun gehiagotarako; haren ustez (1967: 26) I taldekoak 1350-1450 bitartekoak lirateke eta XVIII. mendearen akabuz geroztikoak II.ekoak.

⁸¹ Inoiz, arazoa bestelakoa da: *zarika* nahiz zelta nahiz latina jatorritzat erabiliak azal liteke forma hutsari dagokionez, emaitza bertsua bailitzateke bi kasuetan; Gorrochateguik (1987) lekukotasunen urritasun eta distribuzioagatik nahiago du bi aukereren artean jatorri modernoena hartzea (cf. § 5.3). Honek eraman gaitzake Mitxelenak (1964) zeltatik hartutakoaren urritasuna azaltzeko erabili argudiora: hainbat kasutan latinetik eta erromantzetiko geruza berriagoek itxaron genitzakeen zeltatiko mailegu asko “estal” zitzaizketen.

ezin egin litezkeen bezala, baina bai, ordea, *lexo* eta *bentana*. Izan ere, lehenak ez dira *menaza*-tik ateratako hiru alomorfo baino; *amenazu* eta gainerakoak, aldiz, beranduagoko *menaza*-tik sortuak dira eta euskaraz eten egin da jatorrizko hizkuntzan zen erlazio morfo-fonologikoa *a*-gabeen eta *a*-dunen artean.

Latinaren eta erromantzeen historia, ordea, aspalditik ikertua eta –funtsean– oso ezaguna zen eta euskal hots aldaketen historia haietarik hartu maileguen bilakabidearen gainean ezartzerakoan hasieratik bertatik bazen ordenaren bat jartzerik⁸²; hara, esaterako mailegu zaharren eta modernoaren arteko zenbait ezberdintasun (cf. Mitxelena 1974):

ZAHARRAK	MODERNOAK
-bokalismo sardoa (tinbrea gorde, luzera gal) (<i>bikhe</i> < <i>pice</i> [ez ** <i>beke</i>], <i>mira</i> < <i>mira</i> , <i>tipula</i> < <i>cepulla</i> [ez ** <i>kipola</i>], <i>ingude</i> < <i>incude</i>) ⁸³	-tinbre aldaketa <i>i-u</i> laburretan (<i>balezta</i> < <i>ballista</i> [ez ** <i>balizta</i>], <i>dorre</i> [bada <i>-tur</i> zaharragoa ere]
- <i>u</i> (<i>biku</i>) baina <i>oilo</i>	- <i>o</i> (<i>iko</i>); baina <i>abendu/-o</i> , <i>joku/-o</i> .
- <i>muta cum liquida</i> -rik ez: <i>eclesia</i> > <i>eleiza</i> , <i>liburu</i> < <i>libr-</i> , <i>garau(n)</i> < <i>granu</i> , <i>placet</i> > <i>lakheta</i> .	-taldea gorde (<i>grazia</i> , lehen <i>garazia</i>) edo berriak sortu: <i>truku</i> , <i>treku</i>
-hershari ahoskabeak bokalarrean: <i>zaphore</i> , <i>-atu</i> ,	-ahostunak (erromantzez sortuak): <i>-adu/-idu</i> .
-ahostunak hasieran: <i>bara</i> < <i>pala</i> , <i>butzu</i> < <i>puteu</i>	-ahoskabe (inoiz are ahostun batetik)
-belarea <i>e-i</i> aurretik (<i>bake</i> , <i>bikhe</i> , <i>gela</i> , <i>gerthu</i>)	-sabaikaria (erromantzean sortua) ⁸⁴
-lat. <i>s</i> > <i>z</i> : <i>gorputz</i> , <i>baradizu</i> , <i>Z zekiuru</i> , <i>Z zeñhare</i>	-lat. <i>s</i> > <i>s</i> : <i>paradiso</i> , <i>sekula</i> , <i>señale</i>
-lat. <i>-l-</i> , <i>-n-</i> > <i>-r-</i> , <i>-h(ø)</i> :- ⁸⁵ <i>ahate</i> , <i>ohore</i> , <i>koroa</i>	-- <i>l-</i> , <i>-n-</i> > <i>-n-</i> , <i>-l-</i> : <i>solo</i> , <i>olio</i> , <i>zelü</i>
...	

⁸² Txinera zaharrean ere gramatika historikoa da geruza ezberdinak bereizten laguntzen duena: “One can distinguish layers of borrowing or absorption because of the different treatment of foreign initial clusters in Old Chinese; for example, putative foreign word initial cluster **kl-* can show up in Middle Chinese as *th-*, *t-*, *k-*, among others. Finally, these early loans shed some light on OC phonology as well as enigmatic etymological relationships (Schuessler 2003: 1).

⁸³ Badira zenbait lilura-bide: *gisu-k*, *demagun*, zaharra dirudi bokalen aldetik, baina pentsa -*u* horrek estali ahal izan duela aurreko **e* geruza berrienekoa; bestalde, kontsonantismoari dagokionez -*s-* ezin da zaharra izan, nahiz eta *g-* horrek dioskun ez dela geruzarik modernoenekoa ere.

⁸⁴ Alabaina, belarea dute *aingeru-k zigilu-k* eta beste Eliz- edo Erdiaroko latinekok eta Mitxelenak (1974: 195) uste du dagoeneko sabaikariturik sartu ziren formak gero /*g*/ batez ordezkatu zirela: cf. *tipula*, erk. *deus*, E. *gente*, etab.

⁸⁵ Mitxelenak (1974: 197) “*-n-* > *-h-* (*-g-*, *-r-*)” dio baina, Lakarra (2009d)-n erakutsi bezala, /*h*/ ez da inoiz epentetikoa edo hiato-hausle, /*g*/ (> /*ɾ*/) den bezala, etimologikoa baizik. Ikus hor eta § 7.3-n.

Mitxelenak behin baino gehiagotan erakusten duen moduan, kasuan kasuko ezaugarri arkaikoak usu beste aske bat darama: *baradizu*-n /z/ zaharra soilik /b-/ zaharrarekin doa; *zoru*-n /z/ hori -l- > -r- egindako forman doa, baina ez da horrelakorik ez duen *solo*-n (-oro guztietan ere ez, ordea, *soro* baitugu), *sekula*-ren bertakotugabeko s- eta -l- horiei Z-z z- eta -r- dagozkie, hurrenez hurren...⁸⁶

7.2. Euskal hots aldaketen kronologia baterako

Jatorrizko elementuekin horrelakorik egiteko zailtasuna eta euskal testuen eta lekukotasunen berankortasuna kontuan izanik, Guiterek (1989) euskal hots-aldaketaren kronologia absolutoa maileguen gainean oinarritzea proposatu zuen, lehenago latinetik hizkuntza erromanikoetarako bidean jazo zirenentzat Strakak (1951-54) eta bestek finkatutakoei lotuaz. Hara Guiterek euskal hots garrantzitsu zenbaiten kronologiarekin prestatutako taula⁸⁷:

200	300	400	1000	1100	1200
<i>p- > b-</i>	<i>n > ø nt > nd</i>	<i>l > r</i>	<i>ll > l</i>		
<i>t- > d-</i>	<i>mp > mb nd > n</i>		<i>nn > n</i>		
<i>k- > g-</i>					
<i>mb > m</i>					

Edozein kronologiatan ohi legez, gertakari batzuk beste batzuk baino lehenago edo beranduago gertatzen direla onartzen da; honela latinetiko herskari ahoskabe soilen ahostuntzea (*ripa* > *riba*) beren geminatuen soiltzea (*cappa*

⁸⁶ Wang-ek zera diosku:

If the related words are due to transmissions of different time depths, the strata in a language are given rise to. Related words of each time depth will construct an independent layer. So, *only the earliest layer among strata can possibly represent genetic relationship*, since the related words of later time depths are certainly borrowed. In the exploration of the genetic relationship, faced with the strata in a language, the first is to exclude later layers and leave the oldest layer (2006: 220-221; etzanak egilearenak dira).

Ez dut ukatuko funtsean arrazoi izan lezakeela baina “independent layer” horretan da kontua; euskarazkoetan dagoeneko horrelako garbi-garbiak lortzea ez dela erraza antzeman bide liteke; entzun ote du Wang-ek ezer Melanesiako hizkuntzen berreraiketaren arazoez? Haren bibliografian ez da horrelakoren aztarnarik eta, beharbada, ez lioke okerrik egin-go aztertzen duen Bai hizkuntzan (Yunan) hitzen %70a edo txineratik hartua bada (Wang 2006: 221 *apud* Luo 1943).

⁸⁷ Orri berean bada euskal jatorriko morfemetako hotsek lurralde erromanizatueta hartzen duten itxuraren arabera lurralde horiek noiz erromanizatu diren aztertzeke saio labur bat ere; alabaina, egileak *Ligüerre* < **Ili gorri* baina *Biciberri* (diptongaziorik gabe) bezalako bikoteen aurrean “Lo que vale por [sic, irakur *para*] una población lingüística homogénea no puede aplicarse a una población heterogénea y evolutiva” aitortzen du.

> *capa*) baino lehen gertatu zen, ***caba* ere aterako baitzen kontrako ordenan arituaz erregelok. Euskararen barnean jazo direnetara bagoaz, *-l-* > *-r-* jazo da *-L-* > *-l-* baino lehen, **sali* > *sari* (*angelu* > *aingeru* legez) eta **aLaba* > *alaba* (*ballena* > *balea* bezala) baititugu baina ez ***araba* < **aLaba* eta ***irun* < *iLun*. Orobat, maileguetan eta jatorrizko morfemetan gertatzen diren aldaketak konbinatuaz *mb* > *m*, *nd* > *n* lehenagokoak dira *mp* > *mb* eta *nt* > *nd* baino.

Har dezagun *tipula* (< *caepulla*) adibide gisa, gutxi aurkitu ahal baitira horren emankor. Belarea txistukari bilakatzeko bidean /kj/ batetik igaro zen 200. urtearen inguruan eta /tj/ batera iritsi 250. erantz. Azken soinu hau ez zen iraunkorregi eta Dacia 271. ean Erromatik berezi baino lehen txistukari egina zen, errumanierak ere horren lekukotasuna baitemaigu gainerako erromantzeen bide berean (Guiter 1989). Euskaraz, bada, III. mendearen hirugarren laurdenerako hartua bide zen, ez 250. urtea baino askozaz beranduago. Morfemaren gainerako hotsen kronologiak ere ez du hasierakoena oztopatzen: euskarak bigarren bokal altuaren tinbrea eta haren aurreko herskaria ahoskabe gorde zituen (cf. gazt. *cebolla*); horrenbestez, ez 300. urterantz jazo zen *o* > *u* eta are gutxiago *-p-* > *-b-* 400. erantz.

Gainera, hasierako ahostuntzea (cf. *gela* < *cella*) gertatzen ez delarik, hots aldaketa hau 250. a baino lehen koka genezake⁸⁸, *kanpae* bezalako hitz bat, aldiz, soilik data horren ondoren bertakotu zen. Euskal hotsen aldaketarako /l/ eta /n/ ozenen bilakabidea jakingarria da baina ez du gehiegizko laguntzarik ematen testu tradizioak: 1000 urterako eskas dira <-ll-> eta <-nn-> grafiak eta 1200 aldera desagertzen dira, baina jauzi handia dugu hitzaren sarreratik data horietara eta zehaztasun haboro beharko ditugu oraindik.

Kanpae-k beste hots aldaketa zenbaitetan laguntzen gaitu: ikusten dugunez, *mp* > *mb* ez da gertatzen eta hau zen talde honek jaso zezakeen azken aldaketa, *mb* > *m* (*Sembe* > *seme*) baino beranduagokoa baita⁸⁹; *-n-* > *-ø-* da betetzen duen aldaketa bakarra eta hau guztien ondoren jarri behar. Kronologia erlatibotik absolutura igaroaz, *borondate* (< *voluntate*) eta *sendo*-k (< *exemptu*) *nt* > *nd* 300. urtea baino beranduago gertatzen zela dioskute, urte horretarantz baino ezin har zitezkeen *u* > *o* aldaketarekin; *mb* > *m*, aldiz, data horren aurretikoa dugu: cf. *imutu* < *imbutu*, *-u-* rekin. Guiterrek (1989: 799) *mb* > *m* III. mendearen erdialdean, *mp* > *mb* mende horren akaburantz, *-n-* > *ø* IV. aren hasieran, *nd* > *n* IV. aren lehen zatian eta *nt* > *nd* mende horren bigarren zatian kokatzen ditu.

-l- > *-r-* aldaketari dagokionez, *zeru*-k (< *caelu*) 250. urteaz geroz eman dela erakutsiko liguke, ikusi dugunez, orduantxe hasten baita erromantzez belareen

⁸⁸ Guiterrek (1989: 799) “podemos pensar que la sonorización de las sordas iniciales intervino a principios del siglo III” dio baina erregela lehenagotik bide zetorren; bestalde, ez da egia osoa ahostuntzerik ez dela, lekukotua baita *dipulatze* ere.

⁸⁹ Eta eremuz laburragoa, *mb* > *m* Aragoi eta Añemendi inguruko erromantzeetan ere jazo arren, *nd* > *n*-rekin ez da beste hainbeste gertatzen.

txistukaritzea⁹⁰; *gura* (< *gula*), halaber, 300. urtea baino lehen hartua genuke, aipatu aldaketaz landa, data horretan *o* emango zuen *u* gordetzen baitu; arrazoi beragatik 300 ondoren baina 400 aurretik sartutako *borondate*-k (ikus gorago) erregela oraindik bizi zela diosku; *kandera*-k (< *candela*), azkenik, *nd* mantentzean 350. urteaz geroztik –urte horretarako *nd* > $\emptyset$ jazoa zen– *-l-* > *-r-* aldaketa indarrean zela ondoriozta genezake. Alabaina, noizko burutua edo indargetua zen erabakitzerakoan (*terminus ad quem*) Guiterek (1989: 800) ez du “XI. mendea aurretik” baino zehaztasun gehiago eman ahal, mende horretan hasten baitira *-ll-* edo *-L-* > *-l-*; ikusi dugunez, erregela hau pairatzen duten morfemek *-l-* > *-r-*-rik ez dutenez, honako honek amaitua behar du ordurako⁹¹.

Kronologia erlatiboan asko aurrera genezake mailegu azterketaren bitartez. Garbi da, esaterako, **-n-* > *-h-* (lat. *anate* > eusk. *ahate* eta, beraz, **eno(n)* > *eho*), **h₃* > *h₁* baino lehenagokoa dela, soilik hori gertatu ondoren izan baitezakegu eusk. *harea*, *Z hariña* (< lat. *arena*); hau eta bere kide *hazeari* (< *asinariu*) dagoeneko Mitxelenak markatu zuen –gero iritiziz aldatu arren–, ustez **h₃*, izatekotan, antzina galduko zela, inongo aztarnarik utzi gabe. Alabaina, **h₃* > **h₁* ez da inongo lillura, *hagin* (< *caninu*) edo *hogen* (< *offende-*) maileguek erakusten duten bezala eta –markagarriago dena– horiek *herio* (< **elino*), *heuragi* (< **eradun-egi*), *hibai* (< *ibahi* < **hur-bani*), *hoge* (< **borgeni*) eta ondare zaharreko enparatuen historia egiten laguntzen dute.

Ezinbestean, “euskal Grassmann” (**h...h... > $\emptyset$...h...*) batez ere ondare zaharrekoetan ezagutzen dugu⁹². Baina maileguen historiarekin ere badu zerikusirik, lege hori **h₃* > *h₁* edo besterekin konbina bailiteke: **hur-ban-i > hibai* dugu honetarako lanabes apraposa, hor noizbait hiru /h/ izan baitira (**huh-bahi*). Badirudi lehen erregela “Grassmann txikia” izan dela –silaba/erro barrukoa– eta

⁹⁰ Gauza bera ikusten du Guiterek *colus* > *goru*-n nahiz eta honetan hasierako ahostuntzea jazo; hori testuan *tipula*-ri buruz esandakoarekin kontraesanean litzateke. Bi aukera direla iruditzen zait: a) ahostuntzea 250 baino lehen amaitua zela onartu eta hortaz palatalizazioa (*zeru*) aurreratu edo b) ahostuntzea 250 baino lehen hasia bai baina amaitzeke zela, nahiz eta **t'ipula* > *tipula* beranduago gertatura ez iritsi.

⁹¹ Oharturik IV. menderako sartuak diren hitzen bilakabidean XI.era artekoa mende askotako epea dela fenomeno honentzat, Guiterek (1989: 800) *Textos Arcaicos Vascos*-etik 952 eta 1025eko bi toponimo zerrenda hartuaz, hurrenez hurren, *Ulibarrilior* eta *Hurizahar*; *Huribarri* aurkitzen dituelarik, *l* > *r* 1000 urtearen inguruan gertatu zela proposatzen du. Ondorio hau ezin zuzena izan, ordea: ikusi dugu *hiri* (eta beraz, *huri*) ez da *-l-* > *-r-* erregelaren bidez sortua; bestalde, dagoeneko Mitxelenak erakutsia zuen *Uli-* ez dela *Hur-i* baino zaharrago, hitz horretan (baina ez enparatuetan!) ematen den *r...R...* > *l/d...R...*, homorganikoen aurkako aldaketa (cf. *edur/elur*, *bedar/belar* < *erur*, *berar*) baizik.

⁹² Cf. 91. oh. Baina, izan, maileguetan ere izan bide zen: dagoeneko aipatu *hagin caninu*-tik abiatu eta **âhîhû* batetik pasatu zen unerren batez, bi **-n-* zirelarik.

**huh*- > **uh*- egin dela (cf. *uhalde*, *uharte*, etab.). Gero *-*hC*- taldea soildu (-Ø*b*-) eta bakarrik ondoren gertatu da **h*₃ > *h*₁.

Beraz, *harea* soilik *ibahi*-ra iritsi ondoren lor liteke; orobat, *hoge*i ezin erdiets liteke **ogehi* baino lehen eta hona **borgen*i-tik bagatoz, **b*- > Ø- zein **h*...*h*... > Ø...*h*..., biek behar dute **h*₃ > *h*₁ baino lehenago. Azkenik, **e-ra-non*-etik abiatu dira *erho* nahiz *haragi*; zalantzarik gabe, *-*n*- > -*h*- eta **h*₃ > *h*₁ jazo da hor baina gero baita **hVR*- > *VRh*- ere, *erho* hori azaltzeko. Norbaitek pentsa lezake *erho* errazago, zuzenago, **eraho*(*n*) > **erh*(*a*)*o* jazo ahal izan dela, **h*₃ > *h*₂-rekin, alegia. Ez da horrelakorik, ordea: *harea* dugu baina ez ***arhea* eta, batez ere, ez dugu ***balhea*-rik; hots, **h*₃ sortu zenean ez zen kokalekurik bigarren silaban /*h*/ horrentzat, eta hutsunerik izatekotan, *h*₁-era jotzea baino ez zuen, azentuaren eskubitara kokatzean galduko ez bazen⁹³.

Erho zaharraren pareko hertsia-hertsia dira *arhan* eta *anhoa*: bien /*h*/ **h*₃ da (< **balaha* < lat. *balana*, < **aNoha* < lat. *annona*) eta soilik **h*₁ bilakatu ondoren -horretarako *b*- > Ø- gertatu behar *arhan*-en, *hoge*i-n legez), **h*₁ horrek taldea egin du bigarren silabako ozenarekin, dela -*r*-, dela -*l*-.⁹⁴

7.3. /*h*/ etimologikoak eta mailegu gaskoiak

Mitxelena maileguen azterketaren arloan gehiena egin zela zeritzon (ikus § 6.2ko aipua). Dagoeneko aski frogatu eman ez badut, nahi dut atal honetan erakutsi badela oraindik zer eginik eta asko dela bertatik itxaron genezakeena hizkuntzaren berreraiketan, are fonologia diakronikoan bertan; hau da, zalantzarik gabe -eta denok dakigu nori eskerrak- gramatika historikoaren alderdirik garatuenean.

Txomin Peillenen liburua (1998) eta Battittu Coyosen artikulua (2001, 2006, 2011) badira gaskoi eta bearnesetiko euskal maileguez. Alabaina, asko izanik hor bildua eta aitzinatua, esango nuke badela eranstekorik eta ez azken hamarkadetan edota hondar mendeotan euskararen sartuak aipatuaz bakarrik, aspaldixkotik gure hizkuntzan errotoak ere oinarri hartuaz baizik; hots, hizkuntzaren bilakabidearen garrantzizko alderdiak argitzeko gai dira.

Egia esan, ia halabeharrez arduratu naiz gaskoi maileguez eta ustekabeen jo dute nire atera. Arestian egin izan dut zenbait lan (Lakarra 2008b, 2009d, 2010a, 2012b...) artean “arrazoigabekotzat”, “ez-etimologikotzat” edo “halabeharrez-

⁹³ Badira pare bat, biak maileguetan: *lehoi*, *Lehior* (< *legionariu*, Irigoyen); hemen, ordea, ez dute talderik egiten ozenarekin baizik eta silaba-buruko hutsunea betetzen dute oso-osorik. Dirudenez, ondare zaharrekoetan ez da honelakorik, oraindik kokagune hori beste konsonanteren batekin betea zelako.

⁹⁴ *Arhan* eta *anhoa*-rentzat ondare zaharrekoek ematen diguten laguntzaren ordaintzat, mailegu gaskoiek erakusten dute (cf. hurrengo atala) *hVR* > *VRh*- aski berankorra dela, /*h*/-metatesien artean modernoenetarikoa, hain zuzen.

kotzat” jotako hainbat /h/ jatorrizko edo etimologiko direla frogatu nahian. Alegia, dela bigarren, dela hirugarren silabaren muturrean sortu eta, hitz hasierara mugitutakoak dira hainbat (*harea* < **areha* < *arena*, *hazeari* < **azehari* < **azenari*, *herio* < **eliho* < **elino*, *heuskara* < **ehuskara* < **enuskara*, *hezur* < **ehazur* < **enazur...*)⁹⁵; eta diptongo ondokoak ere (*saihets*, *ei har*, *oi her*, *oi hu*, etab.) ez dira *h*-aren orokorpen *-i*-renak baino, izatekotan (cf. **sa-hets*, **broñe*, **ohu...*), bokal arteko hasperenak (*ahate*, *eho*) ere ez dira hiato-hausle hutsak⁹⁶ eta ekialdeko monosilabo hasierakoak ere (*hur*, *hor*, *hon*) euskara batu zaharretik edo aitzineuskaratik datoz eta ez dira zubereraren berrikuntza, lan horietan erakutsi uste dudanez.

Hortik aurrera, bada, Mitxelenak “*h* morfologikotzat” jotako batzuen (*onherran*, *onheritzi*, *onhetsi*) txanda zen. Hauetan, aipatu berri dugunez, zubererako (eta bestetako) *hon*, *hur*, *hor* eta gainerako *hVC*-en *h*-etimologikotzat badugu, nago ez dela “*h* morfologiko” erantsiren beharrik eta aski dela zor zaien hasierako *h*-etimologikoaren metatesia: ohar bedi ez dela beste *-*herran*-ik (edo *-*kerran*-ik, *gaitz*-en ondotik, demagun)⁹⁷; beraz, *hVR*- (*hon*) > *VhR*- ditugu *onherran*, *onheritzi* eta *onhetsi*. Gauzak honela, so egin beharra zegoen *Vlh*-, *Vnh*-, *Vrh*- eta *Vrrh*- ugariei; *ilhun*, *ilhargi*, *ilhotz* edo *ilherri*-z landa –hau da, Grassmannen legearen bitartez **h...h...* > *ø...h...* dutenez kanpo–, euskal etimologiarik ez duten eta beren formek horretarako esperantza gutxi ematen duten *al ha*, *ar hin*, *el he*, *ol ho*, *or hoitu*, *un ha tu*,... aztertu beharra genuen. Amaitzen ari naizen lan batean erakusten denez (cf. Lakarra 2012b, prestatzen-b), **honerran*, **honeritzi* eta **honetsi* bezala, azken lauak ere **hal a*, **hol o*, **horeitu* eta **hunatu* ziren noizbait euskaraz; hau da, **hVR*-itxura hori zuten gaskoitik euskarara sartu zirenean, gero gainerakoek legez, metatesi bitartez *VRh*-ra iritsiaz:

Eusk. / Gask.

al ha : gask. *hàla* ‘haler, tirer à soi, trainer péniblement et lentement; en As. aller doucement’;
hal a ‘souffler, halener, haleter; sentir l’haleine; courir à perdre haleine, fuir; aussi haler’;
hal àn, -*de*, -*te* ‘soufflant, -e, court d’haleine, essoufflé; allant, vif, dégourdi’

ar hin : gask. *hàriu*, -*iuo* ‘rapide à la course’

el he : gask. *helè* ‘peine, douleur, affliction’

ol ho : gask. *houlhou* ‘achillée millefeuille (achillea millefolium, plante)’

or hoitu : gask. *horehèyt* ‘chose, événement extraordinaire’

un ha tu : gask. *houène*, *foùnde* ‘fondre, mettre en fusion; amollir (...) houène-s, se fondre, se liquéfier; maigrir, s’épuiser’

⁹⁵ Julen Manterolak Rejako *ibahi* bat oparitu didanez, *hibai*-ren etimologiaren tarteko pauso horrek ez du engoitik izartxo beharrik.

⁹⁶ Bai, aldiz, hainbat *-g* : *lagun*, *negu*, *bigun*, *hagin*, *nagusi*, *igerri*, *ago*, *begar...*

⁹⁷ Cf. *barazkari* < *baratze* + *hari*, *askari* < *arrats-hari*, baina *afari* < **gau-hari*, *janhari* < *jan* + *hari*.

unhil : gask. *hounilh* ‘entonnoir; tournoiement de l’eau formant une sorte de’entonnoir; au fig. un goinfre, un ivrogne; en style plaisant, la bouche et le gosier’⁹⁸.

Baina mailegu gaskoi ezezagunak ez dira euskarako dozena t’erdi *VRh-* (< **hVR-*)-tara mugatzen: goikoen edo *olha* (cf. gask. *hoelhà* ‘feuillage, les feuilles’, ‘feuiller, placer, poser des feuilles’)⁹⁹, *enhe*, eta besteren aldean, *hobi*, *hodi*, *herabe*, *hein*, *hedatu* edo *heri* badira, eta hori nire aztergai den /h/-dunen sailean bakarrik¹⁰⁰.

Peillenek eta Coyosek bildu dituzten baino jatorri honetako mailegu gehiago izan direla nabarmena da; horrezaz gainera, mailegu hauen lekukotasunak bermatzen du *VRh-*¹⁰¹ egituretako hasperenak –guztiak edo gehienak– etimologikoak direla, batetik, (jatorrizko lexikoan edo gaskoitik mailegatuan izan); bestetik, /h/-aren kronologiaz eta “irregulartasunez” laguntza gehiago damaigu: cf. *ilhaun* < *uilano*, *anhoa* < *annona* edo *erho* < **eranon* (cf. zub. *hero*, nahiz *arhan* < lat. *balana* ‘gland et tout espèce de fruit en forme de gland’), non goian aipatu **h₃* bezala sortua *VRh-* gisa aurkitzen dugun *h_i*-etik igaroaz¹⁰². Hots, **h₃* > *h_i*, lehen, eta *hVR-* > *VRh-* gero, jatorri honetako eta bestelako hasieratik *h_i* ziren euskal altxor zaharrekoekin eta baita mailegu gaskoiekin batera.

urteko dokumentazio hutsunea dugu Antzinaroko eta Erdi Aroko euskal lexikoaren eta hizkuntzaren bilakaera mailakatuaren berri jakiteko.

Dokumentazioak planteatzen dizkigun problemen aurrean, zer irizpide hartu, hitz bat euskal mailegua dela finkatzeko?

Segur aski irizpiderik onargarriena da delako hitza euskararen hasieratik, xvi. mendetik aurrera, erabilera orokorrekoa izan dela egiaztatzea. Inoizka suertean ibiliko gara eta hitza antroponimian edo toponimian erabilita agertuko zaigu, Erdi Aroko mendeetan dokumentatua: horrela, *larra* ‘prado’ hitzak (Academiaren hiztegia) euskarazko *larre* du etorki, *Larrehederra* toki-izenean dokumentatua (Fernan Gonzalezek 945. urtean egindako emaitza). Salbuespen kasua da *bildur* ‘miedo’ hitzarena, Berceok erabilia bere xii. *Milagroan*⁴, zeren euskal mailegu hori aldi berean euskal hitzaren lehen agerraldia baita; hitzak euskararen ondoko edo ele biko eremu batean erromantzeraz pasatako euskal mailegu baten kasua ilustratzen du, hizkuntza orokorrean nagusitu ezin eta galdu zena.

Euskal hitz horietako batzuek euskal etimologia izango dute –eta euskal etimologia diogunean hitzeko osagaien azalbide koherentea esan nahi dugu, lexiko sare sistematiko batean–, arestian aipatu bi hitzetan bezala, baina beste batzuek latina, zelta, arabiera edo beste hizkuntza ezezagun bat izango dute jatorri. Euskal mailegu klaroa da –nahiz Euskal Herrira mugatua, Academiaren hiztegiak dioskunez–, *atorra* ‘enagua’ hitza, nahiz egia den hitzaren azken buruko jatorria arabiera hispanikoko *addurrá* ‘a’ dela (hura arabiera klasikoko *durrā* ‘ah-tik). Euskarazko *atorra*, hizkuntza osoan erabilia⁵, arabieratik mailegua da eta, bokal arteko *t* horretatik igartzen zaionez, bere egokitze bide propioa izan du euskararen, gaztelania zaharreko *adorra* ‘túnica’ hitzeko bilakaeraz guztiz bestelakoa; eta orobat gertatzen da *alkate-alcalde* bikotean ere, biak arabierazko *alqaḍi*-tikakoak. Gauza jakina da euskal lexikoaren zati handixkoa latinetikoa dela, baina ez ditugu, haatik, gutxiago euskarazkotzat jotzen *oilo*, *orain*, *mutil* edo *zaldu* bezalako hitzak, nahiz eta azken buruan lat. *pullu(m)*, *hora*, *mutilu(m)* eta *salu(m)*etik heldu direla dakigun. Ildo horretatik, badirudi *mochil*, *motil* ‘muchacho que sirve a los labradores’ hitza (Academia) euskarazko *mutil*, *motil* (eta *motxil* aldaera sabaikarituak) hitzaren mailegu zehatzagotua dela, Artaxoako 1130eko dokumentu batean jadaneko dokumentatua, *Garsia Mutila* pertsona kognomenean. Latin arrunteko forma batean duelarik jatorria, ezin segur esango dugu gaztelaniako hitza euskal mailegua denik, nahiz eta horren alde hitz egiten

⁴ Salió de la iglesia (Fraire Ubert), fo a la fermería / Non levava de miedo la voluntad vazía / Non irie tan apriesa iendo en romería / Don Bildur lo levava, par la cabeza mía.

⁵ Larramendik dioenez, *Corografía*, 215: *atorra* “ La camisa, o es de una pieza, como la del hombre, o de dos, que se compone de enaguas blancas, que llaman *atorra*, y de mangas y cuello y dos faldas abiertas hasta la cintura, y llaman *txaramela* y *atorramauka*”.

duen hitza euskaran goiz-goizetik dokumentua egoteak eta batez ere haren sabaikaritze adierazkorrak, euskararen bereizgarria baita. Baliteke, bestalde, arztaintza kutsuko testuinguru batean erabiltzeak ere harreman hori sendotzea. Eite bereko beste adibide bat da *mocho* ‘sin punta’ ‘sin cuernos’ hitza, zeina Academia baitio jatorri ezezagunekoa dela. Erabilera zaharra du gaztelanian (Toledon 1170ean, eta bai Nebrijarengan ere) aldi-alde orotakoa, eta katalanean eta portugesean ere dokumentatzen da. *Motz* euskal hitza 1206rako kognomentzat erabilita ageri zaigu (*Galindo Moça*). Badirudi esangurazko harreman argia dagoela bi hitzen artean, mutilei maiz eman izan baitzaizkie kaskamoztuta edo ilesoilduta ibiltzeko ohiturari dagozkien izenak. Hala ere, hitzak euskaran erabilera zaharra eta orokorra badu ere, ez du ageri protoeuskarako hitzek izaten duten egitura morfofonologikoa, protoeuskara berreraikiak ez baitzuen /m/ fonemarik. Antzeko zerbait esan daiteke *zamarra*-z ‘prenda rústica, hecha de piel con su pelo o lana’, lehenbizikoz Juan Ruizen obran dokumentatua. *Zamar* euskal hitza (mugatuan *zamarra*) zaharra da, erabilera orokorrekoa Erdi Aroko antroponimian, izengoiti askok erakusten duten bezala (*Fortun Zamarra* (1075), *Sancho Çamar* (1366) eta beste) baina -m- soinuak zerbait nekezten du euskal etorkikoa izatea. Protoeuskararen sistema fonologikoak, K. Mitxelenak joan den mendeko seigarren hamarkadan berreraikiak, ez zuen /m/ fonemarik, eta hura historikoki oso bilakaera konkretuen ondorioz sortu zen: a) -mb->-mm->-m- aldaketa, akitanierazko SEMBE-: eusk. *seme* bikotean ageri denez; b) /m/ fonema zuten hizkuntzetatik hartutako maileguetan, bai zeltatik (*maite* < *mati-), eta bai bereziki latinetik (*eme* < fem(i)-na, *horma* < forma, *maizter* < magister); c) hurbileko sudurkari baten eragina, *mihi* < *bini hitzean bezala. Baina ia segurua ere da erromatarren denborako euskaran jadaneko hasia zela fonema berria haren sisteman txertatzen, Lergako inskripzioan ageri den VMMSAHAR hura gogoan (segur aski akitanierazko OMBE-rekin lotua). Bide horietan guztietan barna eta horrez gain fonema berriari zentzu adierazkor markatua emanaz, Mitxelenak berak adierazi ere zuen bezala, /m/ fonema euskaran normaldu eta ugaldtu zen Erdi Aroaren hasierako mendeetarako, garai hartan datatu baitezazkegu euskal maileguak. Hori ez litzateke, beraz, oztopo *zamarra* euskal mailegutzat hartzeko. Horren alde, itxurazko argumentu bat ere badago: hitzaren formak euskal artikulua eskatzen duela, euskarazko hitza oinarritzat *zamar* baita.⁶

Interesgarria da *muga* hitzaren kasua: Academiaen hiztegiak inolako lurralde mugarik eman gabe⁷ euskal mailegutzat jotzen du, harreman ezin ukatua

⁶ Egia da alderantzizko norabidea ez litzatekeela ezinezkoa, hau da, erromantzetik euskarara, onartzen bada euskaldunek oinarria+artikulua berrinterpretatu zutela hitza, baina esplikazio hori bortxatua iruditzen zait. Artzain giroko beste hitz bat daukagu hemen.

⁷ *Autoridades* hiztegiak dioenez “en la Rioja y otras partes” erabiltzen zen, eta handik hartu zuen Larramendik. Euskal mailegu tradizioaletan haxe da azken urteotan erabilera gorakada izan duten bakanetako bat; cf. CREA.

baitu Pirinioaren mendebaldeko eta erdialdeko banaketa duten beste zenbait hitz erromanikorekin: aragoierazko *buega* (Ordinaciones de Barbastro, 1296) *buga* (Echo eta Ansó ibarrak), katalanezko *bòga*. Euskaran, hasierako *m*-dun forma⁸ aldi eta alde orotakoa da, nahiz fonema hori printzipioz ustekabekoa den erroman-tzeetako *b*-ren aldean, /m/-ren berritasunaz arestian esan duguna dela medio. Aldaeren arteko diferentziaren azalbidea agian denak azken buruan zeltazko *mroga, *broga- ('zelaia, eskualdea, muga') baten maileguak izatea izan daiteke, harekin antza baitute ezin ukatua. Kanpotiko hitz beretakotua izateak euskal hitzaren hasierako *m*- hori ez ezik, erroko bokalismoan dagoen diferentzia ere esplikatu lezake: *bōga: *muga.

Hobekien ezagutzen ditugun euskal bilakaera fonetikoaren artean bokal arteko *-n*- baten galera dago. Euskarak latinari hartutako hamaika mailegutun ageri da, hala nola *ahate* (< lat. anate) edo *ohore* (< lat. honore). Horregatik gure zerrendako *cen-dea* hitza, -zeinak Academiaren azken bertsio indardunaren arabera "en Navarra, congregación de varios pueblos que componen un ayuntamiento" esan nahi duen- euskal mailegua da, bokal arteko *-n*-aren galera ageri baitu *centena* latinezko etimoaren aldean. Irizpide hori berori gogoan, beraz, ezin izan liteke *stricto sensu* euskal mailegua gure zerrendako beste hitz bat, *anavia* 'arándano', lehen aldiz Academiaren hiztegian Errioxako jatorria esleitzen diola jasoa (1899) eta XVIII. mendean dokumentatua. Academiako hiztegiaren bertsio indardunak euskarazko *anabia* ematen dio jatorritzat; Corominas-enak, berriz, 'vasco antiguo' zehazten du. Baina, egitez, euskaraz landare horren izenak honako aldaerak ageri ditu: zubereraz *āhābe*, gip., naf. gar. *ābi*, bizk. *āfi*, *arabi*; denak bokal arteko *-n*- galdutakoak. Beste alde batetik, beste hitz erromaniko batzuk aipatzekoak dira arestiko *anavia* Errioxakoaz gain, hala nola gaskoierazko zenbait aldaera (*abayouñ*, *awajoung*, *nayū*), arag. *anayón*, Pallars-en *nābiu*, Ribagorza-n *anbiso*, rusill. *abajó* (cf. Rohlfs 1970, 40, n° 12). Argi antz ematen zaionez, substratuko hitza da, Pirinioen inguruko erromantzeetan banaketa klaroa duena. Euskal herriko toponimian makina bat aldiz izen-bikoteak ikusten ditugu zeinetako batek euskal bilakaera ageri duen eta besteak, berriz, lehengo itxura arkaikoari eusten dion: *Otxandio* / *Ochandiano*⁹. Beraz, itxura guztien arabera, Erdi Aroaren hasieran sudurkari lenea ez zen artean erabat galdu. Pirinioetako hitz baten aurrean geundeke, beraz, euskararena eta euskarak goiz-goizik beretakotua, ondoren bertako latin arruntera pasatu zena. Baina Errioxako aldaerak itxura

⁸ Orobat mugakide diren Echo eta Lanuza ibarretan ere. Corominasek *Mòga* toki izenak gaineratzen ditu, Arán ibarrean ugariak.

⁹ Laudion zubi bat bada *Anuncibay* deitua, euskarazko izen klaroa, gaurko euskarazko itxurara aldatzeko erraza > *Ahuntzibai*, hau da, 'ahuntzen ibaia'. Izenean bokal arteko *-n*-gordeta dago, Erdi Aroko lehen mendeetan euskaraz zuen forma alegia, erromantzezko aldaera idatzi ofizialean gaur arte bere horretan atxikia.

berezia du, beste forma erromanikoetatik aldendua: besteek *anabione edo *abanione bezalako jatorri-hitza batetik eratorriak dirudite. Errioxakoa, ordea, hurbilago dagokie euskarazko aldaerei, denak *anabi batetik eratorriak¹⁰.

3. Hiztegitzako tradizioa

Gure honek bezala euskararen hitz-ekarpena aurreko hiztegi tradizioa abiaburu ikertu nahi duen lan batean, on da gogoan hartzea zer mugarri nagusi izan diren hiztegi horietan jasotzen den iritzi ikasiaren sorbidean. Lehenik, esan dezagun gaztelaniaren Akademiak asko aldatu duela orain gagozkion gaiari buruzko iritzia *Diccionario de Autoridades* XVIII. mendean argitaratu zenetik gaurdaino bitarte. *Autoridades* hiztegia osatu zenean, jarrera eta diskurtso ildo nagusia gaztelaniazko lexikoaren ondaretasun latinoa defendatzen zutenena izaten zen (hau, da, besteren artean Aldrete edo Mayans bezalako iritzia), nahiz beste kultur hizkuntza batzuen ekarpen gogoangarriak ere onartzen ziren, hala nola grekoa edo arabearena. Aurrean edo aurkatzeko aspalde handitik Hispaniako hizkuntza zaharra defendatzen zutenak,¹¹ Tubalek ekarria eta euskararekin identifikatua. Bestela esan: *Autoridades* hiztegiak edan ahala edaten zuen Covarrubias-ean, beste jakintsu batzuen aportazioa alde bat utzita hala nola Poza lizentziatua, Echave, Moret edo Oihenartena. Hain jarrera aihertu hori ez zitzaion batere laketa izan aita Manuel Larramendiri, euskal filologiarako zenbait obra oinarritzoren egilea, zeinen artean gaur dakargun gairako oso aipagarria baita *Diccionario Trilingüe Castellano-Vasco-Latino* (1745). Larramendik 1728an *De la Antigüedad y Universalidad del Bascuence en España* argitaratu zuelarik, aukera izan zuen Akademiarekin zuen desadostasuna erakusteko, nahiz eta bere kritika *Diccionario*aren hitzaurrean xehatu zuen bereziki, *Autoridades* hiztegiko etimologiak banan-banan aztertu eta euskarazkorik bakarrik ere ez zegoela konprobatu ondoren¹². Larramendiren gehiegikeriak gora behera, bistan da haren kritikak peto erretratatzeko duela obra horren buruzpidea. Gauzak horrela, bada, erudito jesuitak bere bost ahalak egin zituen *Diccionario de Autoridades* osoari benetako eta osotarako ordaina emateko, asmamena zorrotz gaztelaniazko ehunka hitzi euskal etimologiak aurkitzeko.

¹⁰ Euskarazko *aran* eta arag. *arañón* hitzen artean arestian ikusi bezalako harreman batean.

¹¹ Beren hipotesiaren indargarri, horiek beti aipatzen zuten autore latinoek helarazi ziguten jatorri hispanikoko hitzen zerrenda: *arrugia*, *cuniculus*, *cusculium*, *lancea*, *gurdus*, *stipa*, etab.

¹² Gure jesuitak gehiegi zioen, zeren *Autoridades* hiztegiko etimologia batean batek bai, euskal jatorria aipatzen baitu, hala nola *azcona* edo *bizarria* hitzetan (Larramendik berak ikusiak) eta *Machín* edo *cenxaya*, gure zerrendakoak. Z letrako sarreraren artean, *Autoridades*ek honako hitz hauek bidaltzen du euskarara, (nahiz ez aukera bakartzat, ez eta lehenetsitatzat ere): *zahurda*, *zanahoria*, *zanca*, *zaragüellas*, *zarza*, *zubia*.

Larramendik erabiltzen duen etimologia modua argiroki “kratilista” da, etimologiak erreferentearen, hau da: errealtateko objektuaren ezaugarriak esplikatu nahi izaten ditu. Gaur egun haren esplikazio etimologikoak fantasiazkoak eta oinarri gabeak iruditzen zaizkigu, baina proposatu ziren garaian, hizkuntzalaritza konparatu zientifikoa eta XIX. mendeko hizkuntzalaritza erromanikoaren printzipio fundatzaileak finkatu baino lehen, etimologiok batere lotsagorritu gabe ibiltzen ziren etimologia “onen” aldean. Sarrera pare bat aski izango dira Andoaingo jesuitaren jokabideari tankera emateko.

Ganso, ave, viene de el Latin Anser, y este de el Bascuence *antzerra*, *antzarra*, y se llama assi, porque tiene en su boca, ò pico unos dientecillos como sierra, y en Bascuence *aoancerra*, quiere dezir sierra en la boca, y de aqui se dixo contrahido *anzarra*, *anzerra*. Lat. Anser

Etimologiok euskararen jatorrizkotasuna defendatzeko erabiltzen zituen eta konbentzigarriagoak izaten ziren azalbidean metafora edo simil bidezko sormen semantikoko prozesuren bat tarte zelarik.

Laya, calidad, grado, condición, como quando se dize, son de una misma laya. Es voz Bascongada, y significa aquel instrumento, bidente, ù hache de hierro con que se labra la tierra, bolviendola en gruesos cespedes de abaxo arriba: y como esta labor se haze de compañía de dos, tres, ò mas hombres, y aun mugeres, de una misma condición, por esso se diò el nombre *laya*, especialmente en Andalucía à las cosas que son de una especie. Laya, llamamos aun hablando Castellano, al instrumento dicho. Lat. Bidens. layar, layador

Gaur egun hitz honetarako onartzen den etimologia ere esplikazio metaforikoa da, nahiz eta gaurkoak portugesezko *laia* hitzera bidaltzen duen, *lã* ‘artilea’ hitzaren aldaera.

Ez dakigu jesuita saiatuaren lanak ondoriorik izan ote zuen *Autoridades* hiztegiaren azken tomoaren idazbidean. Corominas-Pascualek ahotan hartu zuten gaia *zumaya* edo *zumacaya* sarreraz ari zirela, zeren *Autoridades*-ek ematen duen bigarren aldaera hori, itxura batera, jesuitaren lumatik ateratako asmazioa baita.

Autoridades (1739):

Zumaya, o Zumacaya, s. f. Ave nocturna de boca mui grande, que segun Covarr. responde de noche cuando alguno dá voces, y por esso duda si será la que vulgarmente llaman Engaña Pastór. Es especie de lechuza. Lat. *Cicuma*.

Larramendi (1745):

ZUMAYA, basc. zumacaya, ave nocturna, es voz bascongada, y se dixo de zumbacaya, que significa oportuno y capaz de dar chasco, como sucede en esta ave, que por esso llaman también engañapastores.

Autoridades hiztegiak bere ohiko azalbide-ildo nagusia hobetsi eta hemen ere Covarrubiasenera bidaltzen du, baina *zumacaya* aldaera lehenbiziko aldiz sartzen da, zeren hitz hori, Nebrijagandik hasita (*çumaia* : <engaña> pastor, ave, cicuma) beti *zumaya* aldaeran transmititu baita. Corominas-Pascualek argudiatzen dutenez, *zumacaya* aldaerak euskararen bidez azal daitekeen osagai bat ageri

du -gai, -kai + artikulua ‘kapaza, gauza’, Larramendiren esplikazioan agertu dena. Baina Blanca Urgellek (2009)¹³, Larramendiren hizteigintzan espezializatuak, uste du, guztiz bestera, oraingoan ere, beste sarrera guztietan bezala, gure jesuitak *Autoridades*-tik hartu zuela bere hiztegiko sarrera osoa, eta bere asmazio bakarra *zumbacaya* aldaera izan zela.

xix. mende osoan jarrera primitibistak goraldiak eta beheraldiak izan zituen, eta hala joan zen islatuz Academiaren hiztegiak izan zituen edizioetan. Ez dezagun ahaztu anartean Wilhelm von Humboldtek *Sobre los Primitivos pobladores de España* lantxoan argitaratua zuela (1821), eragin ikaragarriarekin, zeinean zeharo aldezen euskara Erroma-aurreko Hispania osoko hizkuntza izan zela.¹⁴ Jakina da Humboldten ildoaren ondotik teoria eusko-iberista etorri zela, zeinaren ustez euskara iberikoaren ondorengo historikoa baita, penintsula iberikoko hainbat eskualdetan alfabeto iberikoan idatzita agertu diren Erroma-aurreko inskripzio indigenetan ageri den hizkuntza horrena, alegia. Ikuspegi horien guztien ondorioz, euskarak eta Erroma-aurreko hizkuntzak toki gehixeago izan zuten gaztelaniazko lexikoaren sorrerari buruzko hipotesietan eta hala islatu zen Academiako hiztegiaren ondoko edizioetan, nahiz eta eginbide kolektibo handiek zor duten gelditasunarekin. Ikus dezagun adibidetzat zer trataera ematen zaizen gure zerrendako bi hitzi, dokumentazioaren zahartasunagatik aipagarriak: *izquierdo* eta *zatico*.

Izquierdo-z, honela zioen *Autoridades*-ek (1734):

IZQUIERDO, DA. adj. Lo que pertenece al lado siniestro.... Covarr. juzga que puede derivarse de la voz Latina *scaevus*, que vale lo mismo que *laevus*, que significa siniestro; aunque se inclina mas à que es nombre Árábigo.

1884ko edizioraino iguriki behar Hiztegiak euskarara bidaltzeko, baina hizkuntza klasikoen erreferentziak kendu gabe, halere: “Del vasco *esquerrá*, análoga al lat. *scaevus* y al gr. *σκαῖός*”, eta definizio bera errepikatzen da 1889ko edizioan. 1914ko edizioan, esaten da “Del mismo origen que *esquerro*” dela (eta sarrera horretan biltzen da 1884ko edizioan *izquierdo*-rako ematen zen etimologia) eta bere horrela iraun zuen 1992ko azken edizioraino. Edizio horretan lehen aldiz aienatzen dira, *esquerro* sarreran, hizkuntza klasikoen erreferentziak, eta laburki esaten da: “del vasco *esquerra*”. Gaur egungo bertsioraino iguriki behar, on line

¹³ Urgellek *zumacaya* hitza ezin Larramendiri egotzi zaiola esaten badu ere, haren ustez Larramendik izango zuen, izan, zerbait eragin *Autoridades* hiztegiko azken tomoaren moldakuntzan, Z letrako zenbait sarrerek euskal etimologiak aipatzen baitituzte, nahiz eta ez Larramendirenak, Oihenartenak baizik.

¹⁴ Zelten presentzia ukatu gabe, ordea, zeinen existentzia Zeltiberian toki-izenen eta giza-izenen bidez finkatu zuen, nahiz eta zehaztapen hori askotan ahaztuta gelditzen den haren lana baloratzerakoan.

kontsulta daitekeena, *izquierdo* sarreran zuzenean irakurri ahal izateko hitza euskal mailegua dela: “del eusk. ezkerra, izquierda.”

Autoridades-ek (1739) honela dio *zatico*, *zatiquero* eta *zato* sarreretan:

ZATICO ò ZATILLO. El zato pequeño. Lat. *panis frustulum*. COVARR. en la voz *Laceria*. Llamamos comunmente lacerado al avariento, que teniendo con que poderse tratar bien, anda roto, y mal vestido, y lo que ha de gastar para sí, ò para otro, lo despedaza, y desmenuza, haciendolo *zaticos*.

ZATIQUERO. Oficio que habia en Palacio, cuyo cargo era cuidar del pan, y alzar las mesas. Lat. *Panis colector*. RECOP. lib. 2 tit. 15 l. 10 Quando Nos hicieremos à alguno nuestro Cocinero mayor, ò *Zatiquéro*, ò Caballerizo, ò Aposentadór, ò Cebadéro, dé por la carta al sello ciento y veinte mrs.

ZATO. El pedazo, ò mendrugo de pan. El P. Guadix dice es nombre Arábigo del verbo *Zadaq*, que vale mendigar, y otros dicen que viene del Hebreo *Catòn*, que significa poco. Lat. *Panis frustum*.

Hiztegi horretan espero izatekoa zenez, etimologiak Covarrubiasek *zatico*-rako duen iritzia hartzen du oinarri, zeinak modu gutxi konbentzigarrian latinari esleitzen dion, edo aita Guadixek *zato*-rako zuena, zeinak arabierari esleitzen dion. Gainerakoan ez du hitz bien arteko loturarik aipatzen. 1817ko edizioraino *Academiak* beren hartan uzten ditu hiru sarrerak, *Autoridades*-en bezala. 1817koan bi sarreretara murrizten ditu, *zatiquero* kenduta, baina haren esangura *zatico*, *-illo*-ri emanda. Honela gelditzen da, beraz:

ZATICO, LLO. El que antiguamente tenia en palacio el cargo de cuidar el pan y alzar las mesas. Panis colector.

ZATO. El pedazo o mendrugo de pan. Panis frustum.

Sarrerok ez ziren 1992ko edizioan aldatu, orduan *zato* ‘mendrugo’ sarrera desagertzen baita, azeptzio hori *zatico* sarrean bilduta, eta berriz sartzen da *zatiquero* hitza, nahiz eta lehengo lardaska zuzendu gabe utzirik, hau da, *zatiquero*-ren esangura *zatico*-ri esleitzea, 1817az geroztik iraun zuena. Azken edizioko eduki berria da, ordea, lehenbiziko aldiz hitzaren euskal etimologia ematea: “del vasco *zati*, pedazo”.

Interesgarria da ikustea zer aldaketa izan den *Academiaren* hiztegi sarreretan *aurragado* bezalako hitz gutxi erabili baten jatorriari buruz. *Autoridades*-ek dioenez (1726):

AURRAGADO, DA. adj. Embarazado, amontonado, lleno de tierra. Voz rústica, y que solo se dice de los barbechos quando por no saber bien su oficio el labradór no separa como se debe un surco de otro. Lat. Arva male & tumultuariè exarata.

1914erainoko edizio guztietan, 1914ekoan ere bai, honako azalbide eskasa aurkitzen dugu: “aplicase a las tierras mal labradas”. 1925ekora arte ez zuen *Academiak* zerbait esan haren jatorriaz: “(del vasc. *aurraca*, a empujones, de prisa). Aplicase a la tierra mal labrada”, eta halaxe iraun du, azal-gordeka, 1992ko

azken edizioraino¹⁵. Baina nondik heldu da etimologia hori? Larramendiren asmazio ugarietako bat da. Honela azaltzen du hitza *Diccionario Trilingüe*-n *Autoridades* hiztegitik kopiatuta:

Aurragado, barbecho de prissa, y mal arado, viene de Bascuence *aurraca*, *aurreraca*, à empujones, à saltos, con prissa. *Gaizqui goldeatua, presaca landua*. Lat. Tumultuariè exaratum

Corominasek, bere hiztegiaren lehen edizioan, gaitzetsi egiten du Academiak proposatutako euskal jatorria, ez baitu inon aurkitzen hitzaren testigantzarik euskal hiztegi batean (“falta esta voz en los diccs. vascos de Azkue, Aizkibel, Lz. de Mendizabal, Manterola y Larrasquet”), baina ez da konturatzen etimologiaren iturria Larramendiren hiztegi dela.

Agian *burga* hitzaren kasuak ilustratzen du argiroenik nola Larramendik batzuetan hil-ondoko garaipena izan zuen *Autoridades* hiztegiaren moldatzaile eta haren etsai tematuen kontra. *Autoridades* hiztegiak honela zioen:

Manantial de agua caliente; y así se llaman en Orense, ..., unas fuentes que brotan, la una hirviendo en sumo grado; ... Dióseles este nombre por el sonido que hace el agua cuando mana.

Hiztegiak, beraz, esplikazio onomatopeikoa ematen du. 1822 eta 1843ko hurrengo edizioetan, berriz, desagertu ziren etimologiazko azalpenak oro eta 1884ekora arte ez dugu irakurtzen hitzaren jatorria “celt. *berw* ‘caliente, termal’” dela¹⁶. Handik hogeita hamar urtera, berriz, Academia iritziz aldatu eta berriro irauli zen euskal etimologia baten aldera: “Tal vez del vasc. *bero-ur-ga*, lugar de aguas calientes”. Halako euskal hitzik ez da behin ere agertu ez euskal literaturan ez hiztegietan, non ez den, hain zuzen, Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-n, *burga* sarreran, izan ere.

Burga, manantial de agua caliente, voz Bascongada, sincope de *berourga*, que significa sitio de agua caliente. *Burga*. Lat. *Thermae*, fontes calidi.

Bista-bistan da, beraz, hitza Larramendiren asmazio eruditoa dela, eskas askoa, gainera, euskal hitzak eratzeko arauetara dagokienez, ez baitu begiratzen euskararen nahitaezko izena + izenondoa hurrenkera, *Urberuaga* (ur + bero + aga) benetako euskal toki-izenean argi antz ematen zaionez. Hala guztiz, Academiak gaurdaino eutsi dio iritzari.

Beste batzuetan lausoxeago hautematen dugu Larramendiren eragina Academiaren hiztegiko sarreretan. Horren adibide, hor dugu *mozcorra* ‘prostituta’. Dicc. Aut. zaharrak (1734) ez zuen etimologiarik ematen, definizio hutsa soila baizik: “mozuela perdida y expuesta. Es voz baxa. Lat. *Puella prostituta*”.

¹⁵ Oraindik indarrean da on lineko bertsio berriaren idazkuntzan.

¹⁶ Egitez galesezko *berw* ‘irakin, egosi’ hitza da, galozko *Borvo*-rekin lotua, erro indoeuropar ezagun batekoa.

1899ko ediziora arte iguriki eta horra non irakurtzen dugun hitzaren jatorria orduko moldatzaileen ustez arabierazko *maxgora* ‘abierto de piernas’ dela, eta halaxe berrargitaratu zen 1947ko edizioraino. Urte batzuk etimologiazko azalbiderik gabe igaro eta 1992ko edizioan ikusten dugu Akademiak euskal etorkia hobesten duela: “Del vasco *mozcor*, muchacha tetuda”. Kasu honetan, etimologia azken-azken buruan Larramendirena bada ere, nahitaez Corominas bitarte egin da bidea (1954), honek honela baitio bere *mozcorra* sarreran:

Mozcorra, ‘muchacha perdida, ramera’, del vasco *mozkor* ‘rechoncho, corpulento’, ‘muchacha tetona’, derivado del verbo *moztu* ‘podar, pelar’.

Academiari egokiago iruditu zaio ‘muchacha tetona’ gabe ‘muchacha tetuda’ jartzea, baina horrek ez du haren iturria ezkututzen, Corominasen hiztegia alegia. Euskaraz *mozkor* hitzak duen esangura ‘hordia’ da, nahiz eta, OEH-ak dioenez, XIX. mendea baino lehenagoko testigantzarik ez dugun; badirudi, beraz, esapide metaforikoa dela, hitzak duen esangura murrizagotik iradokia (‘motza eta xapala’, ‘enborra’, ‘adarmotza’). Esangura hori da, hain zuzen, *motz* ‘labur’ eta *moztu* ‘ebaki’ hitzen eratorri bati egoki zaiona, eta hura erabili zuen Larramendik bere hiztegian erdarazko *mozcorra* euskaran oinarri harturik esplikatzeko:

es voz Bascongada, y significa facil de pelarse, como sucede a estas malas hembras.

Ez da kasu bakarra. Erraz da adibide gehiago aurkitzen zeinetan azkenerako Larramendiren proposamenak, osorik nahiz partez, onartu ziren Akademiaren hiztegian. Hitz horien artean, *cencerro*, *charro*, *chistera*, arestian aipatu *mochil*, *mogote* edo *narria* aipa ditzakegu. Haietatik *chistera* ‘cestilla’, ‘sombbrero de copa’ bigarren mailako euskal mailegua da, gaskoi jatorriko hitza baita, latin arruntezko *cistella-tik eratorria, bokal arteko *-ll-*aren trataerak (*-ll-* > *-r-*) salatzzen duenez; handik euskarara pasatu zen, iparraldeko euskalkietan barrena, eta handik gaztelaniara. Larramendiri zor diogu *charro*, *-a-ren*¹⁷ esplikazioa; honela definitzen du: “aldeano, aldeana, son voces Bascongadas, y significan cosa ruin, y despreciable”, euskarazko *txar* oinarri duela, eta bai *narria* ‘rastra’ ere, haren ustez “del bascuence *narrá*, que significa la rastra cuadrada”. Euskal hitz horrek *nar* erroa dauka, *nar ibili* ‘arrastaka ibili’, *narraz* ‘arrastaka’ eta antzeko esapide euskaraz maiz aditzen direnetan aurkitzen duguna.

Academiak oraindik ez du *bruces* euskal mailegutzat onartu; haren ustez hitz hori *buces*-en aldaera da:

Aut. 1726: BRUCES o BRUZAS. s.m. Los labios: y con propiedad los de arriba. ... y significan inclinado boca abaxo. ... Vienen de Boca, ù de bezo, por cuya razon algunos dicen también de buces”.

¹⁷ *Autoridadesek* (1729) honela definitzen zuen: “La persona poco culta, nada pulida, criada en Lugar de poca policía. En la Corte, y en otras partes dan este nombre à qualquier persona de Aldéa”, Campo de Salamancako jendea berariaz aipatzen ez duela.

Larramendik, berriz, euskararen bidezko esplikazioa ematen digu:

Bruces, ò bruzas, la postura de echarse cabeza abaxo, viene de el Bascuence *buruz*, sincopado en *bruz*, y significa de cabeza. *Auzpez*, *aopez*, *musturica*. Lat. prono ore.

Eta bai Tovarrek (1959, 117-126) azalbidea partez behintzat bereganatu ere, onartzen duelarik *de buces* esapidea euskarazko *buruz* (sinkopaturik *bruz*) aditzondoarekin gurutzatu edo kutsatu zela; horrek bide ematen zion lehen silabako *-r-* hori azaltzeko eta bai bukaerako *-ces* hori ere (ikus, halaber, *Lapesa* 1980, 54).

Batzuetan Larramendiren asmamenari zor dioguna ez da etimologia jakin bat, baizik eta azalbidearen ildo, zenbait hitz esplikatzen. Bistan da *chaparro* bezalako hitz baten azalbidea ezin dela defendatu:

Chaparra, chaparro, viene de el Bascuence *achaparra*, que significa la garra de la mano, y la chaparra estiende sus rama cortas à manera de garras. *Abarrá*. Lat. ilex, cis.

Baina Larramendiren azalbideak oinarrian daukan ideia metaforikoa Corominasek beretu zuen beste hitz bat, *garrapata*, esplikatzen.

4. Proposamen berriak

Orain, hitz zahar bat hartu nahi nuke ahotan, zerrendan jaso gabea, aurreko bibliografian behin ere euskal mailegutzat hartu ez delako: *andosco* “dicho de una res de ganado menor: Que tiene más de uno o dos años”, Academiaren hiztegiak definitzen duenez. Corominas-Pascualen hiztegiko sarrerak, berriz, honela dio:

Andosco, *-ca*, ‘(res de ganado menor) que tiene dos años’, origen incierto, probablemente del ár. *núšqa* ‘lazo’, ‘argolla’ y luego ‘oveja sujeta con una argolla’, de donde en castellano **annosca* y por disimilación *andosca*. 1ª doc: h. 1280, *Gral. Estoria* I, 567a10, donde *ovejas andoscas* equivale a *ovejas añales*.

Hiztegiek¹⁸ aipatzen duten adin zehaztasuna, bi urtekoa izatea alegia, *Gral. Estoria*-tik hartua da (Corominasek aipatua), eta bai Alfonso de Toledoren (1453-1467) *Inventionario*-tik ere:

e segun su calidad, los berrendos de los que eran de un color solo: e segun su hedat, conviene a saber, los borregos de los carneros & los primales de los andoscas / E conoçio los tiempos quando era mejor echar los machos a las fembras

Iturrietan aurkitzen dugun zehaztaper semantiko horrek zuzenean eraman ditu espezialistak zuzen onez pentsatzera hitzaren etimologiak nondik edo handik latinezko *annus*-en eratorri batera bidali behar zuela, **annuculus*, adibidez, gaztelaniaz *añojo* sortzen duena; Academiaren hiztegiak **annoticus* proposatzen du. Corominas, halere, ohart da fonetikaz zail dela gure hitza aurreko

¹⁸ Aurrena *Autoridades* hiztegiak (1770), honela dioela: “que se aplica a la res lanar que tiene dos años”.

forma horretatik eratortzen eta aiher da, azken buruan, arestian aipatu arabierazko etimologia hobestera. Aurrera baino lehen, zerbait zehaztu behar da hitzaren goizeneko dokumentazioaren ganean, ez baita *Gral. Estoria* (c. 1275), Corominasek (1954) dioenaz bestera, baizik eta San Millán de la Cogollako monasterioko dokumentu bat, c. 1025 datatua, Arabako herri askok monasterioari egiten zizkioten burdin ekarpenak biltzen dituen (hortik ematen zaion izena: “Reja de San Millán”). Herri gehienek golde-nabarrak emanaz berdintzen zuten zorra, baina batzuek, berriz, horren orde “andosco” bana emanaz. Euskal Herriko dokumentazio hori gogoan, hitzak agian euskara bidezko esplikazio onargarriren bat izan lezake¹⁹; honela zati genitzake haren osagaiak: *an- erro bat, *ahuntz* eta *ahari* hitzetan aurkitzen duguna, eta ondoren, bigarren zatiki gisa, *-dots- osagai bat zenbait animalien izenetan aurkitzen duguna, hala nola *bildots* eta *ordots*, gehi -ko atzizki txikigarri ezaguna, euskal hitzak osatzeko eta bai giza izenak osatzeko ere Erdi Aroan ausarki erabili zena: *axerko*, *otxoko*. Ene irudiko, -dots- osagai horrek ‘arra’ balioa eranstean zien hitz guztioi, nahiz eta haietako batzuetan lausotuxea dagoen.²⁰ Nolanahi ere, *abere gazte* esangura -ko²¹ atzizkiak ematen dio, zeina gaztelaniazko lexikora igaro diren beste zenbait animali izenetan ere aurkitzen dugun, hala nola gure zerrendako *irasco* hori. Atzizkiaren eragina formazio mistoetan ere hautematen da, erro erromanikoak oinarri eginak, hala nola *ternasco* ‘cordero que aún no ha pastado’.

Proposamen berrien atal honi bukaera emateko, etimologia berri bat aipatu nahi nuke, literatura ikasian txit maiz ahotan eta auzitan hartu den Erroma-aurreko hitz bat azaltzeko: *perro*. Gauza jakina da animalia hori izendatzeko latin ondareko hitza *can* dela, zeinak forma femininorik ez izateak errazagotu omen zuen hitz berria *perra* femeninoaren bidez sartzea²². Hitzari etorki iberikoa proposatzen zioten etimologiak arrazoi fonologikoak zirela medio arbuia ziren, Erroma-aurreko hizkuntza horrek, euskarak bezalaxe (eta zeltiberikoak bezalaxe,

¹⁹ Corominas-Pascualek, Reja de San Millánek dokumentazioa aipatu ondoren, euskal etimologiaren bat ote duen galdetzen dute, *antxu*-rekin lotua ote den iradokiz.

²⁰ Adibidez *bildots*-en kasuan, zeinak ume koxkortua adierazten duen *arkume* hitzaren aldean, horrek esne-umea adierazten baitu (Gorrochategui & Lakarra, 1996, 120-2).

²¹ Terrerosentzat andoscoa hiru urteko zikiroa da, Corominasek dioenez.

²² Interesgarria da R. Menéndez Pidalek transmititzen duen informazioa (2005, 586): “La palabra prerromana *perro* fue acogida en el s. XIII por textos literarios, sobre todo del Sur, como el *Fuero de Madrid* o los *Anales Toledanos*, pero las obras alfonsíes la evitan, echando mano solo de su femenino o diminutivo, derivados a que no se prestaba la voz literaria *can*, pero aun el femenino *perra* no era grato al lenguaje más distinguido, cuando hacia 1270 la hija de Alfonso el Sabio, la infanta Berenguela, propuesta para casamiento con el Gran Can de Tartaria, respondió indignada: “al Gran Can que le diesen gran cadiella”. Ahora los mejores estilistas, don Juan Manuel y el arcipreste de Hita, no dificultan en escribir corrientemente *perro* al lado de *can*”.

ez dezagun ahaztu) ez baitzeukan /p/rik. Corominas aiherr da, emandako iritzien birpasa kritiko luzea egin ondoren, jatorri onomatopeikoa proposatzera. Oztopo hori garbiki ekiditen du orain aurkeztzen dudana euskal etimologiak²³: *eperr-hor, hau da, ‘eperretara joateko zakurra’;²⁴ ondoren hasierako bokal atonoaren aferesia izan delarik, *Turza* (Rioja) toki-izenean gertatzen den moduan, (<*itúrr(i)-za). Hitz honetan, hitz elkartuko lehen osagaiak, *eper* alegia, azken buruan latinezko *perdris*-en mailegu zaharra behar du; bigarrena, berriz, *hor*, euskal ondareko hitza da ‘zakur’ esateko. Fonetikaz ez legoke oztoporik. Oztopo handiagoa da, aitor dezagun, lehen dokumentuetan hitzak duen konnotazio zakar argia, ez baitagokio ongi ehiza zakurra edo arrazako zakurra izendatzeko hitz bati, eta bai hitza Toledon dokumentatzea ere eta beste zenbait: hori dena, ordea, hitza bereganatzeko inguruabarren kontu izan liteke.

5. Maileguak eta haien kronologia

Aurreko lerroetan, betaz aurkeztu dut zer zailtasun ageri dituzten euskarak gaztelaniari egindako mailegu gehienek, batez ere ilunpeak hartuak dituelako euskararen jatorria eta Erroma-aurreko beste hizkuntzekiko harremana. Interesgarria iruditu zait, bestalde, gaingiroki errepasatzea zenbait euskal etimologia onartu izana esplikatzen duten hiztegiak joera eta beste zenbait esplikatzen izandako harat-honatak. Gelditzen zaidan denboran, eginahalean osotara aurkeztuko dut euskarak gaztelaniari egindako hitz ekarpen osoa, bi aurkezpen ardatz aintzat harturik: maileguen kronologia eta haien arlo semantikoa. Hori helburu, lanaren Bukaerako Eranskinean ematen dudana zerrendaz baliatuko naiz. Berriz esan behar dut zerrendan jasotzen diren hitz guztiak ez direla euskal maileguak. Haietako batzuk kritikatuak ditut aurreko lerroetan, hala nola *aurragado*, *burga* edo *vega*. Zerrendako beste asko ere ez nituzke nik halakotzat joko, ez behintzat orain arte eman izan zaien azalbidean; haien artean *arrabio*, *artesa*, *balsa*, *cazorro*, *chamorro*, *ganzúa*, *gueldo*, *igüedo*, *mogote*, *muñeca*. Duda egiten ere dut euskal mailegutzat hartu izan diren beste bi hitz, *cencerro* eta *pizarra*, hala ote diren, ez eta *boina*²⁵ ere, nahiz Euskal Herrian erabilera arruntekoak diren, ez, ordea, euskaldunen artean, (*t*)*xapel(a)* besterik ez baitute erabiltzen. Erdarazko *silo* eta euskarazko *zulo* (*zilo*, Erronkari-Zuberoetan baizik ez) hitzen arteko harremana ez zait iruditzen Corominasi bezain begi-bistakoa,

²³ J. A. Lakarra lankideak eman zidan aditzera, hark ere lehenago H. Knörrri adituta, harena edo besteri hartua den ez dakigula.

²⁴ Silvain Pouvreaux bere hiztegian (xvii. mendea) ‘chien pour la perdrix’ esateko *eperketako ora*, *eper ihiziko ora* aipatzen ditu.

²⁵ Fco. Oroz Arizcurenak *bovina oinarri esplikatzen du *boina* hitza.

hark proposatzen duen etimoak –zelta *silon ‘hazia’– euskaraz *ziro-²⁶ emango baitzuen.

Euskal mailegu zaharrenen (*izquierdo*, kasu) eta berrien (*lehendakari*) arteko kronologian saio moduan bada ere aurrera bide zerbait egiteko, M^a T. Echeniquek eskatzen zuen bezala, periodizazio laxo xamarra finka dezakegu maileguok lau aldi handitan banatuz, testuen irizpidearen arabera: a) zaharrenak, Erdi Arokoak eta xvi. mendeakoak; b) xvii.-xviii. mendeetakoak eta xix.aren erdirainokoak; c) modernoak, xix. mendetik gerra zibilerainokoak; d) gaur egungoak.

A) Zaharrenen artean bereziki aipagarriak zaizkit ohore deiziotzat edo pertsona baten *praenomentzat* erabili zirenak; adibiderik ezagunena Minaya Alvar Fáñez da, Cid-en eskuordea, zeinean *Minaya*-k (< mi anaya ‘nire anaia’) euskarazko *anaia*-ra bidaltzen baitu. Erabilera hori Menéndez Pidalek aztertu zuen bere lan bide-urratzaileetan: horrela, honako forma hauek bezalakoak dokumentatzen dira *acha*, *echa*, *andra* (*aita*, *andere* oinarri dutenak). Titulu eta ofizioen arloan beste mailegu zahar bat ere aipatu behar da, erabilera galdutakoa: *çatiquero*, gaztelaniazko hitz eratorria, ofizio izenetan espezializatu den –*ero* atzizkia euskarazko *zati* hitzari erantsita, *zati* > ‘ogi-zati’ murrizte semantikoa izan delarik. Hitz hau, jadaneko Berceo-n aurkitzen duguna, arrunt maiz erabiltzen zen bestorduko hizkuntzan, eta hainbat errefracutan jasota gelditu da:

Proverbio chico, que el romero fito sienpre saca çatico (Arcipreste de Hita); Del pan de mi compadre, buen çatico a mi ahijado (Gaspar Gómez de Toledo, 1536); Más me quería un çatico de pan, que no tu saludar (Francisco de Salinas, 1577)

Galduda ‘galdua’ hitza ere errefracutan jasotzeari zor diogu, honako hauetan dokumentatua:

Sardina que gato lieua galduda va (Marqués de Santillana, 1454; Juan de Valdés 1535; Pedro Vallés 1549); Morcilla / que gato lleua: galduda va (Pedro Vallés 1549)

Erdarazko hitza, izenondotzat ulertua, egitez euskarazko adizki jokatur da: *galdu da* edo *galdu doa* (TAV, 168). Atsotitzeko zatia izatera iritsi gabe, *a la boruca* esapidea, Alfonso X.ak *Estoria de España II*-an dokumentatua,²⁷ badirudi testigantza bakar horrek iradoki baino zabalduagoko erabilera izan zuela.²⁸ Corominas-Pascualek testigantza txit baliosoa aurkezten dute esapidea

²⁶ Mitxelenak (FHV § 3.3) kasu batzuk aipatzen ditu zeinetan mendebaldeko aldaeretan /u/ dagoen eta ekialdekoetan /i/, hala nola *mutil* : erronk.-zub. *mít(h)il*, *zubi* : erronk. *zíbi*, jatorrizko formak /u/ duela iradokiz. Baina kontrako adibideak ere badaude.

²⁷ «Mas la Jnffant como era muy buena duenna & muy esforçada trauó dél a la boruca & diol una grand tirada contra si».

²⁸ Corominasek uste du beste pasarte batzuetan esapidea kendu eta besteren bat sartu dela haren ordez, *lectio faciliior* bidez berrinterpretatuta.

euskaratikoa dela frogatzeko: *Rithmi de Hispalensi Urbi*, Sahagúngo abade Pérez de la Calzadarena (XIII. mendea), (*Bascones et Navarri per capillos búrucant ... / inmmunes a búruca sint capilli mei*), non, euskaldunak zuzenean aipatzeaz gain, hitzaren esangura burura mugaturik dagoen. Berceo da dudarik gabe euskal mailegu zahar gehien eman dizkigun autorea. Aipatuak ditugu *zatico*, *bildur* eta *azconas*. Beste hitz bat ere aurkitzen dugu haren lanetan, horiek baino problematsuagoa baina, Corominasek dioenez, segur aski euskaratikoa izan litekeena: *socarrar* ‘quemar, incendiar’²⁹. Luze joan da eztabaida *izquierdo*-ren jatorriaz (zaharragoko aldaerak *esquero*, *Exquero* izen propio gisa), Hispaniako erromantze guztietan ahaideak dituen hitza. Tovarrek (1959, 26 eta ond.) *esk(u)-erdi ‘media mano’ oinarri harturik esplikatzen zuen, nahiz eta azalbide horrek *esku* eta *ezker* hitzetako txistukari diferenteak eta bukaerako silaba galera oztupo dituen. Onartzen badugu hondarrean hizkuntzazko tabu bat daukagula hemen, *ez(e)-ger ‘ez txarra’ forma bat proposa liteke (Gorrochategui & Lakarra 1996, 129). Hortaz, ikusirik hitzak euskaran erabilera orokorra izan duela eta duela eta euskararen barnean pasamoduko etimologia duela, euskal mailegu zahartzat eman genezake. Abeltzaintza, nekazaritza edo garraioaren inguruko beste hitz sortatxo bat badugu, euskal mailegu seguruz edo segur askikoz osatua: artzaintzaren ingurukoak dira aipagarrienak, hala nola *mochil* edo *motil* (artzain mutila) eta haren janzkien ingurukoak, *zamarra*. Dudarik gabe orduko edozein euskaldun nekazariren janzkietan abarkak egoten ziren (*abarcas*) eta bai azkona ere, beti aldean, (*azcona*), nahiz eta hitz horren euskal etimologia nahi genukeen bezain bistakoa ez den. Azkenik, garraibide batzuen izenak: *gabarra*, Garona eta Bordele inguruko eskualdean aspalditik erabilia eta handik lehenbizi Euskal Herrira etorri (*Hondarribiko ordenantzak*, 1481ekoak), eta euskarara sartua (1680ko karta batean, cf. Sarasola 1983, 136). Ondoren, euskaratik gaztelaniara pasatu zen; *narría*, lehen ere euskal mailegutzat ikusi duguna, eta *leme*, latinetiko mailegu zaharra euskaran, hizkuntza horretan eman baita *t->l-* bilakaera. Azkenik, aipa dezagun *cendea* hitza, Nafarroako erromantzeraz mugatua eta Academiaren hiztegiak 1780an bildua baina Nafarroako dokumentuetan 1402tik dokumentatua.

B) Handik aurrerako mendeetan euskarak segitu zuen gaztelaniari zenbait hitz ematen. Haietako batzuk aurreragotik hartuak izan litezke baina ez dira berandurago arte dokumentatzen, hala nola, segur aski, *aquelarre*, zeinaren lehen dokumentazioa Moratínena baita (1828), nahiz eta hitza Fr. Juan de Luzuriagaren liburu batean agertzen den (Mexico 1686) *Aquer Larre* gisa: esanguraz, hitzak hasieran sorgin-bileren tokia adierazten zuen eta ondoren bilerak berak adieraztera pasatu zen (TAV, 165-7). Garai honetan beste mailegu bat dokumentatzen dugu: *machín* ‘hombre rústico’ (Academiaren hiztegiak dioenez), zeinaren arrazoia *Autoridades* hiztegiak ongi esplikatzen digun:

²⁹ «Socarraba los burgos e las villas cabdales».

Voz Vasquience, que vale lo mismo que Martin: y se aplica en Vizcaya à todo hombre rústico y mozo del trabajo, y con especialidad à los mozos de las herrerías: por cuya alusion los Poetas Castellanos suele llamar à Cupido el Dios Machin, por haber nacido en la herrería de Vulcano

Machin da Martin pertsona izenari euskarak eman dion forma, euskal sabaikaritze adierazkorra baitu, eta jende xehearen artean asko erabiltzen zen. Hortik ‘hombre rústico’ azeptzioa baina bai, halaber, Siglo de Oroko literaturan hitzari ematen zaion esangura metaforikoa ere, Cupido jainkoa aipatzeko (“Pikóle el dios Machín. Dízese del ke se enamoró”, Gonzalo Correas 1627). Ez da ahaztu behar Euskal Herria, Bizkaia bereziki, burdin ekoizle handia zela XVII. eta XVIII. mendeetan, eta jende askok ola-lana zuela bizibide. Euskal Herriko hizkeran oletako langile hauek –matxin– *matxinada* hitzari eman zioten sorrera, ‘jazarpen, nahasmendu’ esangura orokorragoa duela, euskaran XVIII. mendetik testigatua.

Mailegu berri gutxi dokumentatzen dira mende hauetan; *muga*³⁰ eta *chistera* (hau jatorriz gaskoierakoa) bezalako mailegu argiak alde bat utzita; agian *charro* ere konta genezake, Larramendik aspaldi proposatu eta Corominasek onartu zuenez. Kontra du haren dokumentazio zaharrena portugesez aurkitzen dela eta bereziki maiz Duero behean, baina mendebaldeko gaskoieran ere aurkitzen dizkiogu paraleloak eta beraz ezin erabat uka liteke euskararen esku-hartzea. Hartara, mailegua dokumentazioak iradoki baino zaharragoa litzateke.

C) Gure zerrendako mailegu kopuru handiena, gaztelanian lehen aldiz XIX. mendetik aurrera testigatzen diren hitzena da. Horren arrazoia da dokumentazio eskuragarria franko ugaltzen dela garai horretan, lexikoak eta hiztegiak batik bat. Mailegu horietatik asko erabilera lokaleko hitzak dira, euskal probintzietara edo ingurukoetara mugatuak; hitz horiek, bestela esan, berriki erdaldundutako eremuetan euskara egon izanaren ondorio argia dira. Beste alde batetik, maileguetan naiz gertatzen denez, haien iraupena ez da beti-batekoa izaten, batzuk aienakorrak baitira guztiz eta beste batzuk, berriz, hizkuntzan erro egin eta orokortasun gogoangarria hartzen baitute. Lehenbizikoen artean, hor ditugu *atorra*, *laya* edo *sarde*, nekazari giroko hitzak, gaur egun erabat erabiltzetik geldituak (euskaraz ez, ordea). Beste batzuk, berriz, erabat orokortuak ikusten ditugu, inolako kutsu lokal edo folklorikorik ez dutela. Aipa ditzagun horien artean *angula*, *chabola*, *chatarra*, *chupinazo*, *eusquera*, *guiri* ‘atzerritarra’ eta *órdago*. *Boina* gehituko nuke, lehen esandako erresalbuekin. Beste batzuk, normalak izanda ere, kutsu lokalagokoak dira edo alderdi kultural edo folkloriko zenbaiten ingurukoak: *chapela*, *pelotari*, *zorrico*. Orain arte aipatu

³⁰ Badirudi Frantzia eta Espaniako erreinuen arteko muga politikoa geroz eta hertsia gotzeak aisatu zuela hitza zabaltzea eta bai kontrabandistaren ofizioa ere harekin batera.

beste mailegu askotan ikusi dugunez, hauetan ere hitz guztiak ez dira jatorriz euskarazkoak, baina gaztelaniak Euskal Herritik hartu ditu. *Chabola*-k azken buruan frantses zaharreko *jaole* ‘kaiola, kartzela’ du jatorri, euskarak *(t)xaola* (gip.) gisa hartua, eta ondoren bai *txabola* bai *xola* bilakatua. Baliteke hitz hau euskal ondareko *etxola* (< etxe + ola)-rekin gurutzatu izana, formaz zein esanguraz hurbil baitabilkio. Orobat gertatzen da *tupín*-ekin, ‘hiru oineko pertza’ esangurarekin Nafarroan baizik erabiltzen ez den hitza, okzitanierazko *topin* batetik hartua (hura ere aleman zaharreko *topphin* ‘dupfen’ batetik mailegatua). Hitza okzitanieratik iparraldeko euskarara pasatu zen, han jadaneko Oihenart-en testigatzen baita, eta ondoren euskalki guztietara zabaldu: *tupin* ‘pertza’. Larramendik *txupin* aldaera sabaikaritu ere biltzen du, euskaraz eskuarki txikigarrietan izaten denez: “Morterede de mano, que se dispara en las fiestas”. Gaztelaniak *chupín* horretatik *chupinazo* hitza idaroki du txapligu baten eztanda adierazteko. *Guiri*-k ere jatorri ezaguna du. *Giristino* euskal hitzaren aldaera moztua da. Hitza euskaldun karlistek erabiltzen zuten *cristinos* direlakoak izendatzeko, nahiz eta ‘kristau’ esateko ere hitz normala den. Euskara bitarteko izan dela antz emateko aski da ikustea nola hasiera-silabako kontsonante taldea euskararen baldintza fonotaktikoen arabera moldatu den: *kri*-> *giri*-. Esangurari dagokionez, ‘soldadu kristino’-tik ‘arrotz, kanpotar’-era izan zen bilakaera, eta gaurko erdaran ‘persona extranjera, desconocedora de nuestras costumbres’.

Erabat euskarazkoak dira, aldiz, gaztelanian erabilera zabala hartu duten bi hitz: *chatarra* ‘hierro viejo’ edo ‘escoria del mineral’ Bilbo inguruko eskualdean erabiltzen zen XIX. mendean; euskarazko *zatarra(a)* ‘trapu zikina’ ‘hondakina’ du jatorri. Beste alde batetik, *órdago*, mus jokoko hitz tekniko, *(h)or dago* euskal esaldia da, hitz bakar bihurtua. Hori gogoan, ba liteke, agian, joko beraren inguruko beste hitz bat, *amarraco* ‘amarrekua’ ere euskal mailegua izatea, nahiz eta, Corominasek esaten duen bezala, oztopo semantikoren bat badagoen. Azkenik, *angula*-k ez du esplikazio onik; *anguila*-rekiko lotura bistakoa da (euskaraz *aingira*), baina dokumentazioa beranduagokoa da. Dena den, badirudi hitza Euskal Herritik zabaldu dela.

Maileguok zer arlo semantikotan kontzentratu diren begiratzen badugu, ikusiko dugu haietako asko landaretzaren eta terrenoaren ingurukoak izan direla: *agin* ‘idem’, *anabia* ‘ahabia’, *aran* ‘basarana’, *astabán* ‘lekugia’, *azcarrio* eta *escarrio* ‘astigarra’, *gardubera* ‘kardabera’, *larra* ‘larrea’, *lastón* ‘lastodun landarea’, *lurte* ‘idem’, *sagardúa* ‘sagardoa’, *sagarmín* ‘idem’. Animalia eta arrain izenetan, hor ditugu *angula*, *irasco* ‘akerra’, *lasún* ‘lazuna, korrokoia’. Pertsonen inguruko izenak: *agote*, *aña* ‘inudea, haurtzaina’, *cenzaya* ‘haurtzaina’, *guiri*, *jorguín* ‘sorgina’, *orzaya* ‘haurtzaina’, *pelotari*, *sinsorgo* ‘ganoragabea’. Jantzien artean: *atorra* ‘azpiko gona’, *boina*, *chapela*. Etxearen eta tresnen inguruko mailegu gehienek nekazari girokoak dirudite: *cartolas*, *laya*, *sabaya* ‘ganbara’, *sarde* ‘idem’, *tupín* ‘lapikoa’. Azkenik, beste hitz batzuk euskaldunek maite zituzten joko edo dantzen ingurukoak dira: *amarreco*, *órdago*, *zorrico*.

Hitz hauetako bakoitza noiz mailegatu zen finkatzeko, luze eta xehero lan egin behar litzateke. Bistan da denak edo gehienak lehenbizikoz XIX. mendean dokumentatzen badira ere, haietako askok gaztelanian askoz lehenagotik erabiliak behar dutela. Esan dut lehen ere nola *anabia*-k, beranduko dokumentazioa badu ere, goiz-goizetik mailegatua behar duen, bokal arteko -n- oraindik galdu gabeko formaren bat oinarri. Guztiz itxura du landaretzaren inguruko hitz horiek gehienak euskaldun populazio erromanizatuak hartutako substratu hitzak direla. Ezin berdindu genezake, bestalde, *atorra* eta *chapela*, lehenbizikoak Erdi Aroko mundu arabearekiko kultur harremanetan baitauka erroa, eta bigarrenak, berriz, XVII. mendeko frantses mailegua izateko itxura baitu, ondoren erabat orokortu zen janzki bat izendatzeko. Interesgarria da *jorguín* hitza, duen itxuragatik. Academiaren hiztegiak lehenbizikoz 1914ko edizioan biltzen du, lurraldez ez erabileraz inolako muga jakinik ematen ez diola. Euskarazko *sorgin*-en bistako mailegua da, baina arreta-deigarria da hasierako kontsonantea j-/x/ izatea. Horrek, segur aski iradokitzen du hitza *xorgin* aldaera sabaikaritu batetik hartu eta ondoren gaztelanian XVII. mendean erregulariki gertatzen den espirantizazioa jasan zuela. Interesgarriak ere dira 'haurtzain' esateko hiru hitzak: *cenzya*, *cinzya*, batetik, euskarazko *seintzaia*-tik hartuak (nahiz OEHan jasotzen ez den), eta *orzaya*, bestetik, euskarazko (*h*)aurtzaia batetik. Lehenbizikoa Academiaren hiztegiak dio Araban eta Bizkaian erabiltzen dela; bigarrena, Araban eta Burgosen, eta hirugarrenarako ez du ezer zehazten. Lehenbiziko biak euskarazko *se(h)i(n)* oinarri duten hitz elkartuak dira, *sehi* horrek *sen-* baitu elkarketa forma. Lehen dokumentazioa elkartu mota horrena balitz, lehen begiratuan dirudien bezala, formazio benetan zahar baten aurrean geundeke; baina agian ez da zertan hain kronologia zaharra suposatu. Segur aski bigarren hitzak esaten diguna da jatorrizko forma *seinzai-a zela, *sein* hitzean oinarritutako elkartu bizia alegia (*sein* bizkaiera osoko forma historikoa da, protoeuskarako *seni* batetik bilakatua, cf. akitanierazko SENI-, cf. Gorrochategui 1984), diptongoa bakunduta, *-ei->-i-*. Hitz elkartuko bigarren osagaia, *zai* eta ez *zain*, erabiliagoa da Gipuzko-Nafarroetan Bizkaian baino, eta beraz itxura du maileguok Arabako euskalki misto batean dutela abiaburu. Bestalde, gaztelaniako hitzek /θ/ hortz arteko igurzakaria ageri dute euskaraz artikulazio-puntu banako diren bi txistukarien emaitzatzat, /s/ bizkar-aurreko txistukariaren aldeko asimilazioa ageri delarik. Mitxelenak (FHV, 284), kontuan harturik euskal asimilazio prozesuetan eskuarki espero den emaitza *ś* apikaria dela, nahiago du erromantzeari egozte asimilazioa. Nolanahi ere, ageri da mailegatzearen garaian ez zela oraindik gauzatu bi euskal txistukarien, <s> apikariaren eta <z> bizkar aurrekoaren, nahasmena (apikariaren alde), mendebaldeko euskararen gertatu zen bezala.

D) Ikerlan honen denbora-arlo nagusitik urruti gelditzen dira gure garaiko maileguak, haietako batzuk Academiaren hiztegian jasoak eta beste batzuk euskaldun eremuan baizik erabiltzen ez direnak: hasi herri-kirol eta jardueren

ingurukoetatik, hala nola *aizkolari*, *bertsolari*, *chistu*, *chistulari*, *escás*, harik eta politikaren ingurukoak jo arte, hala nola *lehendakari* edo *aberrieguna*, janariaren ingurukoak ere bitarte: *cocochas*, *chistorra* edo *pacharán*. Bat edo beste, *zulo*, kasu, berariaz jarduera politikoan sortuak, erabilera franko orokorrekoak izatera iritsi dira. Balio dute, dena den, argiro erakusteko euskarak gaztelaniaren lexikoari egindako ekarpena ez dela eten mendeetan barrena Erdi Aroaren argi-txintan bertan kontaktoa hasi zenetik.

6. Ondorioa

Euskararen ekarpen hori eta gaztelaniazko lexikoaren erabidean beste hizkuntza batzuek izan dutena konparatzen badugu, bistan da oso txikia dela, hainbatenez txikiagoa zenbatenaz zorrotzago garen euskal mailegutzat onartzeko. Arabierazko maileguak ikusita, Erdi Arokoak bereziki, edo italianoazkoak, aurreko horiek partez behintzat ordeztu zituztenak, frantsesezkoak eta are alemanezkoak ikusita, oso gutxi dira erabilera orokorreko euskal maileguak. Hizkuntza batetik bestera izandako hitz garraioaren balantzean euskara gaztelaniatik hartzaile izan da emaila baino askoz gehiagotan. Lexikoaren arloko eragin urri hau deigarria da euskarak gaztelaniaren egiturako zenbait alderdi funtsezkotan izan omen duen eraginaren aldean, fonologian, kasu. Ez da agian zer gehiegi harritu hizkuntzaren arlo batean eta bestean halako portaera diferentea ikusita. Hizkuntza aldaketetan, Gaztelako erromantzea beretu zuten euskaldunen kasuan gertatu zen bezala, hiztuna askozaz ere ohartago izaten zaio lexikoaren arloari fonologiakoari edo joskerakoari baino, bereziki bi hizkuntzen lexikoak hain alde banatarakoak direnean. Hiztun horiek hizkuntza bizi bat utzita –hein bateraino bizkorra baina eskurako erreferente ikasirik gabekoa– haren ordeztu hartzen zuten erromantzeak ez zuen hitz berrien premiarik, salbu eta bertako zenbait landare espezie izendatzeko edo euskaldunen artean erro handia zuten zenbait jarduera-eremu jorratzeko, abeltzaintza, kasu, edo tabu batengatik ez bazen. Beren artikulazio ohiturak, berriz, oharkabean aplikatzen zituzten egoera berrira.

Antzera, ingelesaren historia ikertu dutenak ere maiz harritu izan dira galesak ingeles lexikoari egin dion ekarpen eskasa ikusita. Lanaren hasieran esan dudan bezala, badakigu Britannian zeltak zirela nagusi ingeles zaharraren hiztunek uhartean oina jarri baino lehen. Batzuek, britonikoak ingelesari egindako ekarpen eskas-eskasaz harriturik, pentsatu ere dute zelta britonikoak uhartearen zati handi batean itzalia ote zen anglosaxoien inbasioa baino lehendik ere. Ukatu gabe, jakina, latinak segur aski zenbait gizarte klasetan eta lurralde eremutan britonikoaren erabilerari atzera eragingo ziola, Britanniako erromatar inskripzioetan ageri diren zenbait hitz soltek, izen propio britonikoek eta gaurdaino iraun duten jatorri zeltiko garbiko toki-izenek (adibidez *walh* ‘galesa’ ageri dutenak, edo **egles*, *eccles* ere dokumentatua, latinezko *ecclesia*, alegia, britonikoak mailegatua) argi frogatzen dute ingeles hiztun horiek zelta hizkuntzako jendearekin kontaktoan egon

zirela uhartean. Halarik ere, Max Försterrek (1921)³¹ 14 mailegu baizik ezin izan zituen aurkitu ingelesean, toponimia alde bat utzita, eta gainera horietako asko ere ondorengo jakintsuek arbuiatu dituzte.³² Berriki, M. Filppula *et al.* (2008) aritu dira problema horretaz eta haien ondorioa izan da bi hizkuntzen arteko kontaktoa sakona izan zela, lexikoan hain agerriz ikusten ez bada ere. Euskara-gaztelania kontaktoak antz handia du kimru-anglo kontakto harekin, bai elkar jotzen duten hizkuntzen urruntasun tipologikoari dagokionez eta bai elkar-jotze horren fase aurreratuenetan hizkuntza bakoitzak zuen egoera soziolinguistikoari dagokionez. Bere historiaren periodo jakin batean, agian estimu eta esker hobea izaten zioten gaztelaniazko hiztunek euskarari; hala iradokitzen du euskal hitzak titulutako erabilita ikusteak,³³ nahiz eta Erdi Aroko galesak bere alde askozaz ere aberatsagoko literatura izan zuen euskarak baino, ez baitzuen batere izan. Egi itxura handia du bi hiztun komunitateek elkarri estimu orekatuagoa izateak esplikatzeko duela euskarak gaztelaniari mendez mende hitz ekarpen jarraikia eta etengabea egin izana.

LABURDURAK

TAV = Michelena, Luis, *Textos arcaicos vascos*, Madril 1964: Minotauro.

FHV = Michelena, Luis, *Fonética histórica vasca* [ASJU, Gehigarriak 4], Donostia-San Sebastián 1977 (2. arg.).

OEH = Mitxelena, Koldo, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbao: Euskaltzaindia.

RS = Refranes y Sentencias 1596, cf. Lakarra, J. A., 1996, *Refranes y sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*. Bilbao: RALV-Euskaltzaindia.

BIBLIOGRAFIA

ARIZA, M., 2004, “El castellano primitivo: los documentos”, in: R. Cano (ed.), 309-324.

ARRIAGA, E. DE, 1896, *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaíno neto* (= *Lexicón bilbaíno*, L. Michelena ed., Madril 1960: Minotauro).

CANO, R. (koord.), 2004, *Historia de la lengua española*, Bartzelona: Ariel.

³¹ K. H. Jackson-en bidez aipatua, 1953, 243. orr.

³² Richard Coatesek (2007) uste du hutsune lexiko horren esplikazioa konkistaren inguruko inguruabar historikoetan datzala, bereziki anglosaxoiek populazio britonikoa kasatu edo suntsitzearekin.

³³ Beranduago, gaztelania inperio handi bateko hizkuntza bihurtua zela, odol garbitasunaren ideologik ere bizkaitarraren estimua faboratu zuen.

- CLAVERÍA, G., 2004, “Los caracteres de la lengua en el siglo XIII: el léxico”, in: R. Cano (ed.), 473-504.
- COATES, R., 2007, *Linguistic light on the birth of England* [Professorial inaugural lecture, University of the West of England, Bristol, 6 December 2007]. http://www-fbe.uwe.ac.uk/hlss/llas/bcl/5resources/Inaugural_coates_061207.pdf.
- COROMINAS, J., 1954, *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, Berna: Francke (= berrinprimatua, 1974, Madril: Gredos).
- COROMINAS, J. & J. A. PASCUAL, 1980-91, *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, Madril: Gredos.
- ECHENIQUE, M^a T., 2004, “La lengua vasca en la historia lingüística hispánica”, in: R. Cano (ed.), 59-80.
- ENGUITA, J. M^a, 2004, “Evolución lingüística en la Baja Edad Media: aragonés, navarro”, in: R. Cano (ed.), 571-592.
- FILPPULA, M., J. KLEMOLA & H. PAULASTO, 2008, *English and Celtic in Contact*, N. York -Oxon.
- FÖRSTER, M., 1921, “Keltisches Wortgut im Englischen: eine sprachliche Untersuchung”, in: M. Förster & K. Wildhagen (eds.), *Texte und Forschungen zur englischen Kulturgeschichte. Festgabe für Felix Liebermann*, Halle an der Saale: Niemeyer, 119-242.
- GOICOECHEA, C., 1981, *Vocabulario riojano*, Madril: RAE.
- GORROCHATEGUI, J., 1984, *Onomástica indígena de aquitania*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GORROCHATEGUI, J. & J. A. LAKARRA, 1996, “Nuevas aportaciones a la reconstrucción del protovasco”, in: F. Villar & J. d’Encarnação (arg.), *La Hispania prerromana*, Salamanca: Univ. de Salamanca, 101-143.
- IRIBARREN, J. M^a, 1984 (2. arg.), *Vocabulario navarro*, R. Ollaquindia, Iruña: Vianako Printzea.
- JACKSON, K. H., 1953, *Language and History in Early Britain*, Edinburgh: Edinburgh University Press.
- LAPESA, R., 1980 (8. arg.), *Historia de la lengua española*, Madril: Gredos.
- LARRAMENDI, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.
- LARRAMENDI, M., 1882, *Corografía o Descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*, Bartzelona. (Ignacio Tellechearen ardurapeko edizioa, Donostia 1969).
- LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1958, *Voces alavesas*, Bilbao: Euskaltzaindia.
- MENÉNDEZ PIDAL, R., 2005, *Historia de la Lengua Española*, Madril: Fundación R. Menéndez Pidal-RAE.
- ROHLFS, G., 1970 (2. arg.), *Le Gascon*, Tübingen: M. Niemeyer.
- SALVADOR, A., 2004, “Las lenguas ‘especiales’ y las minorías en el Siglo de Oro”, in: R. Cano (arg.), 771-797.

- SARASOLA, I., 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”* 17, 69-212 (berrinprimatua TAV bigarren aldiz argitaratzean 1990ean, ASJU-ren 11. eranskintzat).
- TOVAR, A., 1959, *El euskera y sus parientes*, Madril: Minotauro.
- URGELL, B., 2009, “¿Un topo en la Academia? Sobre una fuente vasca (casi)desconocida del Diccionario de *Autoridades* ”, in: José M^a García Martín & V. Gaviño Rodríguez (koord.), *Ideas y realidades lingüísticas en los siglos XVIII y XIX*, Cádiz: Universidad de Cádiz, 643-660.

ERANSKINA

A. (Ustez) euskal etorkia duten gaztelaniazko hitzen zerrenda.

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
abarca	X. m.: "Sancho Avarca"	Prerrom.	Aut. Larr.	Prerroman.	-v- hitz barnean eusk. abarka
abertzale	CREA: 477 (abertzale)	V. <i>abertzale</i>			Berriki sortutako hitza
aguin 'tejo'	Ac. 1925	V. <i>hagin</i> 'tejo'			= Acad.aren hiztegiak ez du hedadura zehazten.
aizcolari	CREA: 9 (aizkolari)	V. <i>aizkolari</i> (sic)			aizkora + -ari atzizkia
almora	Ac. 1925	Prerrom.		s.v. <i>morena</i>	
amarraço, amarreco amarrequer	Ac. 1869 CREA: 1	V. <i>amarreko</i> , 'de diez' 'amar'		Esanguragatik sinesgo-gorra	eusk. <i>hamar</i> , <i>hamarreko</i> cf. Joko bereko beste hitz batzuk: <i>órdago</i>
amilamia		V. <i>eme</i> + <i>lamia</i>		Ez da aipatzen	
agavanzo	1100	Prerrom.		Prerroman. V. <i>gaparra</i>	?
agote	Jovellanos 1811			V. <i>kako</i> 'ganchó'	bearn. <i>cagot</i> 'paria'. Euskaraz XVI. mendetik
anavia 'arándano'	Erriox. XVIII. m. Ac 1899	V. <i>anabia</i> (sic)		V. ant. <i>anabia</i> (sic)	eusk. <i>āhābe</i> , <i>ābī(a)</i> , <i>arabi</i> < *anabi
angula	Ac 1884 CREA: 15	V. <i>angula</i> , alteración de <i>anguila</i>		Alteración de angulia	E. Herrian erabilia. <i>aingira</i> 'anguila'

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
aña 'nodriza'	Ar, Bizk., Sant. 1896: Arriaga	V. <i>aña</i>		=	E. Herrian erabilia. cf. <i>iñude</i> 'nodriza'
aque-larre	Moratin 1828 CREA: 67	V. <i>aker</i> + <i>larre</i>		=	<i>aque</i> <i>larre</i> (1686)
arán 'endrino'	Bizk.	V. <i>arán</i>		Celta *AGRANIO	eusk. <i>aran</i> / <i>okaran</i>
arangorri	Ac 1925. arrain mota	V <i>arrain</i> + <i>gorri</i>		Ez dakar	=
arnasca	Ar. Ac. 1925	V. <i>arn</i> (<i>sic</i>) + <i>asca</i>	1958: Lz. Gereñu	Ez dakar	Segur aski <i>arraska</i> -ren aldaera
artesa					(< <i>harri</i> + <i>aska</i>) non ez datorren <i>ardanaska</i> -tik ('ardo lakoa')
arrabio 'fundición de hierro'	Ac 1803	quizá V. (<i>h</i>) <i>arrobía</i> 'cantera'		Ez dakar	Sinesgaitza. eusk. (<i>h</i>) <i>arrobi</i> <i>harr(i)</i> + (<i>h</i>) <i>obi</i> hitz elkartua da
artesa	J. Ruiz	Origen incierto		V. <i>artesia</i> 'agujero, gruta'	Esanguraz sinesgaitza. eusk. <i>artesi</i> 'hendidura, grieta' < <i>arte</i> 'entre'
artiga	Aut.	Prerrom.		Prerroman. arag. <i>arto</i> 'espino'	Pirinioko hitza. eusk. <i>arte</i>
arto 'espino'	arag. 1836	discutida		Prerroman.	eusk. <i>arte</i> , Cat. <i>arç</i>
astabatán 'marrubio'	Araba. Ac 1925	V. astoa 'burro' + batán 'menta'		Ez dakar	cf. <i>astamenda</i> 'mastranzo, hierbabuena silvestre' (< <i>asto</i>)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
atorra 'enagua' P. Vasco	Acad 1925 (V. <i>atorra</i>)	ár. hisp. <i>addurrá</i> 'a, < ár. clás. <i>durrá</i> 'ah	Larr. Cor.		eusk. <i>atorra</i> (orokorra) gast. zah. <i>adorra</i> 'túnica'
aulaga					
aurragado, -a	1. dok. ahurragado 1513, G. A. de Heredia. Aut.	V. <i>aurraca</i> , 'a empujones, de prisa'	Larr.: de Basc. <i>aurraca</i> , <i>aurreraca</i> , à empujones, à saltos, con prissa	Kritikoa. -h-k hasperena behar zuen	Larramendiren asmazioa Academiai iraunarazia
azcartio	Ar. Ac. 1925	V. <i>ascar</i> 'arce'			eusk. <i>azkar</i> 'astigarra'
azcona	Berceo	Origen inc. quizá V.		Incierito; vasco? <i>auconas</i> port. <i>azcôa</i> , <i>ascuma</i>	eusk. <i>azkoi</i> < *azkone Antzinariko testigantza / aitz- ?
ballico (hierba)	Aut. 1726			Prerroman.	
balsa	1ª Cron. Gral.	Prerrom.		Iber.	eusk. <i>baltz</i> . Onartezina
boina	Ac 1843			Tomado modern. del P. Vasco *bone > boina	Ez da euskal hitza.
boruca	c. 1290	V. <i>buruka</i> , lucha, topetazo		Bascones y Nauari per capillos burucant; inunes a buruca sint capilli mei	eusk. <i>buru</i> , <i>buruka</i> 'animalien borroka' ≠ burruka

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
burga 'manantial de agua caliente'	Aut.	Quizá V. <i>bero-ur- ga</i> , lugar de agua caliente	Larr.: "sincope de <i>berouga</i> , que significa sitio de agua caliente".	Kritikoa. Ourenseko Burgas Toki izena	Larramendiren asmazioa. Segur aski < zelta *borvo- 'irakin'
camorra 'modorra'	Ribagorza Terroros 1786			B. lat. <i>chimorrea</i>	<i>amurri</i> (Ertronk.) ≠ <i>amorru</i> 'errabia'
carranca 'helo'	Araba. Ac. 1803	V. <i>carra</i> 'helo'	1958: Lz. Gereñu		
cartolas artolas	Bizk., Araba Ac. 1884	V. <i>kartolak</i> , jamugas	1896: Arriaga 1903: Bara	gr. <i>kárta(l)los</i> (cat. occ. <i>cartre</i>)	Euskarak berinterpretatuta -(t)ola. Naf. <i>gacolas</i> (Iribarren)
cazurro			Aut. 1729	Or. incierto. Quizás prerromano	eusk. <i>zakurr</i> sinesgaitza da.
cencerro	xiii. mendeko 2. erdia J. Ruiz Aragoiko forua	Form. onomat. de or. inc., quizá de V. <i>zincerri</i> , campanilla del perro	Aut. onom. Larr.: se tomó de el Bascuence <i>cincerria</i> , que significa lo mismo	Onomat. o V. <i>zincerri</i> . <i>txintxa</i> , <i>txinxin</i> , etc.	eusk. orok. <i>zintzarri</i> . xix. mendea cf. <i>zintzur</i> zintz + (h)arri? Ez oso sinesgarria.
céndea	1402		Ac. 1780: cendéa		Euncendea (1402), lat. CENTENA
cenzaya 'niñera'	Erriox., Araba Aut.	V. <i>sein</i> , niño, y <i>zai</i> , guarda	Aut.: tiene su origen del vasc. en cuyo idioma <i>ceinzaiña</i> significa esto mismo.	=	eusk. <i>sein</i> , <i>sehi</i> , <i>segi</i> . Hizt. elkartuetan sen- < *seni- cf. <i>orziaya</i> . Ez dator OEH-an.

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
chabola	Rato: 1891 Ac. 1936 CREA: 109+219	V. <i>txabola</i> , y este del fr. <i>géole</i>		fr.a. <i>jole</i> 'prisión' < caueola	*xaol > <i>txaola</i> (G), > <i>txabola</i> / > <i>xola</i> X eusk. <i>etxe</i> > <i>etxola</i>
chacoli	Aut. E.Heria eta mont. Bu.	V. <i>txacolin</i> CREA: 13+18(k)	Larr.:		eusk. <i>txakolin</i>
changurro	Ac. 1970 CREA: 1	V. <i>txangurro</i>			Ez dator OEH-an
chamorro	'abere burusol- dua' c. 1350: Poema Alf. XI	Etim. gabe Ac. 1884: calvo + morro	Covarr. chamorras en Vize dozellas que andan tres- quiladas; de <i>çamarra</i>	V. <i>samur</i> 'tierno' (antes *'jovencito'). cf. lat. <i>mutilus</i> > V. <i>mutil</i>	Ez da inoiz testigatzen 'jovencito' esangurarik <i>samur</i> -erako.
chaparro	1600 Aut.	V. <i>txaparro</i>	Larr.: <i>achaparra</i> , significa la garrá de la mano, y la chaparra estíende sus rama cortas á manera de garras	Prerroman. relac. V <i>txapar</i> (R), <i>txaparro</i> (BN), <i>saparra</i>	
chapela 'boina'		V. <i>txapela</i> , y este del fr. ant. <i>chapel</i>			eusk. <i>xapel</i> (iparr.) xvii. mendea 'kapelua'; <i>txapel(a)</i> (hegoal.) 'kapelua, txapela' [fr. zah. <i>chapel</i> (1130) > <i>chapeau</i> (h. 1225)] cf. <i>kapela</i> (mer) XVI. m.
charro	1627 Aut.	V. <i>txar</i> , defectuoso, débil	Larr.:	port. <i>charro</i> 'vil' (1537)	eusk. <i>txar</i> (< <i>zalar</i>)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
chararra	Ac 1927	V. <i>txatarra</i> lo viejo	Azk. 1906, usado en Bilbao	V. <i>txatar</i> . dim. de <i>zatar</i> 'trapo viejo'	
chimbo		P. Vasco: especie de pájaro			
chirula					eusk. <i>xirula</i>
chistorra					eusk. <i>txistorra</i>
chistera 'cestilla de pescadores'. 'sombreiro copa'	Lope. Com. Aut.	V. <i>chistera</i>	Larr.: es voz Bascongada, <i>cistera</i> . Lat. <i>Cistella piscatoria</i>	V. (t)xistera < gascón <i>cistera</i> < lat. <i>cistella</i>	eusk. (t)xistera 'saskia' 'ohatzea' (Ax.) < gaskoiera <i>cistera</i> < lat. <i>CISTELLA</i>
chistu, chistulari	Ac. 1970 CREA: 8				eusk. (t)xistu
chueca 1. tocón 2. articulación 3. juego (bola)	c. 1490 Aut.	Quizá del V. <i>txoko</i> , taba	Larr. de Basc. <i>chuná</i> , que sign. lo mismo, y de <i>chunca ibilli</i> quedo <i>chueca</i>	port. <i>choca</i> 'idem'; V. <i>txoko</i> 'taba', 'articulación', 'rincón'	eusk. <i>txoko</i> a) esanguraz zaila b) diptongoa c) -a
cinzaya	Ac. 1927 Arab. Bur. 'haurtzaina'	V. <i>seinsain</i> o <i>seintzai</i> , de <i>sein</i> , niño, y <i>sain</i> o <i>tzai</i> , guarda			cf. <i>cenzaya</i> (cf. supra), <i>orzaya</i> (cf. infra)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
cococha		V. <i>kokotxa</i> , barbilla de la merluza			eusk. <i>kokoits</i> - <i>okoits</i> 'barbilla' ('barbadilla de la merluza' Gemika)
donostierra					
escarrió	Ac. 1927 Bu. 'astigar klasea'	V. <i>askarr</i> , arce y quejigo		V. askar. alto arag. <i>escarrón</i>	eusk. <i>azkar</i> 'astigarra' podar hoja los azcarros (1667)
escás (juego de pelota)	Ac. 1984	adaptación vasca de <i>escaso</i>			eusk. <i>eska</i> , (Leizarraga) eta jadanik XVII. mendean
etarra	Ac. 1984 CREA: 986+ 1384				
euskalduna 1 adj. vasco 2 persona	Ac 1936 adj / s.m.	V. <i>euskalduna</i>	CREA: 0/5(k)+10 (-dún) +16 pl		eusk. <i>euskaldun-a</i>
eusquera 1. vasculence 2. adj.	éusquera f. Ac. 1884	V. <i>eusquera</i>	CREA: 26 / 621 (k)		eusk. <i>euskara eta aldaerak</i> (subst)
gabarra	c. 1422-61, ref. Hondarribia CREA: 16+8 pl	V. <i>kabarra</i>	Aut.: Cespedes 1631 (Bidasoa) Larr.: <i>gauarra, gautarra</i> , el nocturno	V. gabarra - kabarra < CARABUS; fr. <i>gabarre</i> < b. lat. <i>gaba(r)rotus</i> h 1339	Maiz eta aspalditik erabilia Garonako eskualdean, Bordele. eusk. <i>kabarra</i> (1680)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
gamarra 'correa para sujetar cabeza caballerías'	Aut.	V. <i>gamarra</i>	Larr.: cierta correa, que sale de las cinchas, y se afianza en el freno, es voz Bascongada	lat. CAMUS	Acad.ak Larramendi du oinarri OEH: Larr. aipatzen
gambalúa 'hombre, alto, desgarrado, flojo'	Aut.	Quizá del V. <i>gambelua</i> Ac. 1970 (< gamba)	Larr.: lo mismo que <i>galavardo</i>	Deriv. de <i>gamba</i> 'pierna' ¿V *ganbalu-a?	Cf. eusk. <i>ganbelu</i> (hegoal.); 'kankailua' (oso hedadura txikia)
ganzúa	1475; APar.; Nebr.	V. <i>gantzúa</i>	Aut. Larr.: sincope de <i>gacoitsua</i> , que quiere decir llave ciega.	variante V. de <i>gancho</i> (Schuchardt) Port. <i>ganza</i> y testim. s. XV presentan -z- sonora	eusk. <i>gantzua</i> (OEH, Larr. aipatuz). Ez da beste testigantzarik.
gardubera	Ac. 1925 Araba 'sarraila'	V. <i>gardu</i> , cardo, y <i>bera</i> , blanco (i)			eusk. <i>kardabera</i> , <i>gardabera</i> , <i>gardubera</i> , etab.
garrapata	APal: garropata	Prerrom. Der. de <i>caparra</i> (= Cor&Pas) Ac.1970: *crabus	Aut. Larr.??	Prerroman. Metátesis *garr-ata;	eusk. <i>garr-a</i> , <i>kaparra</i> 'laharra' (Oih.), 'lakain txikia' (Poza XVI. m.) cf. chaparro Larr.-Nafarroa
gueldo 'cebo'	Ac. 1899	Or. inc.		Prerroman. cf. V. geldu	≠ eusk. <i>Geldi</i>

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
guiri 1. cristino 2. turista extraj.	Ac. 1925	Acort. del V. <i>guiristino</i> , cristino).	Arriaga 1896		eusk. <i>girisino</i> 'kristauna; erabileraren berezia' '(soldadu) kristinoa'.
ibon 'laguna pirenaica'	Arag. 1836 <i>libón</i> Ac 1852			Prerroman. *ibone, cf. V. <i>ibai</i> 'río'	eusk. <i>(h)ibai</i> (orok. eta zah.); ez dago *ibone > **iboe. Piriniokoa soilik
igüedo 'animal cabrio 2 años'	s. XV Ac. 1884	Or. inc.		prerrom. * ECÖTO-, cf. port. <i>bode</i> , V. <i>aketo</i>	Eusk. <i>aketo</i> < ak(h)er + to atzizki txikigarria. Igüedo-rako, hobe *ebödu-
ikastola		V. <i>ikastola</i>			eusk. <i>ikastola</i> ; <i>ikasola</i> (Larr.)
irasco 'macho de la cabra'	Ar., Naf. Ac. 1925	V <i>irasko</i> , choto castrado	Voc.Nav.: <i>irasco</i>		eusk. <i>irasko</i> 'zikiroa' (R) -(s)ko atzizkia
izaga 'juncal'	Aut. (Covarr. en ondotik: arabiera)	En Acad. hasta 1989.	Larr.: ???	V. <i>izaga</i>	eusk. <i>izaga</i> < <i>ihiltza</i> + <i>gai</i> ; <i>Inza</i> (1134)
izquierdo	1117: Exquerdo (NP) XII. m; xvi. m. ra arte ez orok.	Del eusk. <i>ezkerra</i> , izquierda	arag. <i>esquero</i> ; port. <i>esquedo</i> ; cat. <i>esquerre</i> ; gasc. <i>esquerr</i>		eusk. <i>ezker</i> (orok.) *esku-erdi (ez) *ez(e)-ger 'ez txarra'.
jorguin, -na	Ac. 1914	V. <i>sorgin</i> , bruja	Larr.: que haze adormecer, es de el B. <i>sorguina</i> , <i>sorguina</i> ,		eusk. <i>sorgin</i> (orok.) <i>ij idazkera?</i> fonetika: s- > x- > j- / errata, j Longa-ren ordezt?

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
larra 'prado'	Ar., Bizk. Ac. 1925	voz vasca			eusk. <i>larre</i> , <i>larra</i> (B) (orok. eta zah.): <i>Larrehederra</i> (945)
lastón	c. 1817 Ac. 1899	V. <i>lasto</i> , paja (desde Ac 1984)		Der. romance de V. <i>lasto</i> . Usual en Aragón; gasc. <i>lastoul(n)</i>	eusk. <i>lasto</i> , zaharra, lehenbizikoz Etxepare-Nafarroa eta orokorra. Baina ez *lastone
lagaña	1240 (Alexandre)	Or. inc. quizá prerrom.	Aut.	Inc. Relaciones con V. <i>lakaina</i> 'gajo' Sentido 'brizna' > 'legaña'	<i>lakaina</i> 'ile sorta', 'fruta xistera' ≠ <i>lakar</i> , <i>lakatz</i> . 'latza, gogorra'
lasún	Ac. 1817	V. <i>lasun</i> 'mujol'			eusk. <i>lazun</i> 'muble' (Bizk. zah., RS).
lava	Terreros, c.1750	V. <i>laia</i>	Larr.; Ac.1817.		eusk. <i>laia</i> ; (hegoaldean xvii. mendetik)
leme, 'timón, timonel'	c. 1400 (lime); xv. men.g (leme)	Or. inc. (desusado)		V. <i>lema</i> 'timón' < TĒMO, -ŌNIS	eusk. <i>lema</i> (B,G, L, AN), xvii. mendean cf. <i>leka</i> < lat. <i>theca</i>
lendakari 'presidente Gob. Vasco'					eusk. <i>le(h)e(n)dakari</i> 'presidentea', Aranaren neologismoa
lurte	Huesca. Ac 1843 (elurrezkoa)	V. <i>lurte</i> , corrimiento de tierras			<i>luria</i> (Z, ERR.), <i>lurte</i> (Zaraitzu) 'lur edo elur irrista' cf. <i>Lur</i> – <i>elur</i>
machin, Dios Machin 'Cupido	Góngora	Ac. 1992: sin etim.; ant.	Aut.: Voz Vasquense, que vale lo mismo que Martín:		eusk. <i>Matxin</i> , Martinen txikigarria, izen txit erabilia. Erator. <i>matxinada</i> (xviii. mendetik)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
mochil, motil		V. <i>motil</i> , dim. de <i>motil</i> , muchacho	Lope García de Salazar, s. XV: "Llamaban al mozo en su tierra de vasconce <i>motila</i> "	V. <i>motil</i> , con palat. expres. > motxil. (De lat. MŪTILUS)	eusk. <i>mutil</i> , <i>motil</i> <i>García Mutila</i> (1130). *motxil
mochila	'zorroa' c. 1492	De <i>mochil</i>	Aut.	De <i>mochil</i>	eusk. <i>mutxilla</i> , <i>muxilla</i> (s. XIX); <i>mur-txilla</i> (Dv)
mocho 'sin punta', sin cuernos' (mozo, muchacho)	1170 (Toledo) Nebr.	Or. inc.	Aut. Echave: "Moza es también toda cosa que en castellano llaman motilada" 59r.	Uso gral. y ant.; port. <i>mócho</i> ; cat. <i>mótxa</i> . V. <i>motz</i> 'corto'	eusk. <i>motz</i> (orok.), <i>mutz</i> (S), 'mocho, cortado, trasquilado'. <i>Galindo Moça</i> (1026). <i>Don</i> <i>Martin Motça</i> (1254). <i>Pero Miguel Moçça</i> (Iratxe, 1339).
mogote 'montículo' 'cuerno incipiente de cérvidos'	1537 (1. adiera) 1634 (2. adiera) CREA: 3	= Cor&Pas		pretr, quizá V * <i>mokoti</i> , puntiagudo, < <i>moko</i> , punta.	eusk. <i>moko</i> 'punia', 'muturra' > 'hegazti mokoa' Esangura: ez kamutsa. Ahostuntzea (i)
mozcorra	Aut.	V. <i>mozcor</i> , muchacha tetuda (i). (< Cor&Pas)	Larr.: es voz Basc, y sign. fácil de pelarse, como sucede a estas malas hembras.	V. <i>mozkorro</i> 'pelado', cambio semántico como en <i>pelona</i> . Cf. Morrosko	eusk. <i>mozkorra</i> 'prostituta' (Larr.: -> Harriet) <i>mozkorro</i> (ERR) 'soldua' (ERR), 'moxtaka eta lodia' (B, AN)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
muga 'mojón'	Aut. Errioxa eta bestetan CREA: 12 + 9 pl.	V. <i>muga</i> , mojón (lurralde mugarik gabe)	Larr.: usase en la rioja, es voz Basc. [s.u. <i>mojon</i> : < muga-on]		eusk. <i>muga</i> , (orok. XVII.aren erditik)
muñeca	CREA: 890+569 pl.	or. prerrom.; cf. <i>moño</i> , <i>muñón</i> , V. <i>munu</i> , colina			
mus	Ac. 1843 CREA: 135	Voz V. y esta de fr. <i>mouche</i>	Larr.: <i>Cor</i> 232: Larr.: de <i>musu</i>		eusk. <i>mus</i> (Larr.). Cf. hitzak: <i>amarraco</i> , <i>órdago</i>
narra 'galga del carro' Ar.		V. <i>narra</i> , arrastre	Larr.: es de el Basc <i>narrá</i> , que significa la rastra cuadrada, à diferencia de <i>lera</i> que es triangular.		eusk. <i>na(a)rra</i> (mendeb. xix. hasieratik). > mugaturik <i>narria</i> . Erroak eratorri asko: Cf. <i>narraz</i> 'herrestan', <i>narrazki</i> , <i>narraztu</i> , Etab.
narria 1. cajón de carro, para arrastrar pesos 2. mujer gruesa que se mueve con dificultad	Nebr.: <i>narría</i> o <i>rastra</i> Aut.	V. <i>narria</i>	Larr.: en Basc llamamos <i>narra</i> , <i>narra</i> à la muger, y al hombre pesado,		eusk. <i>narra</i> , <i>nar</i> 'motela, baldarra'
nava		Prerrom.: cf. V <i>naba</i> , tierra llana	Oih.: "Nabea une grande plaine proche les montaignes".		eusk. <i>naba</i> (xvii. mendea) cf. <i>In loco qui vocatur nava</i> (1061)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
názora 'nata de la leche'	Nebrija, Covarrubias.	Origen inc.	Aut. 1734	Cruce entre <i>nata</i> X vasc. <i>gatzura</i> 'suero del queso'	
órdago	1896: Arriaga Ac. 1914 CREA: 116	V. <i>or dago</i> , ahi está		Bilbao > Santander; > Madrid. <i>órdiga</i>	eusk. <i>hor dago</i>
orzaya 'niñera'	Ac. 1899 (lurralde bana- ketarik gabe)	V. <i>aurzaya</i>			eusk. (<i>h</i>) <i>aurzai-a</i> , < <i>haur</i> + <i>zai(n)</i>
pacharán 'licor de bayas'	CREA: 20	V. <i>patxaran</i> 'endrina'			Nafar hitza: patxarana eusk. <i>basaran</i> 'ahabia' (xvii. mendea) > usual-izena [baso + aran] basaranes. [<i>baso</i> 'bosque, silvestre' + <i>aran</i>]
pelotari	Ac. 1914	V. <i>pelotari</i>			eusk. pelota + -ari atzikia
pizarra	1475: <i>piçarra</i>	Orig. inc.	Aut (1737) Usual a partir 1550	Or. vasco. Cruce entre <i>lapis</i> X (<i>h</i>) <i>larri</i> 'piedra de pizarra'.	eusk. <i>lapitz</i> 'arbela' <i>Les maisons de Lapitztoy</i> (1520). <i>Semen lapitçeco</i> (1366) < lat. LAPIS Eusk. * <i>lapitzarri</i> > ERR. * <i>lapitçarra</i> > la + <i>piçarra</i> Alde: beranteko erabilera gazt-port.; -p-, -ç- ahoskabeak Kontra: -a (eta ez -i),

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
sabaya 'desván'	Huesca Ac. 1925	V. <i>sabaita</i> , desván			eusk. <i>sabai</i> Orok., XV/III.aren erditik
sabandija	xv. m.: <i>savandija</i> Aut.	Or. inc.		Prerroman., emparentado V <i>sugandi-</i> <i>lla</i> etc.; pot. <i>sevandilha</i> . *SEVANDILIA	eusk. <i>sugandila</i> (eta anitz aldaera): * <i>suge</i> + <i>andere/-a</i> . X <i>angila</i> , <i>kandela</i>
sagardua	Ac 1925 Euskal hitza	V. <i>sagardua</i> , sidra (P. Vasco)			eusk. <i>sagardo-a</i> (< sagar + ardo. Orok. Hegoaldean xvii. mendetik
sagarmin 'manzana silvestre'	Araba Ac 1925	V <i>sagar</i> , manzana, y <i>min</i> , agrio			eusk. <i>sagarmin</i> . <i>El linaje de Sagarmijnaga</i> (1475)
sarde 'horca de aventar'	Ac 1925 (Naf.)	Or. vasco			eusk. <i>sarde</i> . Orok. eta zah. Eratorri asko.
sarrio 'gamuza de los Pirineos' Arag.	J. de Huerta, 1599	Or. inc.	Aut.	Prerroman. Beam. <i>sàrri</i> ; arag. <i>sixardo</i> ; cat., gasc., lang. <i>isard</i> . *izari- /+isari- > rr/rd, (cf. izquierdo). cf. V. <i>izar</i> 'estrella'	Pirinioko hitza, euskarak ez duena. eusk. <i>izar</i> , zah eta orok.

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
silo a) silo de trigo b) agujero, hoyo	c. 1050 Berceo : yaziē en fondo silo, de fierros bien cargado”; “preso en un silo” Lz. Ayala	Or. inc.	Aut.: De syro. (hasta Ac. 1984)	Preroman., relac. V. <i>zilo, zulo</i> . Etim. celt. *silon ‘simiente’	eusk. <i>zulo</i> (Mend. xvii. mendetik; bai Leiz. ere: <i>zulho</i>); <i>zilo</i> (Z, ERR) Ez zelta jatorria *silo(n) > **ziro-
sinsorgo, -a ‘insustancial’ Mur. eta Bizk.	Ac. 1925 (V. <i>zensurgue</i>). Ar. Mur. Bizk.	V. <i>zensurgue</i> (j)	Lz. Gereñu		Ez dator OEH-n. eusk. <i>zentzunbake, zentzunge</i>
sirria, sirle ‘excrem. gando lanar’	1621 Ac 1803	Or. prer.		Aragón. Cat. <i>xèrria, eixerri</i>	eusk. <i>zirri, zirrio</i> (ERR. baizik ez). Naf. : <i>chirria</i>
socarrar ‘chamuscarse’	Berc. ‘quemar, incendiar’; socarraba los burgos e las villas cabdales’; ‘barbas socarradas’	Or. prerrom	Aut.: *sub-urere	Or. prerrom., relac. con V. <i>sukarr-a</i> ‘llama’ / <i>sukartu</i> ‘sufrir fiebre’ ‘encoleriz’ arag. y cat. occ. <i>sucarrar</i>	<i>sukar</i> ‘sugar’ (maiz pl.), <i>sugar</i> < su + gat. (hitz elkartuko ahoskabetzea) / <i>sukartu</i> < *suak hartu

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
talo a) 'plancha de hierro para cocer tortas' (Cant) b) 'torta de maiz' (Euskadi eta Naf)	Ac. 1925 (Ar. Naf. Bizk. Sant.)	Del Vasco			eusk. <i>talo</i> (xvii. mendea <i>thaloa</i> , SP), Larr.
tobera					
tupin Naf	Ar., Naf. 'hiru oineko pertza'	Prov. <i>topin</i>	Barañbar: <i>chupin</i> V. <i>txupin</i> .	Occ. <i>topin</i> 'olla de barro' < al. an <i>topphin</i>	eusk. <i>tupin</i> 'pertza'. Orok. Jadaneko Oih. Sabaitzaritza. Hedadura
vega	919: <i>veegua</i> , <i>vajka</i> . (leon.) gal. - port ez maiz	Prerronan. *vaica		Antiguo. Cast. Port. (sardo). En Arag. moderno; no en cat. Prerrom *baika, relac. con V <i>ibai</i> : *ibai + ko	eusk. <i>ibaika</i> 'uholdeka' modernoa da eta esanguraz arrotza. Banaketa ez da iberikoa. (sardoa?). Penintsulako ipar-mendebaldeko hitza.
vilorta 'vara de madera flexible para hacer aros'	Berc. <i>veluerto</i> ; c. 1300: <i>velorta</i> Aut.	Lat. <i>bis</i> , dos veces, y <i>rotilla</i> , rueda	Aut.: Covarr. 'quasi vitortas, por la fuerza con que se tuerce el ramo	Or. inc., quizá prerrom. y enparentado con V. <i>bilur</i> 'vilorta', <i>biurtiu</i> 'torcer'. Port. <i>biorto</i>	eusk. <i>bil(h)ur</i> 'esteka', <i>billurri</i> (iparr.) ≠ <i>bilur</i> (Corom.: *bilurri > *birurri > *bidurri > bigurri > biurri onartezina) <i>bi(h)ur</i> 'esteka'
zacuto 'bolso' Naf.	Ac 1925	V. <i>zakuto</i>			eusk. <i>zakuto</i> 'zorroa' [zaku + -to atzizki txikigarria] <i>Don Garcia Xemeniz Çacuto</i> (1333)

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
zamarra 'prenda rústica, hecha de piel con su pelo o lana'	J. Ruiz	V. <i>zamarra</i>	Aut.: hebr. <i>sener</i> 'lana' Larr.: * <i>txamarra</i> 'señal de casa'	Probabl. V. <i>zamar</i> 'vellón', 'pelliza'. Port. <i>samarra</i> (s. xv), cat. <i>samarra</i> (1371 y s. xv), Occ. (s. xiii)	eusk. <i>zamar</i> . Zaharra. <i>Fortium Zamarra</i> (1075), <i>Sancho Çamiarr</i> (1366). <i>Domiku Zamarguina</i> (1200) = Peletero: Lacc. RS.
zarza	1132: <i>sarça</i> > <i>çarça</i> .	Del ant. <i>sarza</i> , de or. prerrom.	Aut.: V. <i>zarzi</i> / ar. <i>zərzəl</i> . Oih. Not. 52: <i>garci</i> vel <i>sassi</i>	Or. inc., probabl. prerrom, relacionado con V. <i>sartzi</i> , <i>sasi</i> .	eusk. <i>sartzi</i> (L, BN, Z, Oih.) / <i>sasi</i> , <i>saasi</i> (B, G, AN, L, Bazt, Oih) 'laharra'. <i>Lope Ybanez de Sasiola</i> (1391) Zaharra eta esaeetan erabilia.
zatico o zatllo. 1. Mendrugo de pan. 2. Oficio ant.. çaticquero saticar (Bu)	Berceo. J. Ruiz	V. <i>zati</i> , pedazo	Aut.: Echave (1607) Mayans (Oih., Prov. 563)	V. <i>zatllo</i> , dim. de <i>zati</i> 'porción' zato, zatllo?	eusk. <i>zati</i> . Orok. eta zah. Çatiko de pan : <i>zattia</i> (Lcc. Landuccio).
zorrico 'compos. musical'	Breón Herr. Ac. 1884	V. <i>zorrico</i> , octava			eusk. <i>zoriziko</i> , <i>zorizi</i> -tik eratorria > zorzi lerroko edo konpaseko bertsoa.
zorongo 'moño de mujeres', 'pañuelo en forma de venda de arag. y nav'	Ac. 1849			Quizá V. <i>txori</i> 'tupé' <i>izarachoa</i> como nombre del pañuelo ant. de las vascas, en forma de cono.	Onartezina. <i>txori</i> <i>izaratxo</i> 'sabanilla de la cabeza' < <i>izara</i> + <i>txo</i> txikigarria

SARRERA	Noiz dokumentatua	Acad.aren etimologia	Beste hizt. historikoak	Corominas&Pascual	Iruzkina
zumaya, zumacaya 'autillo, chotacabras, martinete'	Nebr.: Aut.	zumaya, de zumacaya, de or. inc.	Nebr.: <i>çumaia</i> , <engaña> pastor, ave cūcuma	Critica <i>zumacaya</i> (de Aut., < Larr.) como fantasma. Aspecto vasco; quizá <i>zumai</i> 'árbol' > 'ave' Colon: Alvar 1994, 494; arabismo	eusk. <i>zumai</i> 'belar bazka', <i>zuhaia</i> -en bazt. aldaera. Aldaera guztiek oinarri hasperendu eta sudurkartua behar dute: *zuhañi
zurdo	1475: G. de Segovia. Ez dago E.Aroko kasurik. A. Pal. eta Nebr.-Nafarroa falta			Prob. prerrom.: gall. <i>mano xurda</i> / port. <i>surro</i> , <i>churro</i> , <i>churdo</i> 'ruin, vil'; bearn. <i>soûrrou</i> 'ávaro', 'láciturno' V. zur 'ávaro', <i>zurrun</i> 'inflexible'	eusk. <i>zuhur</i> a) ganoraduna > aurrezkizalea, > zekena, zikoitza (*zunurr) ≠ <i>zurrun</i> > 'hilotza'
zurrar 'curtir', 'dar una paliza'	1350: Aragoiko foruak	Onomat. <i>zurrr</i>		port. <i>surrar</i> , V. <i>zurratu</i>	1. Larreak ondu, <i>narriak zurratu</i> " (Lec), (L, BN) 2. Jipoiu.
zurron	XIII. mendea	V. <i>zorro</i> , saco		Orig. inc. Prefiere V. <i>zorro</i> que árab. <i>šurra</i> . Pot. <i>surrião</i> , cat. <i>sarro</i> , gasc. <i>sarroû</i>	eusk. <i>zorro</i> (orok.) > tripa > <i>zorro-zorro</i> 'sakonki' (zorro batean bezala)

B. Erabilera lokaleko euskal maileguak.

NAFARROA (José M^a Iribarren, *Vocabulario Navarro*, alfabetoaren lehen hiru letrez hasten direnak):

agote, *aldunes* ‘dueños y propietarios’ (XVII eta XVIII. minúscula.), *alquia* ‘silla’, *amarretaco* ‘almuerzo’, *andosca*, *aprovechategui*, *apurra* eta *apurres* ‘residuos’, batez ere *atapurres* de pan < *otapur*, *ot-*, *ogi*-ren elkarte forma; *arañón*, estar *arguiló* ‘estar en duermevela’, *arguizaiola* ‘tabla para cera’, *arin-arin* ‘ligero’, *arrapateco* ‘ladrón’, *arrapatuñar* ‘robar’, *arteletes* ‘leche frita’ (*arto* ‘torta’ + *lete*, leche esateko nafar aldaera), *artochuricea* ‘pelar el maíz’, *asca* ‘abrevadero’, *astamenda* ‘menta salvaje’, *astaputz*, *astopito* ‘tonto’, *aurzáin* (bai eta *urzaya* ere) ‘niñera’ eta bitariko formak: *aurrera*, *orrera* [haur + *niñera*-ko -era atzizkia], *auzalán* ‘trabajo comunitario’, *ayaldeco* ‘madrina en la boda’ [aya+aldeko] (espantapájaro), *azcarro* ‘arce’[askar] eta ‘hombre vigoroso’ [azkar].

baba ‘ampolla’, *baldarra* ‘desgarbado’, *basa-* ‘salvaje’ hitz elkartu ugaritan (*basarán* > *pacharán*, *baserri*, *basilar* ‘negrilla de los cereales’, *basaúrria* ‘avelano silvestre’), *burdin* edo *burni* ‘hierro’ hitz hauetan: *bastaburrín* ‘lezna para coser bastes’, *baye* ‘criba’ eta *bayar* ‘cribar’, *bedaguiña* ‘bruja’ [belhar- ‘hierba’, ald. *bedar-*], *tabaco belarra* ‘hierba de tabaco’ (1817), *belarchilo* ‘trampilla en el desván para meter hierba’, *belarrimocha* ‘mote de carabineros = los orejas corta(da)s ’’, *berriqueta* ‘chismorro’, *betizu* ‘vaca salvaje’, *bilinchi-balanca* ‘dando tumbos’, *bimbili-bambala* ‘columpio’, *bizcarra* ‘espinazo de los cerdos’ edo ‘dorsal de los tejados’, *luchar a buluquetas*, *a burrucas*; *buruzagui* ‘capataz’, *buztan-* ‘rabo, cola’ hainbat hegazti izenetan: *buztangorri*, *buztancara* eta *buztapar* ‘curiosa artimaña de pastores para que las ovejas acepten a sus retoños’.

cacolas ‘palos en forma de ganchos para llevar leña, etc. a ambos lados del baste’ (cf. *artolas*, *cartolas*), *cacurrín* ‘mal olor a heces’, *caicu* ‘recipiente

de pastor', *cendea*, *ciape* 'mostaza amarilla', *cilipurdiscan* 'cayó o se tiró de voltereta', *cincilicar* 'colgar', *cinzar* 'sonarse las narices' [zintz], *ciondoco* 'hierro para apoyar pucheros a la lumbre' [*su* 'fuego' + *ondo* 'cerca' + *ko*], *ciquiña* 'persona sucia' eta haren erat. *ciquiñería*, *ciquiñoso*, *ciricar* 'enredar' eta *ciriquiar* 'hurgar' [*ziri* 'palito'], *cirria* 'excremento', *clisqueta*, *crisqueta* 'pestillo de la puerta', *cosque* 'abolladura', *cozcor* (esangura asko), *cucha* 'caja', *culusca*, *cuyuska* 'siesta corta', *cutín* 'amuleto'.

ERRIOXA (C. Goicoecheari jarraikiz, *Vocabulario riojano*):

abarra 'rama de árbol', *achurra* 'azadilla', *achurrear* 'ahuecar la tierra', *adorra* (gazt. zah), *amabia*, *anabia*, *andosco* 'cordero de tres años', *ardachita* eta *ardacho* 'lagartija', *arlo* 'racimo de uvas colgando', *arlote* 'zafio', *atorras* 'enaguas'.

Orobat euskal mailegu asko eta asko aurkitzen dira Arabako lexiko lokaletan (Lpz. de Guereñu, *Voces Alavesas*) eta Bilbokoetan (E. Arriaga, *Lexicón de Bilbao*, 1896).

EUSKARAREN ETA GASKOIERAREN ARTEKO HARREMANAK: ZUBERERAREN ADIBIDE BATZUK

JEAN-BAPTISTE COYOS
(IKER-Baiona)

1. Sarrera

Artikulu honetan euskararen eta Gaskoniako okzitanieraren arteko harremanak aztertzen dira, zubereraren eta auzoa duen Biarnoko gaskoieraren artekoak hain zuzen, deitzen den bearnesa edo bearnera. Ikergai hau biziki zabala baita adibide batzuk emanen ditut bakarrik. Ohartaraz dezadan, euskararen eta Gaskoniako okzitanieraren arteko harremanak deskribatu izan baldin badira ere¹, Pirinioetako bi hizkuntza ez jatorrikide horien arteko harremanak ongi ezagutzeko ikerketa asko egiteko direla oraino.

Noski hizkuntza-ukipen hori, hizkuntza-ukipen denak bezala, hiztunen bidez gauzatzen zen, euskal eta bearnes komunitateen arteko harremanetan. Harreman linguistiko horiek bi norabideetan gauzatu ziren. Alde batetik, adibidez, zubererak bearnesari hitz asko mailegatu zizkion (ikus 3. lerroaldea)². Halere, beste norabidean ere, eta hori ez da bestea bezain ongi aztertua izan, euskarak bearnesean eragina izan zuen. Noski gaskoieraren sorkuntzaren garaian gertatu zen hori, euskara substratua izanez, eta ondotik garai batez mintzatua izanez

¹ Ikus adibidez Rohlf (1977), Ravier (2011). Bearnesaren eta zubereraren arteko harreman berezietz ikus Peillen (1992, 1998) eta Coyos (2001, 2006, 2011). Gaskoieraren eta Nafarroa Beherako euskararen artekoak ikus Haase (1990, 2002).

² Bistan da hau ere irudi bat da. Zubererak bearnesari ez zion mailagutzen, baina bai zubere-radunek hitzak, erranmoldeak bearnesdunei.

gaskoierarekin batera. Baina geroztik ere, hizkuntza auzo gisa bearnesean eragina izan zuen euskarak (ikus 4. lerroaldea).

Iraganaldia baliatzen dut harreman linguistiko horiek orain agortuak baitira. Gaur egun zubereradunak eta bearnesdunak gero eta gutiago dira, hizkuntza horien irakuskuntza emendatzen baldin bada ere, euskararena bereziki. Hitzun horiek denek, euskaldunek nahiz bearnesek, frantsesa ezagutzen dute eta zinez guti dira frantsesaz gain euskara eta gaskoiera ezagutzen dituztenak, hots hirueledun direnak.

Bi hizkuntza horiek luzaz kontaktuan izan baitziren, hitzun asko gutxi gorabehera elebidun edo elebidun hartzaile ziren, Zuberoakoak bederen, eta hizkuntzen alor denetan eraginak izan zirela pentsa dezakegu. Bearnesa guti edo aski menperatzen zuten euskaldun horiek ez ziren bakarrik letradunetan, elizgizonetan edo legelarietan aurkitzen; laborarien artean edo salerosleetan aurkitzen ziren biarnotarrekin zituzten harreman komertzialengatik.

2. Zuberoaren eta Biarnoren arteko harremanez

Harreman linguistiko horiek aztertu baino lehen has gaitezen bi lurralde horiek izan zituzten harreman ezberdinak azaltzen. Askotakoak izan ziren, ekonomikoak, administratiboak, erlijiozkoak, kulturalak, etab. Hizkuntzekin bezala, hemen ere ez dugu erranen Zuberoak eta Biarnok harremanak izan zituztela, baina bai zuberotarrek eta biarnotarrek zituztela. Lehen ikuspegiaz, kontaktua geografikoa da, Zuberoako eta Biarnoko arteko muga handia da eta Zuberoak Gaskoniarekin duen bakarra da. Baina harremanak giza taldekoak ziren.

Hona alor ezberdintan harreman horien adibide batzuk. Biarnoren eragin handia Zuberoan agertzen zaigu historian zehar, garai luze batean, Goi Erdi Aroan hasiz gaskoieraren, bearnesaren sortzearekin.

2.1. Administrazioa

Erdi Aroko Zuberoan gaskoia hizkuntza administratiboa zela ezaguna da. XIV. mendeko Zuberoako zentsu gotikoa gaskoieraz idatzia izan zen³.

Halaber, 1520ko Zuberoako ohitura, foruak beste era batez errana, *Coustumes générales du Pays et Vicomté de Sole* delakoak, gaskoieraz idatzia izan zen⁴.

“Dei kortez, Xiberoa Lannes edo Landetako ‘*sénéchaussée*’ delakoan zen, eta zonbaiten ustez hanko epaileez entelegatü izateko gisan izkiribatü zen” esaten

³ Ikus Ricardo Cierbideren *Le Censier gothique de Soule* testua (1994, Baigorri, Izpegi argitaletxea).

⁴ Michel Grosclaudek 1993an gaskoieratik frantsesera itzuli zuen, *La Coutume de Soule* izenburupean.

digu Jean-Louis Davantek⁵. Beraz Zuberoarentzat apelazioko auzitegia Landetan zen eta noski erabili zen hizkuntza ez zen euskara, ez eta ere frantsesa oraino.

Halere, ohartaraz dezagun gaskoiera Lapurdiko hizkuntza administratiboa izan zela ere eta Nafarroa Beherean luzeago. Hegoaldean ere, nahiz Nafarroan, nahiz Gipuzkoan, eragina izan zuela historian zehar. Beraz gaskoiera hizkuntza administratiboa izatea ez da Zuberoako berezitasuna.

2.2. Elizaren administrazioa

Zuberoa Oloroeko elizbarrutin zagon. Oloroe, *Auloron* bearnesez, zubereraz [olú(w)e], Biarnon da. Apezpikua beraz Oloroen zegoen eta xvii. mendean Mauleko Maitia familiako hiru kide Oloroeko apezpikuak izan ziren, katolizismoa indartzeko Biarnoko eta Zuberoako protestanteen aurka.

Seminario ttipia Oloroen zen ere bai zuberotarrentzat. Eta ikasle horien artean zuberotar famatu bat badugu xix. mendean, Agosti Xaho atharraztarra. Han egon zen bigarren mailako ikasketak egiteko 1822tik 1830 arte⁶. Frantsesa zen orduan hizkuntza nagusia.

Orain Oloroe Baionako elizbarrutiari lotua da, Lescar bezala, eta ondorioz Zuberoa ere.

2.3. Hezkuntza eta eguneroko bizitza

Biarnorekiko giza harremanak eta harreman ekonomikoak hedatuak ziren. xx. mendeko hasiera arte, gazte batzuentzat ohidura zen aprendiz gisa joatea, laborari izan dadin, zurgile izan dadin, etab. Orduan, ofizio baten ikastearen gain, bearneraren ikastea ere zen helburua.

Lexikoak harreman ekonomikoen garrantzitasuna erakusten digu. Bearnesak zubererari eguneroko tresna eta gauzen eremuei hitz asko eman zizkion, artisautzaren lanbideetan bereziki, bizitoki lexikoan ere (Coyos 2006). Zubereran 68 lan tresnatako izen mailegatu zenbatu ditut adibidez, 70 ontzi eta etxetresnatako, 347 ekintza-izen eta ekintza-aditz! Orain, hitz horietarik batzuk desagertu dira teknika eta lanbide tradizional horiekin batera.

2.4. Ezkontza mistoak eta biztanlerien nahastea

Ezkontze-harremanak aski ugariak ziren eta dira gaur egun.

Hizkuntzak ere nahasten ziren etxeetan, baserrietan Biarnon dauden Eskiulan eta Jeruntzen, baita ere Barkoxen, Montorin (Berorize), etab. Mugaldeko

⁵ *Xiberoko jauna* pastoralak, 2008: 145. or.

⁶ Patri Urkizuren *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak 1811-1858*, 1992: 18. or.

lurralde horri buruz, Zuberoako ekialde eta ipar ekialdean, Philippe Etxegorriren 2007ko “Mugako zuberotarrak” artikulua xehetasun asko ematen dizkigu. “Euskaldunek, zuberotarrek hain zuzen, Zuberoako mugak gainditu zituzten eta Biarnoko hainbat gun e landu eta jendeztatu zuten” (2007: 58). XVIII.ean eskiulatarrak Josbaig oihanean baneratu ziren eta etxaldeak Jeruntzeko lurretan eraiki zituzten” (*ibid*: 60). “Eskiulako eliza Barkoxekotik 1645ean banandu zen” (*ibid*: 61).

Beraz, oro har euskara historian zehar gibelatu baldin bada ere, garai batez Zuberoako muga gainditu zuen eta zuberotar zenbaitek Biarnoko gun e batzuk jendeztatu zuten. Hitz-elkartrukeak bioarnotarrekin bearnesez egiten zirela pentsa dezakegu, euskara begiratzen baldin bazuten ere.

2.5 Ekonomia

Trantsumantzia ez zen bakarrik Zuberoako behe-lurretatik mendi-lurretara udaberrian joatea. Gaskoinarako urrutiko larre-aldaketak ohizkoak ziren euskal artzainen batzuentzat.

Altzürüküko ene informatzaileetatik batek, 87 urte ditu orain, kontatu dit nola bere haur denboran Biarnoko tratulariak etxera etortzen ikusten zituen. Euskara jakin gabekoak baitziren, etxeko gizonak bearnesa erabilten zuten pixka bat, tratuak egiteko bederen, behiak edo ardiak saltzeko.

Beste argibide batzuk harreman horiei buruz Txomin Peillenen *Les Emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne* liburuan ikus dezakegu, 17. orrialdetik 19.ra.

Beraz euskararen eta gaskoiaren arteko ukipen aukerak asko ziren eta horiek bi hizkuntzetan eragina izan zuten.

3. Zubererak bearnesari mailegatzen

Bi ukipen-alor ezberdin azaltzen ditut orain. Lehena da hizkuntza-mailegatztea, nola zubererak bearnesari hitzak mailegatu zizkion. Hau da maizenik gogora etortzen dena mailegatztea aipatzen denean, hitz mailegatztea. Maileguen zerrenda zoin den azalduko da eta mailegu horien sailkapena eremu kontzeptualeka eginen da. Sailkapen hori adierazgarria da zuberotarrek Biarnorekin zituzten harremanak ulertzeko. 2.3. lerroaldean lehen adibideak eman ditut.

3.1. Iturriak

Txomin Peillenek bilduma garrantzitsu bat argitaratu zuen 1998ko liburuan, Madril en UNED en argitaratua. Esan behar da beste euskalkiekin holako lanik

ez zela egin izan⁷. Ikerketa hori baliatuz emendakin batzuk egin nituen 2001ean Baionako *Lapurdum* aldizkarian. Eta denak lotuak 1.600 hitz baino gehiago kontatu nituen⁸.

Kopuru hori ez da ez hain izigarritzkoa. Ingelesak, adibidez, frantsesari gutxi gorabehera 5.000 hitz mailegatu zizkion Erdi Arotik bigarren munduko gerra arte⁹.

xvii. mendetik at frantsesak gaskoierari lekua hartu zion zubererari mailegu ekarle gisa. Baina orain, gero eta gehiago euskara batua da mailegu ekarle hori, oraingo Zuberoako euskaldunek euskaraz ikasten baitute, gazteek bederen, harremanak beste euskaldunekin gero eta handiagoak baitira, euskarazko prentsa eta ikus-entzunezko komunikabideak Zuberoara heltzen baitira.

3.2. Gaskoieratik? Gaztelaniatik? Galdera ezberdinak

Balizko mailegu horiek aurkeztuko ditut oharrik egin gabe, jakinez galdera, azalpen edo iruzkin asko egiteko liratekeela. Ikerketa bereziak ere.

Mailegua Biarnoko gaskoieratik, gaztelaniatik, latin arruntetik edo Elizako latinetik etortzen ote da? Nola jakin Gaskoniako okzitanieratik etortzen denez? Hori egiaztatzea ez da beti erraz okzitanierak eta gaztelaniak, hizkuntza jatorrikideek, elgarri mailegatu baitzizkieten historian zehar.

Kasu batzutan argi da zubererak gaztelaniari hitza mailegatu diola. Hona bi adibide: ‘palazio, jauregi’, *palatiu* latinez, *palacio* gaztelaniaz, [palásjo] *palazio* zubereraz baina, [palé] [paláj] *palais*, *palatz* bearnesez; ‘prezio’, *prēñium* latinez, *precio* gaztelaniaz [présjo] *prezio* zubereraz baina [prets] *prètz* bearnesez.

Eta gero nola jakin bearnesetik edo era zabalagoan gaskoieratik etortzen denez? Eta noiz mailegatu izan den? Hona beste galdera batzuk. Beste euskalkiek mailegu hori dakautenez ala ez. Euskaraz, zubereraz hain zuzen, baliokidea edo sinonimoa denez ala ez. Gaur egun mailegu hori erabilia denez, asko ala guti, ala kasik edo osoki galdua denez. Hots galderak asko dira; erantzunak ez ditugu hemen emanen artitulu honen gaia ez baita.

Ahokatzak laguntzen gaitu mailegua denez erabakitzeko, zubereraz azentua azken silaban baldin bada mailegu zantzua dela badakigula¹⁰: zubereraz

⁷ Interesgarria litzateke jakitea, adibidez, zoin izan zitekeen lapurterak mendeetan zehar gaskoierari mailegatu zizkion hitzak edo gipuzkerak zizkionak.

⁸ Junes Casenave Harigilek bere 1989ko eta 1993ko zuberotar hiztegieta mailegu horien gehiengoa baztertu ditu, maizenik sarrera lexikaletan ez dira agertzen. Zuberoako ikastoletan ez dira irakasten ere, joera orokorra euskara batura joatea delarik mailegu bat erabili baino.

⁹ Anne Szulmajster-Celnikier-en arabera: *Compte rendu de Les mots voyageurs. Petite histoire du français venu d'ailleurs*, in *La linguistique*, 2006, 42-1: 142. or.

¹⁰ Ikus Coyos 1999: 82-84.

bukanas / *mukanas* [mukanás] ‘sudur-zapi’, gaskoieraz *mocanàs*. Maizenik, hau da eredu, zubereraz azentua hitzaren azkenaurreko silaban kokatzen da: *etxe* [étʃe], *etxea* [etʃja].

3.3. Maileguen zerrenda

1.600 bat hitz mailegu horietan bi adibide har ditzagun, bi eremu kontzeptual ezberdin. Batean zubererak guti mailegatu dio bearnesari. Bestean asko mailegatu dio.

● Espazioa, aldia, aroa

Oro har, eremu kontzeptual horretan 33 hitz aurkitu ditut (Coyos, 2006: 206), espazioa eta aroa bi eremu kontzeptual ezberdin direla ohartuz. Nik hemen lotu ditut.

Hona espazioaren eta aroaren eremuetan ahalezko bearnes maileguak zubereran sartu zirenak:

adesara ‘duela guti’, *arroila* ‘ubaki, bide-bazter’, *arrunt*, ‘ertan, orain berean’, *bahomet* ‘haize-zurrumbilo’, *bisanbis* ‘buruz buru, parez pare’, *buhada* ‘ufako (haize, aide)’, *deskuster* ‘urritiko etxe, lurralde bakarti’, *entertan* ‘anartean, bitartean’, *fresküra* ‘freskotasuna’, *galerna* ‘mendealdeko ekaitz’, *goheña*, *guheña*, *guhaña* ‘bero sentigarri, trumoi’, *gorga* ‘urmael’, *istant*, *ixtant* ‘istant, aldiune’, *kanpaina* ‘baserria’, *kantü* ‘erpin, angelu’, *khantü* ‘hurbil = zub. *hüilan*’, *kharru* ‘karroin = horma’, *khinta* ‘bide sakon’, *khürübil* ‘zurrumbilo’, *kuntino* ‘eten gabe’, *labeda* ‘eguzki haize’, *lahina* ‘elur kantitate tiki’, *lanpi* ‘lauso, lurrun’, *pasadera* ‘pasagune’, *phasü* ‘igarotze’, *salarä* ‘lohi eta elur nahasi’, *sasu* ‘urtaro’, *setemer* ‘irail’, *tenpesta* ‘ekaitz’, *tiribiti* ‘ur, haize zurrumbilo’, *txitxer*, *tzitzer* ‘babazuza, izotz-pikorta’, *ürrüpea*, *ürrüpheä* ‘alubioi lautada’, *zingla* ‘erlaitz’.

● Kalifikatzaileak, kalitateak

Hona bigarren eremu kontzeptual bat, kalifikazioarena, kalitatearena. Honetan zubererak gehiago mailegatu dio nolakotasuna adierazteko. Zerrenda luzea da, 226 hitz kontatu ditut (Coyos 2006: 207-208).

Bistan da, hori ez da errepikatuko, mailegu horiek ez dira denak gaur egun erabiliak edo gutxi. Adineko hiztunek ezagutzen dituzte bereziki.

abarizios ‘xuhur, dirukoi’, *abil* ‘antzetsu, trebe’, *adret* ‘antzetsu eskuz’, *adrezia* ‘trebetasuna eskuz’, *afrus* ‘ikaragarri itsusi’, *agrados* ‘atsegingareri’, *ahül* ‘ahul, makal’, *aillart* ‘bizi, erne’, *airus* ‘apain, lirain’, *aisa* ‘erraz’, *animus* ‘kementsu’, *anple* ‘geldi, mantso’, *arkamas* ‘moldakaitz, trakets’, *arkoil* ‘botza marrantatu’, *arkülo* ‘zangomakur’, *arranegat*, *arnegat* ‘gizon, haur beldurgarri’, *arnegagarri* ‘aspergarri, euskal atzizkiarekin’, *arrabuhü* ‘erretxin’, *arraheín* ‘arretatsu’, *arraro* ‘balio handiko’, *arrazundäble* ‘zentzuzko’, *artifizüüs* ‘artifizial’, *aspre* ‘garratz, samin’, *atrebi* ‘adoretsu’, *arrogánt* ‘handiustez bete’, *ausart* ‘adoretsu’, *azisétan*, *axisetan* ‘xekatu’, *bahalaüt* ‘kalakari’, *bahest* ‘aldrebes’, *balentia* ‘harrokeria’, *balentius* ‘harroputz’, *balius* ‘baliozko’, *barhan* ‘bitxi, *bariäble* ‘aladagai’, *baude* ‘xahutzaile’, *bekatiüt* ‘inozo, lelo’, *bertütus* ‘bertutezko’, *bigurt* ‘bizkor’, *bistus* ‘ikusgai’, *bisilant* ‘erne, atzarri’, *blü* ‘urdin’, *blunt* ‘gorri,

hori', *bolest* 'bolondres', *briulet* 'ubel', *brut* 'liskarzale', *bulest* 'trebe'.

Zerrenda luzatzen da, a- eta b- hizkiarekin hasten direnak bakarrik eman dira. Hona esanahia eman gabe besteak:

degust, deskarat, desgantzol / desgantzail, desgintal / esgintzal, desleail, desobedient, desunet / desonest, difikültus, dilijent, dispost, doit, drole, endes, enjenü, enjenius, entrabal, enüxa / enüxent, errada, errenbes, erreüs, esgart, eskanetx, espantotx, espelüxat, fade, faizunaide / faizüzü, fanfarru, farfail, fi, fidel, fier, finaut, finazios, flakü, flako / flakü, flux, friku / fripu, furius, galant, garro, gloriüs, grazius, güs / güsart, hardit, hastial, ihatxe / iatxa, inbidius, inbizil, infamü, injeminas, inkiet, inobre, inpazient, inpertinent, inportant, irus, jaunfutre, jelos, jenerus, jeñü / jeinhü, kaa, kalamanka, kanpix, kaskant, kauke, khürpe, khüsoi, klar, kobart, koki / kokillot, kokina, konfüs, koraje, korajus, krepaut, krüdel, küdiziat, külpüpüt, künküño, kuntent, küperü, küskürü, letrant, liberel, liferent, likits, linpre, lis, litxiprin, loriüs, lüxürius, maidan / maidam, maier, maladret, malba, malerus, malestriik, malet / maleziüs, manus, manent, mardaller, mazi, mexki, mikalet, minarda, miserable, miserikordius, modest, monttot / munterot, muger, munto, murpiu, Musde, mutxarrot, nakhür / makhür, ñéxü, ñohorro, ñukü, obedient, ollat, pattok / patotx, peilot, pek, perdüt, perfeit, perfüdius, pergüt, petart, pettolat, phintzü / puntxu, phorrot, pihu, pikart, pikaila, piment, pitrail, plain, plazent, pratiko, praube / praue, prekazant, prest, propi, prüdent, puikot, sabant, salbaje, sapient, segür, serius, sinple, sufizient, superius, talabahüt / telehüt, tartalet, thiran, thotxo, thürbüts, tink, traheil, trahenko, trankil, txaputer, txiribixket, txükü, ümi, ündülgü, ündüski, unest, xarment / xarmagarri, xauxet, zilimurdon, zilimindrin.

Hots, bearnesak zubereraren nolakotasunaren eremu kontzeptualari hitz asko eman zizkion.

3.4. Eremu kontzeptualak

Eremu kontzeptuala eta esanahi-eremua bi nozio ezberdinak dira. Eremu kontzeptual batean giza esperientza berdinari lotuak diren terminoak biltzen dira. Adibidez, lehen mailegu zerrendan espazioari, aldiari eta aroari lotu ziren bearnes hitzak bildu ditut. Espazioa eta aroa bi eremu kontzeptual ezberdinak dira.

Aipatu dudan bigarrena kalifikatzaileen eremua da, zerbaiten edo norbaiten izaera eta ezaugarriak adierazteko baliatzen ditugun hitzak.

Zergatik espazioaren eta aroaren eremuetan bearnes mailegu guti ote dira zubereran? Etnologo, zientzia kognitiboetan aditu izan gabe esan dezakegu Zuberoako gizarteak nozio horien adierazteko lexiko aski aberatsa bazuela jadanik. Eta bearnes gizarteak ez zuen eraginik izan horretan.

Aldiz, aurkeztu dudan bigarren eremu kontzeptualean, kalifikatzaileenean, mailegu asko badauzkagu. Badakigu birao egiteko, hitz lohiak eta iraingarriak beste hizkuntzei mailegatzen zaizkiela. Zubererak gaztelaniari eta bearnesari hitz asko mailegatu zizkien. Hitz horiek oro kalifikatzaileen eremu zabalagoan sartzen dira.

Baina, oro har, zoin eremutan mailegatu zuen zubererak eta zoin alortan ez ala guti? Biarnoko gaskoi okzitanierari mailegatu zizkion hitzen sailkapena egin dut, eremu kontzeptualeka, ‘L’apport lexical de l’occitan gascon béarnais au basque souletin’ artikuluan (201-223. or.).

Gaskoierak sentimenduen, kalifikatzaileen (erdeinuzkoak ala ez), ekintza-izen eta aditzen, eguneroko tresna eta gauzen eremuei hitz asko eman zizkiola ohartu nintzen. 2.3. lerroaldean erran bezala 300 bat ekintza-izen eta aditzak zerrendatu dira. Hau da hitz gehien dauzkan eremu kontzeptuala. Hona zerrenda luze horren hastapena: *abandonatū* ‘utzi’, *abertitū* ‘abisu eman’, *abiatū*, *abisatū* ‘kasu eman’, *adelatū* ‘antolatu’, *adio* ‘agur’, *adrezatū* ‘s’adresser’, *aizina* ‘aisaldi’, *akisitū* ‘eskuratu, jabetu’, *akisizione* ‘jabetze’, *akort*, *aküsatū* ‘leporatu’, *akzident* ‘istripu’, *alogū* ‘akordio, konponbide’, *amuina* ‘limosna’, *anuntzatū* ‘iragarri’... Zergatik horrenbeste mailegu eremu horretan? Erantzun osoa ez dut. Erakusten duena da bederen Zuberoako gizartearen eta Biarnokoaren arteko lokarriak estu-estuak zirela.

Alderantziz erran bezala ere, ekarpena ahula da familiaren, erlijioaren, denboraren edo espazioaren eremuetan adibidez. Eremu horiek sinesmenak, egoera munduan, familia erregistro pertsonaletan kokatzen dira, banakoengan, hurbiltasuneko erlazioetan.

Noski, emaitza horiek ikerketa sakona mereziko lukete. Hemen, hausnarketa zenbait baizik ez ditugu egiten.

4. Euskararen eragina bearnesari

Orain txanponaren beste aldeari so egin diezaiozun. Hau da artikularen bigarren zatia, bi hizkuntzen arteko ukipenaren beste alderdia, bearnesari zubereraren eraginaren adibide batzuk. Hasiko gara euskararen eraginaren adibide orokor batzuekin, zubererarena Zuberoako ibar auzoetan aztentuz bigarren zatian.

4.1. Adibide orokor batzuk

• Fonologia eta fonetika

Ezaguna da euskarak gaskoieraren substratua izanez fonologian eta fonetikan eragina izan zuela. Euskaraz bezala gaskoieran, eta beste okzitanieraren dialektoetan ez bezala, hitz guti dira r- konsonantearekin hasten direnak, hasiera absolutuan.

‘Erreka’ *arriu* da bearnesez eta ez *riu* langedozieran bezala.

Baina halere batzuk badira: latinez *ratione* ‘arrazoi’, bearnesez *rason*, Oloroen [razú] ahoskatua, zubereraz *arrazu* [arrazú] / [arrazú].

Gaskoieraz f-en ordez h- erabilten da. Adibidez latinez *festa* ‘jaiegun, besta’ *hèsta* [héstə], [héstə] da bearnesez eta ez *festa* beste okzitaniera motetan bezala.

Latinez *fageu* ‘pago’, biarn. *hac* [hak].

Zubereraz latinezko f horrek maizenik /b/ eman du: *besta* [bêsta], *bago* [bágo].

Hots, /f/ hasiera absolutuan /h/ bilakatu da gaskoian maizenik, bokalarteko gunean noizbait ere (Rohlf: 148).

Zubereraren eta bearnesaren azentuazio sistemak hurbilak dira ere. Oro har azentu oxiton eta paroxitonak ezagutzen baizik ez dituzte.

• Lexikoa

Alderantziz, gaskoierak euskarari hitz gutxi mailegatu zizkion. Grosclauden arabera gaskoiak euskal hitz horiek mailegatu zituen: bearnesez *abarca* ‘abarka’, bearnesez *agòr* ‘udazken’ cf. *agorril*, bearnesez *auròst* ‘hortzetako kantu’ (eusk. *auri* + *osti*, Rohlf: § 86), bearnesez *bisquèra* ‘teilatuko gailur’ (eusk. *bizkar*), bearnesez *sharre* ‘baliorik gabe’ cf. *txar*, bearnesez *shingarra* ‘hirugihar’ cf. zubereraz *txinkor* (2000: 6)¹¹. Beste batzuk bazirela erraten zuen.

Gerhard Rohlfen ustez euskarak hitz gehiago eman zizkion (*Le Gascon Etudes de philologie pyrénéenne*, 1977 (1935)). Halere, zinez guti dira euskarak gaskoierari mailegatu zizkionei konparatuz.

xiv. mendeko Zuberoako zentsu gotikoak, herrietako euskal toponimia azaltzen du, bistan da, pertsonen deitura batzuk eta goitizenak ere. Baina euskaratik etorritik eguneroko izen bat baizik ez du edukitzen, *ahurrate* ‘ahur (kantitatea), eskutada’, *ahur* gehi *-ada* gaskoi atzizkiz eratorria. Garai batez izen hori gaskoiera administratiboan sar zitekeen¹². Orain *punh*, *punhada* esaten da gaskoieraz, *ahurtara* edo *ahurkada* Iparraldeko euskaraz.

Toponomian noski, bereziki Biarnoko mendietan eta erreketan (oronimia, hidronimia), euskal hitzak aurki daitezke (ikus adibidez Grosclaude 2006, Ravier 2011). Philippe Etxegorrik idatzen du: ‘... euskal toponimo ugarik egundaino biziraunen zuen, bereziki Baretos ibarreko muinoetan (...). Salbaterako barrutiko

¹¹ Hona euskararen ustezko eragin bat onartuko ez dena. Etxegorrik esaten digu: ‘Pirinioetako ibarretan, gaskoierak oso era bereziak ditu. Bertan euskarak luzeago biziraun zukeen. Ezau-garririk aipagarrienetakoa determinatzailea da. Latinezko erak *ellum*, *ella* ziren. Ordokietan *lo* [ene oharra: [lu] ahoskatzen dena] eta *la* bilakatu ziren. Pirinioetan, *eth* eta *era* bilakatu ziren, euskararen ahoskera islatuz. Biarnon, menditik Oloroe hiribururaino erabiltzen dira’ (2007: 56. or.). Rohlf kontuan hartuz, baieztapen hori dudakorra da. *Eth* eta *era* dira forma normalak eta *lo* eta *la*, hedatuenak beraz, bereziak. Aipa dezagun Rohlf: ‘En vue de l’évolution normale de *bellu* > *bète* (*bèth*), *bella* > *bèra*, de *illu* et *illa* les formes qu’on doit attendre régulièrement en gascon, sont *ét* et *éra*. Ces formes sont aujourd’hui limitées aux vallées pyrénéennes (...) Dans le reste de la région, y compris dans la Vallée d’Ossau, nous rencontrons des formes plus modernes (*lou*, *la*) dues à l’influence des grandes villes (Bordeaux, Toulouse) et des parlers provençaux’ (1977: 172. or.). Halaber, latinezko *capellum* ‘txapel’ edo *castellum* ‘gatzelu’ formek gaskoieraz *capèth* eta *castèth* eman dute oraingo ortografian, hitzaren bukaeran -ll gaskoieraz th bilakatzen delako eta -ll- hitzaren barnean gaskoieraz r bilakatzen delako (Grosclaude 2000: 38-39). Beraz, euskarak gaskoieraren determinatzaileen forman eraginik izan ez zuela agertzen zaigu.

¹² Cierbide, *Le Censier gothique de Soule* testua: 94. or.

Uhaitzibar apalean, ipar Zuberoako alderan, herri eta etxe izen andana bat bada, han ere euskarak duela gutxi arte biziraun delako frogatzen da (2007: 58-59)¹³.

4.2. Zubereraren eragina: Adibide batzuk Aspe eta Baretos ibarretan

Baina beste norabide batera joanez, hasi dudana ikerketa berri baten lehen urratsen bidez, zubereraren eraginaren adibide batzuk aurkituko ditugu auzoko bearnesean. Ikerketa hori hau da: ‘Zubereraren eta bearneraren arteko harremanez: lexiko mailegatua eta ahoskatzea – Lehen balantzea’ (2011: 877-907. or.).

● Aspe eta Baretos ibarrak

Lan horretan latinetik bearnesera eta zubererara maileguak fonetikaren ikuspuntutik aztertu ditut, nola XXI. mendearen atarian hitz gaskoi horiek ahoskatzaren diren, bai bearnesez (Oloroeko eskualdean bereziki) eta bai ere zubereraz¹⁴. Oloroeko hizkeraz gain Escòsekoa ere aztertu dut pixka bat Hourquebieren eta Pinqueren ikerlana baliatuz (frantsesez Escos)¹⁵. Escòsekoa interesgarria da ere zeren eta Saliesen kantonamenduko herri hori euskal mugan dago, Baxe Nafarroaren ondoan, Biarnoko mendebaldean. Oloroeko hizkera zubererari hurbilago agertzen zaio, Escòsekoa baino.

Ehun bat baino gehiago hitz komunak ahoskatzea aztertu ditut, bokalen, konsonanteen eta azentuazioaren gauzatzea sinkronian konparatuz. Konparaketa horrek argibide asko ekartzen dizkigu eta Aspe eta Baretos (Baretetze) ibarretako ezaugarri zonbait bereziki. Biarnoko Baretos ibarra da Zuberoa hego-ekialdean ukitzen duena, Nafarroatik (Erronkari) Eskiula arte ipar-ekialdean. Aspe ibarra ondokoa da ekialdean. Beraz hiru ibarrak, Zuberoa, Baretos eta Aspe, paraleloak dira mendebaldetik ekialdera.

Ikus mapa eranskinean, frantsesez da. Zuberoa berdez da, Baretos ibarra marroiez. *Tardets* (Atharratze), *Barcus* (Barkoxe), *Esquioule* (Eskiula), *Lanne* (Landa), *Arette* (Ereta)¹⁶, *Féas* (Inhaze), *Oloron-Sainte-Marie* (Oloroe), *Géronce* (Jeruntze) agertzen dira, besteak beste. Zati xuria eskuinean Aspe ibarra da.

● Oloroeko edo Aspe eta Baretos ibarretako ezaugarri batzuk

Hona berriemaileekin, lekukoekin lan eginez agertu zizkidan ezaugarri batzuk.

¹³ Salbaterra Biarnoko hego-mendebaldean dago, Zuberoako ipar-mendebaldean. Eskiula eta Jeruntze Zuberoako ipar-ekialdean daude.

¹⁴ Eskerrik asko Oloroeko lurraldeko hizkeraz nire bi berriemailei: Nathalie M. (72 urte, Estos, Oloroe ondoko herria) eta Rene L. (61 urte, Oloroe/Auloron). Gilbert N.-ren hitz batzuen ahoskatzea bildu nuen (80 urte, Balansun/Valensun, Orteze ondoko herria).

¹⁵ *Phonologie synchronique et phonétique historique du parler d'Escos* (Béarn), 1982.

¹⁶ Arette r bakar batekin idazten da frantsesez, eta ez birekin mapan bezala.

[ʒ]-ren erabiltea [j]-ren ordeez

Beste Iparraldeko euskalkien /j/ fonema /ʒ/ ahoskatzen da zubereraz: *joan* ‘joan’ [joan], baina zubereraz [ʒun].

Mailagatzearen bidez ere /ʒ/ sartua da Zuberoan: *mintzaje* [mintsáʒe] ‘mintzaira, hizkuntza’, *-atge* atzizki gaskoiarekin.

Kontsonante horrekin Oloroeko, mendietako bearneraren eta zubereraren arteko hurbiltasunaren adibide bat badugu: ‘joko’ izena, Iparraldeko beste hizkeretan [jokó] da, zubereraz *jokü* [ʒóky] da.

Oloroeko bearnesaz *jòc* [ʒɔk] erraten da, baina Escòsen edo Biarnoko ipar-ekialdeko Vic Bilhen [jɔk]; ‘jokatu’, Iparraldeko beste hizkeretan [jokatú], zubereraz [ʒok^háty].

Oloroeko bearnesez ‘jokatu’ [ʒugá] erraten da, Escòsen edo Vic Bilhen [jugá].

Ondorioz, Oloroeko lurrladeko [ʒ]-ren erabilera zubereraren eragintzat har dezakegula iduritzen zait.

[tʃ] afrikaria hitzaren amaiera absolutuan -[t]-ren edo -[tʃ]-ren ordeez

Biarnoko mendietako hizkerek -[tʃ] afrikaria badute (Ossau, Aspe eta Baretos ibarrak). Adibidez ‘eder’, *bellu* latinez, *beth* da bearnesez: Oloroen [bɛt] edo [bɛtʃ], Escòsen [bɛtʃ]; ‘lepo’, *collu* latinez, *còth* da bearnesez, Oloroen [kɔtʃ], Escòsen [kɔtʃ].

Amaierako [tʃ] hori mendiko bearnesatzat hartua da. Halere, hitz batzuentzat Oloroeko berriemaileek forma hori bakarra erabiltzen dute: adib. [kɔtʃ].

Halere, amaierako -[tʃ] afrikaria Pirinioetako ibarretan hedatua da Val d’Aran, Lezeko ibarra, Salateko ibarra arte Rohlfen arabera (152. or.). Beraz zubereraren eragina baino aitzinako euskararen eragina dela erranen dugu.

Latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan begiratzea

Latinaren [-a] postonikoa hitzaren amaiera absolutuan [-a] ahoskatzen da Biarnoko mendiko ibarretan zubereraren bezala. Beraz Oloroen [-ɔ] badugu, Escòsen [-ə] eta mendietan [-a].

Adibidez: bearnesez *vaishèra* ‘baxera’, Oloroen [baʃérɔ] ahoskatzen da, Escòsen [baʃérə], Aspeko eta Baretoseko ibarretan [baʃéra] eta Zuberoa [baʃéja].

Halaber bearnesez *taula*, Oloroen [táwlɔ] ahoskatzen da, Escòsen [táwla], Aspeko eta Baretoseko ibarretan Zuberoan bezala [táwla].

Hau da Baretos, Aspe ibarretako bearnesaren eta zubereraren arteko beste hurbiltasun ezaugarri bat, Val d’Araneko ibar arte hedatzen dena (Rohlf: 5). Batzutan, hurbiltasun hori Ossau eta Pirinio Garaietako ibarretako hizkerei hedatzen zaie.

e + a > ia itxidurarako joera mendiko ibar auzoetan

Itxidura horrekin Aspe edo Baretos ibarretako bearnesa zubererari hurbilago dela beste adibidea badugu. Hitz batzuetan e + a > ia bilakatzen da Baretos ibarrean. Zubereraren itxidura hori sistematikoa da.

Adibidez *Féas* (Inhaze euskaraz) Baretos ibarreko herria [hi(j)ás] ahoskatzen da; ‘urteberriko oparia’ *estrea* [ɛstriɔ] ahoskatzen da Baretos ibarrean, Oloroen [ɛstréɔ].

Itxidura hori hedatuago da batzutan, Baretos ibarretik bat.

Erreka: *arriu* eta *arrek*

Hona azken adibide bat. Erran dugu “ibai” *arriu* erraten dela bearnesez, ‘erreka’ *arriulet* erraten da. Halere, Aspe ibarrean ez da *arriu* erabiltzen baina [arék]. Rohlfs euskal *errekare*kiko hurbiltasun horrez ohartu zen (51. or.), baina hitz hori ez da bakarrik ibar horretan erabiltzen; *rec* ere aurkitzen da Okzitaniako beste eskualde zenbaitetan.

Bistan da landa-ikerketa berriak eraman beharko dira, bereziki Baretos eta Aspe ibarretan. Nik hemen adibide batzuk baizik ez ditut eman, aurkitu ditudan lehenak. Pentsa dezakegu zubereraren eta euskararen eragina auzoko bearnes horretan hobe agertuko dela.

5. Ondorio behin-behinekoa

Oro har, adstratu gisa, bearnesak zubereraren izan zituen eraginak agertzen zaizkigu. Argiena da hitz mailegatzea. Baina beste norabidean euskarak substratu eta gero ukipen hizkuntza gisa, zubererak aztertu dugun kasuan, bearnesean izan zituen eraginak agertu dira.

Hori ageri izan da bereziki auzoak diren Aspe eta Baretos ibarretan. Bi ibar horietako gaskoierak zubereraren eragina argiki erakusten du. Aurkitu diren lehen adibide horiek ikerketa norabide berri batzuk idekitzen dituzte.

Bi hizkuntzen arteko ukipenak bi hizkuntzak eragin ditu, baina alor linguistiko ezberdinetan eta era ezberdin batez.

Bibliografia laburra

- ALLIÈRES, J., 2001, *Manuel de linguistique romane*, Paris, Honoré Champion.
- CIERBIDE, R., 1994, *Le Censier gothique de Soule*, Baigorri, Izpegi.
- CASENAVE, J., 1989, *Hiztegia Français-Eüskara* Züberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Züberoa), Hitzak.
- _____, 1993, *Hiztegia II Eüskara-Français*, Xiberotar eüskalkitik abiatzez, Ozaze (Xiberoa), Hitzak.
- COYOS, J.-B., 1999, “Aperçu de la phonétique, de la phonologie et de la morphologie”, in *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l’ergativité*, Paris, L’Harmattan, 57-93. or.
- _____, 2001, “A propos de *Les emprunts de la langue basque à l’occitan de Gascogne* de txomin Peillen”, *Lapurdum*, VI, IKER Euskarari eta Eus-
kal Testuei buruzko Ikerketa Gunea – UMR 5478, Baiona, 391-419. or.

- _____, 2006, “L’apport lexical de l’occitan gascon béarnais au basque souletin”, *Bulletin du Musée basque*, hors série, Société des Amis du Musée basque, Baiona, 201-223. or.
- _____, 2011, “Zubereraren eta bearneraren arteko harremanez: lexiko mailegatua eta ahoskatzea – Lehen balantzea”, *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzarra - Iruñea, 2008/10/06-10, *Iker* 27, Bilbo, Euskaltzaindia, CD Rom, 877-907. or.
- ETXEGORRI, Ph., 2007, “Mugako zuberotarrek”, *Mendebaldeak badu Ekialdea*, XI. jardunaldiak, Bilbo, Mendebalde Kultura Alkartea, 53-76. or.
- GROSCLAUDE, M., 1993, *La Coutume de Soule*, Itzulpena, oharrak eta iruzkinak, Baigorri, Izpegi.
- _____, 2000, *70 clés pour la formation de l’occitan de Gascogne*, Pau, Per Noste – La Civada.
- _____, 2006 (2^e édition), *Dictionnaire Toponymique des Communes Béarn*, Pau / Serres-Castet, éditions Cairn et edicions Reclams.
- HAASE, M., 1990, “Erdal hitzen mailegatzea Iparraldeko euskaraz”, *Euskara*, XXXV, 2, Bilbo, Euskaltzaindia, 405-415.
- _____, 2002, “Basque et gascon en Basse-Navarre”, *Bulletin du Musée basque*, Biarritz, Atlantica, 201-223. or.
- HOUREBIE, F. & M. PINQUE, 1982, *Phonologie synchronique et phonétique historique du parler d’Escos (Béarn)*, Giovanna Madoniaren gidaritzapean, Paris, Université René Descartes, polikopia.
- PEILLEN, Tx., 1992, “Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk”, *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, *Iker*, 7, Bilbo, Euskaltzaindia, 247-272. or.
- _____, 1998, *Les emprunts de la langue basque à l’occitan de Gascogne*, Madrid, Estudios de la UNED.
- PER NOSTE, 2005, *Dictionnaire Français-Occitan (gascon)*, 2 liburuxka, Orthez/Ortze, Per Noste.
- RAVIER, X., 2011, “Réflexions sur la situation linguistique de l’Aquitaine à l’époque prélatine et dans les débuts de la romanisation: acquis et perspectives nouvelles”, *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XVI. Biltzarra – Iruñea, 2008/10/06-10, *Iker*, 26, KD Rom, Bilbo, Euskaltzaindia, 1107-1126. or.
- ROHLFS, G., 1977 [1935], *Le Gascon Etudes de philologie pyrénéenne*, Tübingen - Pau, Max Niemeyer Verlag - Marrimpouey Jeune. 3. edizio emendatua.

Eranskina: Zuberoa, Baretos eta Aspe ibarrak (mapa: iturri ezezaguna)



ISBN: 978-84-457-3286-1



9 788445 732861

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco